# Aurrekontuak genero ikuspegiarekin UPV/EHUn

## I. Kapituluaren analisia (2013 urtea)

# AURREKONTUAK GENERO IKUSPEGIAREKIN (AGI) UPV/EHUn:

# I. KAPITULUAREN ANALISIA, 2013 URTEA

UPV/EHUko BERDINTASUNERAKO ZUZENDARITZA

2016ko apirilaren 20ko Gobernu kontseilua

Egileak: Yolanda Jubeto Ruiz
Mertxe Larrañaga Sarriegi
Ekonomia Aplikatua I
UPV/EHU

UPV/EHUko Berdintasunerako Batzordeak gainbegiratua

2016ko apirilaren 20ko Gobernu kontseiluan aurkeztua

# AURKIBIDEA

AKRONIMOEN ZERRENDA

TAULEN ZERRENDA

1. SARRERA

2. EGIKARITZE LABURPENA

3. KONTZEPTU MARKOA

   3.1. AURREKONTUAK GENERO IKUSPEGIAREKIN UNIBERTSITATEAN

   3.2. ORDAINSARIEN ARTEKO EZBERDINTASUNAK LAN MERKATUAN

   3.3. UPV/EHUko AURREKONTUA 2013n

4. PDIen INGURUKO I. KAPITULUAREN AZTERKETA

   4.1. PDIen IKUSPEGI OROKORRA

   4.2. PDIen (PD) AZTERKETA

      4.2.1. PDIen (PD) IKUSPEGI OROKORRA

      4.2.2. PDIen (PD) AZTERKETA LAN KATEGORIAKA

      4.2.3. PDIen (PD) AZTERKETA IKASTEGIEN ARABERA

      4.2.4. LANALDI OSOKO KONTRATUA IZAN ETA URTE OSOAN ZEHAR LAN EGIN DUTEN PDIen (PD) AZTERKETA

   4.3. SEIURTEKOEN ETA EJren OSAGARRIEN AZTERKETA

   4.4. PIen ANALISIA

5. PASen INGURUKO I. KAPITULUAREN AZTERKETA

   5.1. PASen IKUSPEGI OROKORRA

   5.2. ADIN TARTEEN ARABERAKO AZTERKETA

   5.3. AZTERKETA MAILEN, KATEGORIEN ETA LANPOSTUEN ARABERA

6. ERANSKINAK

## AKRONIMOEN ZERRENDA

| | |
|---|---|
| ADJ | Atxikiak |
| AG | Agregatuak |
| ASU | Unibertsitateko elkartuak |
| AYU | Laguntzaileak |
| C | Lanaldi osoa |
| CC | Zientziak |
| CEU | Unibertsitate Eskolako Katedradunak |
| CGV | Eusko Jaurlaritzaren osagarria |
| CM | Batez besteko kostua |
| COLEU | Unibertsitate Eskolako Laguntzaileak |
| COLU | Unibertsitateko laguntzaileak |
| CT | Kostu Osoa |
| CU | Unibertsitateko Katedradunak |
| DT | Lanean emandako egunak |
| EME | Unibertsitateko Emerituak |
| ETS | Goi Eskola Teknikoa |
| F | Fakultatea |
| GV | Eusko Jaurlaritza |
| ID | Identifikazioa |
| IVEF | SHEEko irakasleak |
| LABINEU | Unibertsitate Eskolako Lan Kontratuko Bitarteko Irakasleak |
| LABINU | Unibertsitateko Lan Kontratuko Bitarteko Irakasleak |
| LEC | Lektoreak |
| NUMNAU | Nautika Goi Eskola Ofizialeko Irakasle Numerario |
| P | Lanaldi partziala |
| PAS | Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak |
| PD | Irakasle-ikertzaileak, ikertzaileak kenduta |
| PDI | Irakasle-ikertzaileak |
| PEG | Aurrekontuak Genero Ikuspegiarekin |
| PI | Ikertzaileak |
| PL | Irakasle Oso |
| QUIN | Bosturteko |
| RET | Oinarrizko ordainsaria |
| RPT | Lanpostuen zerrenda |
| SEXE | Seiurteko |
| TEU | Unibertsitate Eskolako Titularrak |
| TRI | Hirurteko |
| TU | Unibertsitateko Titularrak |
| VIS | Irakasle Bisitariak |

# TAULEN ZERRENDA


| | | |
|---|---|---|
| 0. TAULA | GASTU KAPITULUEN ARABERA BEREIZITAKO AURREKONTUA (2013 eta 2012) | **34** |
| PDI 1 TAULA | KONTRATU BAT BAINO GEHIAGO DUTEN EMAKUMEEN ETA GIZONEZKOEN KOPURUA | **37** |
| PDI 2 TAULA | KONTRATU BAT BAINO GEHIAGO DUTEN EMAKUMEAK ETA GIZONEZKOAK, ADIN TARTEKA | **38** |
| PDI 3 TAULA | KONTRATU BAKARREKO PDIen IKUSPEGI OROKORRA | **38** |
| PDI 4 TAULA | PDIen ORDAINSARIEN BEREIZKETA, SEXUAREN ARABERA | **39** |
| PD 1 TAULA | PDen ORDAINSARIEN BEREIZKETA, SEXUAREN ARABERA | **41** |
| PD 2 TAULA | PDen ORDAINSARIEN BEREIZKETA, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA | **42** |
| PD 3 TAULA | PDen IKUSPEGI OROKORRA LAN KATEGORIA, LANEAN EMANDAKO EGUNEN ETA BATEZBESTEKO KOSTUAREN ARABERA | **44** |
| PD 4 TAULA | PDen KOSTUA, OINARRIZKO ORDAINSARIA ETA ARRAILAK, SEXUAREN ARABERA | **45** |
| PD 5 TAULA | UNIBERTSITATEKO KATEDRADUN PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ARABERA | **46** |
| PD 6 TAULA | UNIBERTSITATEKO KATEDRADUN PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA | **46** |
| PD 7 TAULA | UNIBERTSITATEKO TITULAR DIREN PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ARABERA | **47** |
| PD 8 TAULA | UNIBERTSITATEKO TITULAR DIREN PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA | **48** |
| PD 9 TAULA | LANALDI OSOKO PD AGREGATUEN ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILA | **50** |
| PD 10 TAULA | PD AGREGATUen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA | **51** |
| PD 11 TAULA | UNIBERTSITATEKO ESKOLAKO TITULAR DIREN PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ARABERA | **52** |
| PD 12 TAULA | UNIBERTSITATEKO ESKOLAKO TITULAR DIREN PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA | **52** |
| PD 13 TAULA | PD ATXIKIen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ARABERA | **53** |
| PD 14 TAULA | PD ATXIKIen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA | **54** |
| PD 15 TAULA | UNIBERTSITATEKO LAN KONTRATU BITARTEKO IRAKASLE DIREN PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ARABERA | **55** |
| PD 16 TAULA | UNIBERTSITATEKO LAN KONTRATU BITARTEKO IRAKASLE DIREN PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA | **55** |
| PD 17 TAULA | UNIBERTSITATEKO ELKARTU DIREN PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ARABERA | **57** |
| PD 18 TAULA | PD ELKARTUen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA | **57** |
| PDI 5 TAULA | PDIen PRESENTZIA ETA KOSTUA IKASTEGIKA | **59** |
| PDI 6 TAULA | PDen PORTZENTAJEA, IKASTEGI HANDIETAKO PDIekiko | **60** |
| PD 19 TAULA | KOSTUAN ETA OINARRIZKO ORDAINSARIAN DAUDEN ARRAILAK PDen SEXUAREN ETA IKASTEGI HANDIEN ARABERA | **61** |
| PD 20 TAULA | ARKITEKTURA GET-ko PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK | **63** |
| PD 21 TAULA | ARTE EDERREN FAKULTATEKO PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK | **66** |
| PD 22 TAULA | ZIENTZIA ETA TEKINOLOGIA FAKULTATEKO PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK | **68** |
| PD 23 TAULA | KIMIKA FAKULTATEKO PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK | **70** |
| PD 24 TAULA | GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEKO PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK | **72** |
| PD 25 TAULA | ZUZENBIDE FAKULTATEKO PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK | **74** |
| PD 26 TAULA | PSIKOLOGIA FAKULTATEKO PDen ORDAINSARIEN ARTEKO | **76** |

| | | |
|---|---|---|
| | ARRAILAK | |
| PD 27 TAULA | BILBOKO INGENIARITZA GET-ko PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK | **79** |
| PD 28 TAULA | KOSTUETAN, OINARRIZKO ORDAINSARIAN ETA OSAGARRI NAGUSIETAN DAUDEN ARRAILAK, LAN-KATEGORIAKA (365 EGUN, LANALDI OSOA) | **81** |
| PDI 7 TAULA | PDIen BANAKETA, SEIURTEKOEN ONDORIOZ KOBRATUTAKO DIRU-KOPURUEN TARTEKA | **83** |
| PDI 8 TAULA | PDIen BANAKETA, EJren OSAGARRIEN ONDORIOZ KOBRATUTAKO DIRU-KOPURUEN TARTEKA | **83** |
| PI 1 TAULA. | PIen IKUSPEGI OROKORRA KONTRATUAREN, LANEAN EMANDAKO EGUNEN ETA BATEZBESTEKO KOSTUAREN ARABERA | **84** |
| PI 2 TAULA. | PIen ORDAINSARIEN BEREIZKETA, SEXUAREN ARABERA | **85** |
| PI 3 TAULA. | PIen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA | **86** |
| PAS 1 TAULA | KONTRATU BAT BAINO GEHIAGO DITUZTEN PAS EMAKUMEEN ETA GIZONEZKOEN KOPURUA | **91** |
| PAS 2 TAULA | KONTRATU BAT BAINO GEHIAGO DUTEN PASak, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA | **91** |
| PAS 3 TAULA | PAS EMAKUMEEN ETA GIZONEZKOEN OINARRIZKO ORDAINSARIAK ETA ARRAILA | **92** |
| PAS 4 TAULA | PAS EMAKUMEEN OINARRIZKO ORDAINSARIAK, ADIN TARTEKA | **93** |
| PAS 5 TAULA | PAS GIZONEZKOEN OINARRIZKO ORDAINSARIAK, ADIN TARTEKA | **94** |
| PAS 6 TAULA | PAS EMAKUMEEN ETA GIZONEZKOEN OINARRIZKO ORDAINSARIAK, ORDAINKETA-MAILAREN ARABERA | **96** |
| PAS 7 TAULA | PAS EMAKUMEEN ETA GIZONEZKOEN OINARRIZKO ORDAINSARIAK LAN-KATEGORIAREN ARABERA | **97** |
| PAS 8 TAULA | PAS LANGILEEN KATEGORIA HANDIETAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEZKOEN ORDAINSARIAK ETA ARRAILAK (365 EGUN LANEAN) | **99** |
| PAS 9 TAULA | PAS LANGILEEN KATEGORIA HANDIETAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEZKOEN ORDAINSARIAK (365 EGUN) ETA LANPOSTU NAGUSIENAK | **100** |
| PAS 10 TAULA | PAS EMAKUMEEN ETA GIZONEZKOEN OINARRIZKO ORDAINSARIAK (365 EGUN), ORDAINKETA-MAILAREN ARABERA | **101** |

**ERANSKINAK**

| | | |
|---|---|---|
| PD 6.1 TAULA | UNIBERTSITATEKO KATEDRADUN PDen ORDAINSARIAK ETA ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA | **105** |
| PD 8.1 TAULA | UNIBERTSITATEKO TITULAR DIREN PDen ORDAINSARIAK ETA ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA | **106** |
| PD 10.1 TAULA | PD AGREGATUEN ORDAINSARIAK ETA ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA | **107** |
| PD 12.1 TAULA | UNIBERTSITATE ESKOLAKO TITULAR DIREN PDen ORDAINSARIAK ETA ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA | **108** |
| PD 14.1 TAULA | PD ATXIKIEN ORDAINSARIAK ETA ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA | **109** |
| PD 16.1 TAULA | UNIBERTSITATEKO LAN KONTRATU BITARTEKO IRAKASLE DIREN PDen ORDAINSARIAK ETA ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA | **110** |
| PD 18.1 TAULA | PD ELKARTUEN ORDAINSARIAK ETA ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA | **110** |
| PD 20.1 TAULA | ARKITEKTURA GET-ko PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, KATEGORIAKA | **112** |
| PD 21.1 TAULA | ARTE EDERREN FAKULTATEKO PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, KATEGORIAKA | **112** |
| PD 22.1 TAULA | ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEKO PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, KATEGORIAKA | **113** |
| PD 23.1 TAULA | KIMIKA FAKULTATEKO PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK | **113** |
| PD 24.1 TAULA | GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEKO PDen | **114** |

| | | |
|---|---|---|
| | ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, KATEGORIAKA | |
| PD 25.1 TAULA | ZUZENBIDE FAKULTATEKO PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, KATEGORIAKA | **114** |
| PD 26.1 TAULA | PSIKOLOGIA FAKULTATEKO PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, KATEGORIAKA | **115** |
| PD 27.1 TAULA | BILBOKO INGENIARITZA GET-ko PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, KATEGORIAKA | **115** |
| PI 3.1 TAULA. | PI MOTA NAGUSIEN KOSTUA, OINARRIZKO ORDAINSARIA ETA ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK | **116** |

# 1.SARRERA

Txosten honen xede nagusia da (UPV/EHU) Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko pertsonalaren kostua ahalik eta sakontasun handienarekin aztertzea, datuak sexuaren arabera bereiziz eta aipatu aldagaia txostenean erabilitako informazio estatistikoaren baitako datu esanguratsu ezberdinekin gurutzatuz.

Dokumentu hau UPV/EHUko aurrekontu politikan generoaren ikuspuntua txertatzea xede duen 2011n hasitako prozesu handiago baten baitan kokatzen da. Bere xede nagusia da unibertsitateko kideak diren –ikasleak salbu- emakumezkoen eta gizonezkoen posizioa zehazki ezagutzea eta mendetan zehar arlo publikoan egon den lan arloko sexuaren araberako zatiketaren ondorioz emakumezkoek bizi dituzten desorekak eta ezberdintasunak zehaztea. Arlo akademikoa ez da salbuespena izan, XX. mendeko amaiera arte emakumezkoek zailtasun handiak gainditu behar izan baitituzte unibertsitateko kide (ikasle zein irakasle gisara) izan ahal izateko; ondorioz, erakunde honetan unibertsitateko ikasketak berdintasun baldintzetan egin ahal izateko aukera urriago izan dituzte. Azken hamarkadetan egondako lege aldaketek aldaketarako oinarria jarri badute ere ezberdintasunak antzeman daitezke oraindik, esaterako, arlo pribatuan emakumezkoei eta gizonezkoei esleitu zaizkien paper ezberdinak direla eta. Gure bizitzako esfera ezberdinetan eta zainketa eta etxeko lanen inguruko erantzunkidetasunean bereziki egondako aldaketen moteltasunak familiaren barruan lan karga handiegia hartzera behartu ditu hainbat emakume, beren lanbide karrerarako duten denbora murriztuz honela.

Nolanahi ere, azken hamarkadetan emakumezkoak intentsitate handiarekin sartu dira unibertsitatera eta ondorioz bere egituren osaera aldatzen ari dira; gainera, horien hautua arlo publikoan lan egitea denez askotan, unibertsitatea aldaketa horien isla da ere. Aldaketa horiek ezagutzaren arlo askotan emakumezkoek ikasle, irakasle eta ikertzaile gisara duten presentzia esanguratsuan gauzatzen dira. Administrazio eta zerbitzuetako langileen artean ere emakumezkoen kopurua (gizonezkoena baino handiagoa) esanguratsua da, nahiz eta lanbide bereizketa txikia egon daitekeen ere zenbait lanpostutan.

Txosten honek aurrekontuaren I. Kapituluko datuak aztertzen ditu soilik, hau da, pertsonalaren kostuari dagozkion datuak: irakasleak, ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak, 2013ko ekitaldian. Irakasle-ikertzaileak (PDI) ikerketa lanak soilik egin eta, ondorioz, lan-kategoria ezberdina dituzten horiengandik (PI) bereizteko xedearekin, talde horri dagozkion atal eta tauletan PDI langileak PD izendatuko dira. Jakina da irakaskuntza zein ikerketa lanak egiten dituztela baina PIengandik bereizten dituen ezaugarria, hain zuzen ere, beren irakaskuntza jarduera jarraitua da. Era berean, ikastegiak izendatzerakoan UPV/EHUk 2013an eskaini zuen terminologia erabili da, egungo antolakuntzaren aurretikakoa dena.

Ordainsariei eta beren osagaiei buruzko datuak pertsonalaren kostuaren datu bereiziak agertzen zituen Excel taula batetik atera dira. Unibertsitateko sistemaren ordainketa sistema osatzen duten oinarrizko ordainsariaren eta osagarrien arabera egina dago aipatu bereizketa. Kostu osoa oinarrizko ordainsaria eta osagarrien batuketa da, I. Kapitulutik at dauden osagarriak kenduta.

Irakasle-ikertzaileen (PDI) kasuan, eskuragarri izan diren informazioak ondoko alderdiak hartzen zituen:

**ALDAGAIAK**
- Jaiotze data
- Sexua
- Kategoria
- Arduraldia
- Lanpostu mota
- Saila
- Ikastegia
- Lanean emandako egunak

**ORDAINSARIAK**
- Kostu Osoa
- Oinarrizko ordainsaria
- Hirurtekoak
- Bosturtekoak
- Seiurtekoak
- Eusko Jaurlaritzaren ordainketa osagarriak
- Kargu akademikoak
- Doktore titulua
- Osakidetzaren osagarriak
- Kalte-ordainak
- Bestelakoak
- Erabili gabeak
- I. Kapitulutik at dauden osagarriak

Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen (PAS) kasuan eskuragarri izan diren informazioak ondoko alderdiak hartzen zituen:

**ALDAGAIAK**
- Jaiotze data
- Sexua
- Lanpostuaren kode eta deskripzioa
- Unitate organikoa
- Lantokia
- Maila
- Kontabilitate loturaren ID
- **ORDAINSARIAK**

- Kostu Osoa
- Oinarrizko ordainsaria
- Hirurtekoak
- Pertsonalaren osagarriak
- Arriskugarritasun osagarriak
- Arduraldi osagarri bereziak
- Zereginen pilaketagatiko osagarriak
- Zerbitzu bereziak
- Plusak
- Kalte-ordainak
- Bestelakoak
- Erabili gabeak
- I. Kapitulutik at dauden osagarriak

PDI zein PAS-en kasuan, ez dira jaso langileen seme-alaben inguruko daturik, ezta urtean zehar hartu dituzten baimenen inguruko daturik ere. Interesgarria litzateke aipatu datuak etorkizunean aztertzea, beren zergatiak ezagutu eta senideak zaintzeko baimena eskatzen dituztenak emakumezkoak ote diren edo ez ikusi ahal izateko. Ez da jaso langileen hizkuntza profilari buruzko daturik, ezta ere.

Erabilitako taulak langileek urtean zehar izan dituzten aldaketa guztiak hartzen zituen eta, horrenbestez, zenbait langilek (emakumezkoen % 12 eta gizonezkoen % 8 PDIen artean, emakumezkoen % 25 eta gizonezkoen % 27 PASen artean) kontratu bat baino gehiago izan dute urtean zehar. Aipatu taldea bere aldetik aztertu da eta ezinezkoa zenez datuak kontratu-forma bakarrean pilatzea, arreta gehiena urtean zehar kontratu bakarra izan duten langileen analisian jarri da.

Txostenak ikerketa taldeari emandako sailkapen berberak erabiltzen ditu. "Sailak" aldagaia ez da aintzat hartu PDIen kasuen, ez eta "lantokia" aldagaia ere PASen kasuan, sailen zein lantokien kopurua oso altua zelakoan. UPV/EHUk hiru campus ditu eta azterketa egiterakoan 80 sail eta 32 ikastegi zituen. Aipatu ikastegiei unibertsitate institutu, ospitaletako atalak eta bestelakoak (Campus Birtuala eta zenbait katedra sartzen dira hor, esaterako) gehitu behar zaizkie.

Adinaren aldagaia azterketan aplikatzerakoan, lau adin-tarte zehaztu dira:

- 1. Tartea: 1957. urtera arte: 2013an 56 urte edo gehiago zituzten.
- 2. Tartea: 1958-1967 bitartean: 46-55 urte bitartean zituzten.
- 3. Tartea: 1968-1977 bitartean: 36-45 urte bitartean zituzten.
- 4. Tartea: 1978tik aurrera: 35 urtetik beherakoak.

Txosten honetan sarturiko taula guztiak egileek egin dituzte, Unibertsitateak emandako datuetan oinarrituta. Nabarmentzekoa da dezimalak tauletatik ezabatzen saiatu dela hasiera-hasieratik, kopuruak biribilduz; arrailak eta ezberdintasunak kalkulatzerakoan, halere, dezimalak erabil dira eta, ondorioz, baliteke emaitza horiek zehazki bat ez egitea dezimalik gabeko kopuru absolutuak erabiliz gero lortuko ziren ezberdintasunekin. Taulak agertzerakoan, halaber, beren edukia hutsa duten lerro eta zutabe guztiak kendu dira.

Aurkezten den txostenak ordainsarien arteko arrailak jorratzen ditu baina kuantitatiboki esanguratsuak diren arrailak nabarmentzeaz gain, diru-kopuru handiei dagozkien arrailak nabarmentzen ditu ere. Arrailak gizonezkoek (H) eta emakumezkoek (M) jasotzen dituzten diru-kopuruen arteko ezberdintasunak dira: horrenbestez, kostu osoan (CT) dagoen arraila ondokoa izango litzateke:

$$Brecha\ CT = \frac{CT_H - CT_M}{CT_H} x100$$

Txostena bost ataletan egituratuta dago: sarrera eta gero, egikaritze laburpena aurkeztu da. Aipatuak azterketaren osagai eta ondorio nagusiak azaltzen ditu, datuen azterketa sakonaren irakurketa errazteko nahiarekin. Laburpenak etorkizunerako zenbait esku-hartze estrategia dakartza ere, Generoaren Ikuspegitik Landuriko Aurrekontuen logikari jarraiki.

Egikaritze laburpena eta gero UPV/EHUko pertsonalari buruzko I. Kapituluaren azterketa dator. *Kontzeptu-esparrua* izeneko atalak hiru alderdi jorratzen ditu, lanaren testuingurua finkatzeko. Lehen puntuan Aurrekontuak Genero Ikuspegiarekin (AGI) Unibertsitatean aurkezten dira. Bigarrenean, ordainsarien arteko ezberdintasunak laburbiltzen dira eta hirugarrenean, azkenik, UPV/EHUko 2013 ekitaldiko aurrekontuaren sail garrantzitsuenak aipatzen dira laburki.

Ondoren, irakasle-ikertzaileei (PDI) dagokien I. kapitulua aztertuko da. Analisi horrek, hasteko, PDIen ikuspegi orokorra eskaintzen du; ondoren, PDIen barruko bi taldeak sakonki aztertzen dira: alde batetik, Irakasle-ikertzaileak (PD izena hartu dutenak, bi taldeak hartzen dituen PDI laburdurarengandik bereizteko) eta, bestetik, Ikertzaileak (PI). PDen kasuan, kategoria eta ikastegi nagusien arabera aztertuak izan dira. Eta, halaber, lanaldi ezberdinek eta 2013n lanean emandako egunen arteko ezberdintasunek ordainsarien arteko ezberdintasunengan duten eragina ezabatzeko, lanaldi osoan eta urteko 365 egunak lanean eman dituen PDaren I. Kapitulua aztertu da. UPV/EHUko irakasleentzat funtsezkoak diren bi osagarri aztertu dira ere, ekarpen ekonomikoa izateaz gain ospe akademikoa esleitzen baitute ere: seiurtekoak eta Eusko Jaurlaritzaren ordainketa osagarriak. Txostenaren zati hau PIen kontratu-forma eta adinaren araberako analisiarekin osatzen da.

Txostenaren bosgarren eta azken zatiak Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen (PAS) inguruko I. kapitulua aztertzen du. Kasu honetan sexuaren aldagaia, adina, maila, kategoria eta lanpostu nagusiekin gurutzatu da batez ere.

# 2.EGIKARITZE TXOSTENA

Txosten hau UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak 2011n abiarazi zuen proiektu handiago batean kokatzen da. Horren xedea da genero ikuspegia Unibertsitatearen aurrekontuaren analisian txertatzea. Aipatu proiektua 2014an berrabiarazi zen berriro, UPV/EHUko (2014-2017) Berdintasunerako II Planaren 3.1.7. puntuak dioena betetze aldera: "UPV/EHUko langileen ordainketak genero ikuspegitik aztertzea mailaz maila, aurrekontuen esparruan". Era berean, eta genero ikuspegia duen aurrekontuaren analisian aurrera egiteko unibertsitatearen eremuan, 2013/2014 ekitaldian UPV/EHUko Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren gastu-sail nagusiak aztertu ziren 2015ean zehar.

Genero ikuspegidun aurrekontuek bi osagai nagusi dituzte. Alde batetik, errealitatea xehetasunez azalaraztea eta eremu honetan emakumezkoen eta gizonezkoen artean dauden ezberdintasunak agertzea ahalbidetzen duen analisi osagai bat. Bestetik, proposizio osagai bat, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko harremanak, lan eremukoak kasu honetan, berdintasunean oinarritzearen aldeko politika aldaketak txertatzea izango duena xede.

Txosten honen xedea da UPV/EHUko aurrekontuen I. kapitulua (Unibertsitateko aurrekontu osoaren % 70 suposatzen du) sakonki aztertzea, datuak sexuaren arabera bereiziz eta aipatu aldagaia eskuragarri dauden beste aldagai garrantzitsuekin gurutzatuz (adina, laneko kategoria, ikastegiak, etab.). Jasotako informazioa 2013koa bada ere egungo errealitatearen islatzat hartu daiteke, I. kapituluaren aurrekontu-sailek oso aldaketa gutxi izan baitituzte azken urteotan.

UPV/EHU goi-mailako irakaskuntza eskaintzen duen izaera publikoko unibertsitate erakundea da eta, orokorrean, ordainsarien arteko ezberdintasunak dezente txikiagoak dira arlo publikoan, arlo pribatuan baino. Horrenbestez, hasierako hipotesia nabarmendu: generoagatiko ordainsarien arteko arrailak, egotekotan, oso txikiak direla. Nolanahi ere, txosten honek lan arloko bereizketari loturiko ezberdintasun batzuk aurkitzen lagundu beharko luke, bai eta sexuaren araberako lanaren banaketak printzipioz ezberdintasun horiengan duen eraginaren inguruko galderak proposatu ere.

UPV/EHUko langileen egitura barruko bi talde handiak aztertu dira: Irakasle-ikertzaileak (PDI), batetik, eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak (PAS) bestetik. PDIen kasuan Irakasleak (PD) eta Ikertzaileak (PI) bereizi dira, talde ezberdinak direlako, nahiz eta zenbaitetan irakasleek ikerketa lanak egin ere.

Analisia 2013n zehar kontratu bakarra izan zuten langileak aztertzera mugatu da. Guztira, 6.838 langile aztertu dira, horietako % 49 emakumezkoak direlarik. Horrenbestez, emakumezkoek eta gizonezkoek presentzia orekatua dute, kuantitatiboki, langileriaren barruan. PDIen kasuan 5.363 langile dira (% 45 emakumezkoak); PASen kasuan, berriz, 1.475 langile (% 64 emakumezkoak).

**Ordainsarien arteko arrailak PDan, globalki**

PDak 4.175 lagun dira eta emakumezkoek % 42 suposatzen dute. Sexuaren arabera bereizterakoan, arrail txikia aurki daiteke kostu osoan, % 4koa. Batez besteko oinarrizko ordainsari osoari dagokionean ez dago apenas alderik; izan ere, emakumezkoek gizonezkoek baino batez besteko oinarrizko ordainsari handiagoa dute (% -1). Ondorioz, osagarriak eta osagaiak dira ordainsarien arteko arrailen iturria.

Oinarrizko ordainsariak kostuan duen pisuak behera egiten du adina gora doan heinean, osagarrien pisua handiagoa baita. Osagarrietan dauden arrailek zeinu ezberdina dute ere adin tarte ezberdinetan, seiurtekoetan salbu, non arraila positiboa den beti: % 10,4 emakumezkoen tarte altuenean eta % 8,7, % 39,5 eta % 50,1 emakume gazteenen kasuan. Horrek esan nahi du gizonezkoek emakumezkoek baino lehenago hasten dutela beren ibilbide akademikoa eta amatasunak/aitatasunak prozesu horietan duen eragin ezberdina aztertzera eramaten gaitu. Ezberdintasun horren eragina denboran zehar manten badaiteke ere, adin tarte hori gainditu eta gero beren ibilbide akademikoa sutsuki berrartzen duten emakumezkoak aurki daitezke halaber.I1. Kapitulutik at dauden osagarrien kasuan arrailak positiboak dira beti. Osagarri nagusiei dagokienean, gizonezkoen aldeko arrailik handiena seiurtekoetan ematen da (% 30); atzetik, GVrenak (% 13), bosturtekoak (% 10) eta hirurtekoak (% 5).

**Ordainsarien arteko arrailak PDen artean, kategoriaka**

PDak 19 lan-kategoriatan egituratuta daude. Hartzen dituzten lagunen bolumenaren arabera, ondoko seiak dira garrantzitsuenak: Unibertsitateko Titular (TU) den PDa (% 27), Unibertsitateko Elkartu (ASU) den PDa (% 15), Unibertsitate Eskolako Titular (TEU) den PDa (% 12), Unibertsitateko Katedradun (CU) den PDa (% 11), PD Agregatua (AG, %9) eta, azkenik, Unibertsitateko Lan Kontratuko Bitarteko PDa (LABINU, % 9). Sei talde horiek PDen % 83 suposatzen dute eta, ondorioz, txosten honetan jaso den analisiaren oinarrizko kategoriak izango dira. Aipatuei Atxikiak diren PDen analisia gehituko zaie, talde handia eta egun unibertsitatean irakasten hasteko biderik nagusietakoa den heinean.

Irakasle bakoitzeko batez besteko kostua batez besteko orokorraren gainetik dago aurreko sei taldetako lautan, aipatzekoa delarik Unibertsitateko Katedradun den PDa, bere batez besteko ordainsaria 70.163 eurokoa baita. Batez bestekoaren azpitik daude Unibertsitateko Lan Kontratuko Bitarteko diren PDak eta Unibertsitateko Elkartuak diren PDak (20.403 eta 5.821 euro, hurrenez hurren). Aipatzekoak dira, ondorioz, PDen ordainsarien artean dauden ezberdintasun handiak, lan-kategoria ezberdinen arabera.

Kostu Osoan arrailik handiena duen kategoria Lan Kontratuko Bitarteko Irakasleena da (% 9); Unibertsitateko Elkartuak datoz gero (% 8,4). Arrail

positiboa du ere PD Atxikiak (% 3,7) eta PD Agregatuak (% 0,4). Beste guztietan arraila negatiboa da.

**Katedradun PD**en kasuan deigarria da emakumezkoen eta gizonezkoen artean dagoen ezberdintasuna (CUen % 22 emakumezkoak dira). Kostu osoen arraila % -2 da; ordainsarietan, % -5,3. Oinarrizko ordainsarietan dagoen arrail negatiboa azal dezaketen faktoreen artean egon daiteke, lanean egun berdintsuak ematen badira, talde honetan dauden salbuespenak, gizonen artean batez ere. Osagarriei dagokienean, arrailak zertxobait negatiboak dira hirurteko eta seiurtekoetan; hau da, emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago kobratzen dute. Emakumezko katedradunak gizonezko katedradunak baino zaharragoak direla eta seiurtekoengatik batez beste gehiago kobratzen dutela ondorioztatu daiteke; ondorioztatu al daiteke, halaber, seiurteko gehiago behar izan dituztela emakumezkoek dauden mailara iristeko, hau da, esfortzu handiagoa egin behar izan dutela unibertsitateko irakaskuntzaren gailurrera iristeko? Arrapostua lortzeko ikerketa kualitatiboa egin beharko litzateke.

Ia **Unibertsitateko Titular diren PD** guztiek lanaldi osoa dute (gizonezkoen % 8k dauka soilik lanaldi partziala). Talde zaharra da: % 87 1. eta 2. adin tartetan dago (45 urtetik gora). Lanaldi osoa duten gizonezko eta emakumezkoen kostu osoan dagoen arraila oso txikia da. Kuantitatiboki garrantzitsuenak diren osagarrien kasuan ere arrailak oso txikiak eta negatiboak dira, hirurteko, bosturteko eta seiurtekoetan. Arrailik handiena Eusko Jaurlaritzaren osagarrietan ematen da; eta positiboa da. Orokorrean, arrailek adinarekin batera egiten dute gora. Arrailak negatiboak dira 1. tartean, eta nahiko handiak, baita seiurtekoetan ere (% -41). Horrek pentsarazi dezake, talde honetan Unibertsitateko Katedra bat lortzeko baldintzak betetzen dituzten emakumezkoak ba ote dauden .

**PD Agregatua** talde gaztea da eta lanaldi osoko kontratua dauka. Nabarmentzekoa talde honetan adina eta seiurtekoen artean espero zitekeen logika apurtzen dela: hau da, seiurtekoen ondoriozko oinarrizko ordainsari handiagoa adinak gora egiten duen heinean. Gizonezkoen zein emakumezkoen artean, seiurtekoengatik batez beste gutxien kobratzen dutenak 55 urtetik gorakoak dira; atzetik, 45 urtetik gorakoak eta 35 urtetik beherakoak.

**Unibertsitate Eskolako Titular den PDa** talde zaharra da eta gehiengo handiak lanaldi osoa dauka. Kostuari eta lanaldi osoko langileen oinarrizko ordainsariari dagozkien arrailak zertxobait negatiboak dira. Negatiboak dira ere osagarrietako arrailak, seiurtekoetan ezik, azken osagarri horren pisu kuantitatiboa oso txikia bada ere.

**Atxikiak diren PD**ak UPV/EHUn emakumezkoen portzentajerik handienetakoa duen taldea da (% 60). Tarterik gazteenetan (46 urtetik behera) oinarrizko ordainsariak kostu osoaren % 90 suposatzen du, ez baitute bosturtekorik edo seiurtekorik edo doktore tituluagatiko osagarririk

kobratzeko aukerarik (nahiz eta doktore izan guztiak). Talde honen baitan litekeena da PD agregatua izateko baldintzak betetzen dituzten lagun asko egotea. Baina Espainiako gobernuak plaza publikoak bere horretan mantentzea agindu duenez, talde honetan jarraitzen dute. Horrek kalte ekonomiko handia dakarkie, emakumezko Atxikiek Agregatuek kobratzen dutenaren % 65 kobratzen baitute, batez beste. Gizonezkoen kasuan aipatu portzentajea % 68ra igotzen da.

**Unibertsitateko Lan Kontratuko Bitarteko PD**ak lanaldi osoa zein lanaldi partziala du kontratuan (% 35 emakumezkoen kasuan eta % 32 gizonezkoen kasuan). Talde honek ordezkapenak egiten ditu batez ere eta gaztea da nagusiki. Kostu eta oinarrizko ordainsariari loturiko arrailak handiagoak dira lanaldi partzialekoen kasuan, lanaldi osokoen kasuan baino. Talde honen ezaugarri nagusia da bere kostu osoa PDen batez bestekoaren oso azpitik dagoela (batez bestekoaren % 54). Nabarmentzekoa ere ordainsarien arteko ezberdintasun handia dagoela lanaldi partziala eta osoa dutenen artean. Honela, partziala duten emakumezkoen kostu osoa lanaldi osoa duten emakumezkoen kostuaren % 17 da eta aipatu portzentajea % 19 da gizonezkoen kasuan (emakumezkoak baino egun gehiago eman dituzte lanean, batez beste). Talde honen baitan, partzialtasunak askotan kolokatasun kutsu handia duela dirudi.

Azkenik, **PD Elkartuen** taldeak lanaldi partziala dauka eta gehienek Medikuntzarekin loturiko diziplinetan eta unibertsitate ospitaletako sailetan egiten dute lan. Ondorioz, talde honetan partzialtasunak kolokatasunik ez dakarrela uler daiteke, langile gehienak jarduera hau unibertsitatetik kanpoko besteren batekin uztartzen baitute. Nolanahi ere, lan arloko zaurgarritasun egoeran dauden pertsonak egon daitezke ere, noski. Talde honetan, eta batez beste, oinarrizko ordainsariak kostu osoaren % 91 suposatzen du emakumezkoen kasuan eta % 89 gizonezkoen kasuan. Osagarriek, ondorioz, pisu txikia dute. Osagarri batzuetan arrailak handiak badira ere, diru aldetik dauden ezberdintasunak oso txikiak dira.

**Ordainsarien arteko arrailak PDen artean, ikastegika**

Ikastegien araberako analisia egiterakoan, 2013ko datuen arabera, UPV/EHUren baitan dagoen aniztasunak eta heterogeneotasunak arreta deitu dute; eta bi faktore horiek isla garbia dute: ikastegien kopuru handia eta bakoitzak duen langileriaren tamaina. Dokumentu honek UPV/EHUko zortzi ikastegi aztertu ditu sakonki, tamaina (100 PDItik gora) eta arraila (% 10etik gorakoa) aldagaietan oinarrituta.

**Ikastegi handien artean**, langile bakoitzeko batez besteko kosturik handiena Kimika Fakultateak dauka eta Zientzia eta Teknologia Fakultatea dator gero. Kostuari dagokionean generoagatiko arrailik handiena, gizonen alde, duen ikastegia Arkitektura GET da (% 33,3) eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea dator ondoren (% 20,2). Arrail negatibo handienak Bilboko Ingeniaritza GET du (% -9,1); Gasteizko Ingeniaritza UE dator gero (% -8,4).

Ikastegiak aurkezteko ordenak Unibertsitateak emandako eta azterketa honen oinarri den Excel dokumentuaren ordenamendu alfabetikoari jarraitzen dio.

**Arkitektura GET** ikastegiak oso emakumezko langile gutxi ditu PD gisara (guztien % 18) eta erdia baino gehiagok lanaldi partziala dauka. Partzialtasuna 26 puntu beherago dago gizonen artean. Ez dago katedradun emakumezkorik eta emakumezkoek eta gizonezkoek lan-kategoriatan dituzten partaidetza ezberdinak 365 egunak lanegun osoan eman dituztenen oinarrizko ordainsarien artean dagoen arraila azaltzen du (% 5).

**Arte Ederren Fakultatean** emakumezkoak PD % 40 dira eta beraien pisua oso berdintsua da Unibertsitateko Katedradun (CU) PDen artean ere, PD CU guztien % 38 baitira (eta arrailak negatiboak dira gainera); portzentaje hori UPV/EHUko batez bestekoa baino askoz handiagoa da. Emakumezko gehienek lanaldi osoa dute. Orokorrean, ez dago ordainsarien arteko arrailik lanaldi osoa dutenen artean, gizonek batez beste lanean eman dituzten egunen kopurua emakumezkoena baino txikiagoa bada ere (18 egun gutxiago urtean). Urtean 365 egun baino gutxiago lan egiten duten gizonezkoen eragina alboratu ostean, hau da, lanean emandako egunak homogeneizatu eta gero, arrailak ageri dira: kostu osoan (% 5) eta osagarrietan (% 19 hirurtekoetan, % 25 bosturtekoen, % -12 seiurtekoetan, etab.) batez ere.

**Zientzia eta Teknologia Fakultatean** emakumeak PDen % 40 suposatzen dute, eta PD CU taldearen % 26. Deigarria da Unibertsitateko Titular baino Katedradun PD gehiago daudela gizonezkoen artean. Emakumezkoen kasuan, katedradunek titularren % 50 suposatzen dute. PD CU eta PD TU taldeen kasuan, ordainsarien arteko arrailak positiboak dira, baina ez oso altuak. Fakultate honetan gizonezko eta emakumezko gehienek lanaldi osoa dute.

**Kimika Fakultatean**, emakumezkoak PDen % 42 dira eta % 97k lanaldi osoa du. Orokorrean, ordainsarien arteko arrailak positiboak dira eta kostuan dagoen arraila % 16 da. Emakumezkoek PD CU taldearen % 13 suposatzen dute. Katedradun gizonezkoen artean, Fakultate honetan titular baino katedradun gehiago daude ere.

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean** emakumezkoek PDen % 32 suposatzen dute. Ordainsarien arteko arrail nagusiak positiboak eta altuak dira. Kostuan dauden arrailak (% 20) oinarrizko ordainsarian dagoen arraila baino ia bikoitza dira (% 11). Fakultate honetako kontratu nagusia lanaldi osokoa da, gizonezko zein emakumezkoentzat. Deigarria da katedradun emakumezkoen pisu eskasa (PD CUen % 6). PD TU taldean, emakumezkoak % 27 dira eta arrailak negatiboak dira, seiurtekoetan ezik. Emakumezkoen pisu handia agertzen duten taldeak dira PD Agregatuak (% 41) eta Lan Kontratuko Bitartekoak (% 65). Ordainsarien arteko arrailak txikiak dira PD Agregatuen taldean eta Unibertsitateko Lan Kontratuko Bitarteko PDen taldean arrail guztiak positiboak dira, Eusko Jaurlaritzaren osagarrien kasuan ezik.

**Zuzenbide Fakultatean**, % 42 emakumezkoak dira eta ia guztiek lanaldi osoa dute. Orokorrean, ordainsarien arteko arrailak positiboak dira: batez besteko kostu osoaren kasuan % 16 dira eta oinarrizko ordainsariaren kasuan % 11, biak ere portzentaje garrantzitsuak. Nabarmentzekoa da titular baino katedradun gehiago daudela gizonezkoen artean, bai eta emakumezkoen presentzia txikia ere PD CUen taldean (% 7 kategoria horretan).

**Psikologia Fakultatean**, PDen % 56 emakumezkoak dira eta ia gehienek lanaldi osoa dute. Arrailak positiboak dira orokorrean, eta altuak zenbait kasutan. % 14 kostuan eta % 11 oinarrizko ordainsarian; hau da, garrantzitsuak dirudite. Lanaldi partzialeko kontratua duen taldea oso txikia da baina arrailak, orokorrean, lanaldi osa dutenen taldean baino handiagoak dira. PD CUen % 31 katedradun emakumezkoak dira. Talde honen baitan kostuari eta oinarrizko ordainsariari dagozkien arrailak negatiboak dira, baina nahiko txikiak.

**Bilboko Ingeniaritza GET** ikastegian emakumezkoek % 28 suposatzen dute. Ordainsarien arteko ia arrail guztiak negatiboak dira: % -9 eta % -10 kostuan eta oinarrizko ordainsarian, hurrenez hurren. Lanaldi osoko eta lanaldi partzialeko taldeak bereizita aztertuz gero, ordea, arrailak positiboak dira. Gizonezkoek partzialtasun handiagoa dutenez, beren batez besteko ordainsaria txikiagoa da. Gehienak Unibertsitateko Elkartuak dira (52tik 41). Emakumezkoak PD CUen %16 dira eta talde honen baitako ordainsarien arteko arrailak ez dira handiak.

Lanaldi ezberdinen (lanaldi partzialarena bereziki) eta lanean emandako egunen ondoriozko ordainsarien arteko ezberdintasunen eragina ezabatzeko, urteko 365 egunetan lanaldi osoan lan egin dutenen lan-kategoriak aztertu dira. Lortutako emaitzen artean nabarmentzekoa da oinarrizko ordainsarietan eta kostu osoan dauden arrailak oso txikiak direla talde handienetan.

Seiurtekoen eta Eusko Jaurlaritzaren osagarrien ondorioz kobraturiko kopuruak aztertu dira ere. Lehen kasuan, seiurtekoak kobratzen dituen taldean emakumezkoak azpi ordezkatuta daudela aipa daiteke, PDIen artean duten pisuarekiko alegia. Emakumeen portzentajeak behera egiten du, halaber, kobraturiko kopuruak gora egiten duen heinean eta % 19 dira urtean 10.000 €-tik gora kobratzen dutenen artean. Joera berdintsua da Eusko Jaurlaritzaren osagarrien kasuan, emakumeen pisua handiagoa bada ere.

<u>**Ordainsarien arteko arrailak Ikertzaileen kasuan**</u>

**Ikertzaileak (PI)** PDIen % 22 dira eta batez beste lanean ematen dituzten egunak 51 gutxiago dira, PDen batez bestearekin alderatuta. Emakumezkoak PIen % 53 dira. Orokorrean, talde gaztea da, eta emakumezkoak are gehiago. Kontratu-forma ugari dago eta ordainsarien arteko ezberdintasun handiak forma horren arabera. Halere, ordainsarien arteko ezberdintasunak txikiak dira talde bakoitzaren baitan (% 3 kostu eta oinarrizko ordainsarian). Doktore ikertzaileak dira nabarmentzekoak, beren batez besteko kostua PI guztien

batez bestekoaren (16.431 €; 37.819 euroko PDen batez bestekoa baino askoz txikiagoa) % 235 baita. Batez bestekoaren azpitik, nabarmentzekoa MECeko Prestakuntza Praktiketan dauden ikertzaile PIa (PIen batez besteko kostuaren % 68). Talde horretan, osagarriek oso pisu txikia dute eta oso mota urritan kontzentratzen dira. Arrail garrantzitsuak daude aipatuak kobratzen dituztenen kasuan, baina diru-kopuruak ez dira handiak.

20 lagun baino gehiagoko PI talde ezberdinak aintzat hartuz, arrail handiena % 13 da eta MEC diru-laguntzadun eta Prestakuntza Praktiketan dauden PIen taldeari zein doktoreak ez diren ikertzaileen talde handienari dagokie. MEC diru-laguntza jasotzen duten bekadunak oso gutxi dira (20 emakumezko eta 30 gizonezko) eta batez bestearen azpiko ordainsaria jasotzen dute. Kostu osoari dagokionean, gizonezkoek gizon guztion batez bestekoaren %71 jasotzen dute eta emakumezkoek, berriz, emakume guztion batez bestearen % 63. 365 egunak kontratatuta egon diren pertsonak erreferentziatzat hartuz, kopuru berbera kobratzen dutela ikus daiteke. Arrailaren zioa da emakumeak ikertzaile gisa kontratatuta egon diren epean dauden ezberdintasunak.

Ondorioz, PDIen taldean aurkitu diren arrailak txikiak dira batez besteko arrailekin alderatuz gero; eta arlo pribatuan zein publikoan dauden arrailak baino txikiagoak. Iturria generoa duten ordainsarien arteko ezberdintasunekin gertatzen den bezala, kasu honetan ere lan-kategorietan ematen den presentzia desorekatua da gehienen zioa. Arlo pribatuan gerta daiteke emakumezkoak gehiengo dituzten lanpostuak gizonezkoei emaniko lanpostuak baino sailkapen eta balorazio kaskarragoa izatea. UPV/EHUren kasuan kategoriak irmoki finkatuta daude baina, arrazoi ezberdinengatik, emakumezkoek presentzia txikiagoa dute, ordainsaririk altuena duen kategorian bereziki. Halaber, emakumezko gehienek gutxiago kobratzen dute seiurtekoen kontzeptuaren ondorioz eta hori emakume batzuen zein gizonezko besteen ibilbide akademikoan dauden ezberdintasunen adierazle izan daiteke edo, agian, emakumezkoek kategoria altuenetara iristeko dituzten zailtasun handiagoen adierazle ere.

Kategoria ezberdinetan dauden arrailen atzean daude lanaldi ezberdinak eta urtean zehar lanean ematen diren egunen arteko ezberdintasunak. Lanaldiei dagokienean, UPV/EHUn ez da lanaldi partzialean hain ohikoa den emakumezkoen kontzentrazioa ematen. Era berean, esan beharra dago partzialtasuna normalean kolokatasunari lotzen bazaio ere aipatua ez dela unibertsitatean gertatzen halabeharrez, zenbait kategoriatan behintzat, partzialtasuna beste lanbide-jardueraren batekin osatzen baita. Hori bai, lanaldi partzialeko ordezko langileen kasuan beren ordainsariak hain dira txikiak ezen ez duten lanpostu bakar horren mende dauden pertsonen autonomia ekonomikoa bermatzen.

<u>**Ordainsarien arteko arrailak Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen artean**</u>

UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak (PAS) 1.988 dira. Horietako ia bi heren (% 64) emakumezkoak direnez, talde honetan emakumezkoek pisu handia dutela esan daiteke. Kontratu bat baino gehiago duten PAS langileak 321 emakumezko dira (emakumezkoen % 25) eta 192 gizonezko (gizonezkoen % 27). Emakumezko (% 85) zein gizonezko (% 87) gehienek bi kontratu izan dituzte 2013. urtean zehar.

Hirurtekoen osagarria da talde honetako ia langile guztiek kobratzen duten bakarra. Osagarrien eta kalte-ordainen kopuruek oso pertsona gutxirengan dute eragina eta, ondorioz, ez dute garrantzirik talde honen analisirako. Horrenbestez PAS taldeari buruzko analisiak batez besteko kostu osoa, oinarrizko ordainsaria eta hirurtekoak aztertuko ditu. Beste datu guztiak analisiaren tauletan azalduko dira ere, analisi osoarekiko koherentzia mantentzeko.

Gizonezko langileak emakumezkoak baino gazteagoak dira. 46-55 urte bitarteko taldea %40 da eta 46 urtetik gorakoek % 58 suposatzen dute. 35 urtetik beherakoak % 9 dira. Ordainsaririk handiena duen taldea, talde jendetsuena da ere eta ordainsaririk txikiena duen taldearekiko –gazteena dena ere- batez besteko ordainsarien arteko ezberdintasuna % 9 da, emakumezkoen kasuan dagoena baino 6 puntu txikiagoa. Laburbilduz, ordainsarien arteko ezberdintasunak txikiagoak dira gizonezkoen artean.

Adin tarteak aintzat hartuz, emakumezkoen presentziak beheranzko joera azaltzen du talde honen baitan, emakumezko zaharrenak adin tarte horretan kontratatuariko pertsonen % 70 baitira. Hurrengo tartean % 67 dira eta tarte gazteenak aztertzen diren heinean, % 58tik % 55era pasatzen da adin tarte gazteenean.

Laburbilduz, adin tartea dena dela, gizonezkoen batez besteko kostua emakumezkoena baino handiagoa da. Kostuan dagoen arraila % 8 da bi tarte zaharrenetan, % 11 hirugarrenean eta % 14 gazteenen artean.

Lan-kategoriak dira langileek Unibertsitatearekin dituzten kontabilitate lotura ezberdinak: langile funtzionarioak, lan kontratukoak, bitartekoak eta ordezkoak bereizten dira, besteak beste. Bederatzi lan-kategoria bereiz daitezke. Aipagarrienak PAS funtzionarioak eta Lan Kontratuko PASak dira, emakumezkoen (% 83) zein gizonezkoen (% 86) kasuan. Emakumezkoen eta gizonezkoen banaketa bi kategoria horietan oso ezberdina da, halere. Emakumezkoen % 72 funtzionarioak dira eta % 12 lan kontratukoak. Gizonezkoen kasuan, funtzionarioek % 38 suposatzen dute eta lan kontratukoek % 48. Emakumezkoak PAS funtzionarioen % 77 dira eta arraila % 2 da; lan kontratuko PASen artean % 30 dira eta arraila, % 11.

Kategoria handiak, hau da, 10 emakumezko eta/edo gizonezko gutxienez hartzen dituzten horiek aintzat hartuz ikus daiteke lanpostu-mota guztien artetik sei direla, soilik, 10 gizon eta 10 emakume baino gehiago hartzen dituztenak. Beste guztietan lan arloko bereizketa ematen da. Ordainsarien

arteko arrailik handiena Laborategiko Teknikari Espezialisten artean ematen da, % 5 baita. Hurrengo arraila (% 3) Ikerketaren gestioko teknikarietan ematen da eta Atezain nagusiak datoz atzetik (%2). Beste guztiek ez dute ia garrantzirik, %1 eta % -1 bitartean baitaude.

Emakumezkoen presentzia handiena duten lanpostuak Administrari Laguntzaileen kategoriari dagozkio: 155 emakumezko, beren urteko ordainsaria 30.000 eurotik behera dagoelarik. PAS langilea urteko 365 egunetan lan egin duela aintzat hartuz, eta ordainsari tarteen arabera, emakumezkoen % 30 tarterik baxuenean dago (30.000 eurotik behera); beste muturrean, emakumezkoen % 4 (50.000 eurotik gora). Gizonezkoen kasuan, % 21 tarterik baxuenean dago eta % 6 tarterik altuenean. Erdiko bi eskalek emakumezkoen % 67 hartzen dute; eta gizonezkoen % 73.

Ordainsariak gora egiten duen heinean, emakumezkoen portzentajeak behera egiten du. Tarterik baxuenean dauden langileen % 72 emakumezkoak dira; hurrengoan, % 63. Hirugarren tartean, % 59 eta tarterik altuenean, % 54.

**<u>Gomendioak</u>**

UPV/EHUn lan egiten duten emakumezko eta gizonezkoen oinarrizko ordainsari eta osagarrien ezaugarri nagusiak laburbildu eta gero, egokia deritzo etorkizunerako lehen gomendio batzuk egitea. Lehen gomendioa izango litzateke sexuaren aldagaia UPV/EHUko urteko aurrekontuetan sartzea, I. kapituluak azaltzen duen atalean zehazki. Kategoriaka eta mailaka banatzen den bezalaxe, garrantzitsua izango litzateke ere sexuaren aldagaia txertatzea. Honela, langileriaren osaerari, bere ordainsariei eta denboran zehar izan duen bilakaerari buruzko oinarrizko informazioa lortuko litzateke eta, halaber, I. kapituluaren analisi zehatza urte luzez egitea bermatuko litzateke.

Aldizka (urtero beharrean, 4-5 urtetik behin), txosten honetan egin den luzetarako analisi sakonaren antzeko analisia egin zitekeen. Txosten hau abiapuntua izan daiteke segur aski, etorkizunean egingo diren analisietan sarturiko taulak egungo txostenean sarturikoak baino informatizatuagoak egon daitezen (automatikoagoak, ez hain eskuzkoak).

Etorkizuneko analisietan bestelako aldagaiak aztertu beharko lirateke: seme-alaben kopurua, adina, baimenak, bai eta hizkuntza profila ere, eta sexu aldagaiarekin gurutzatzeaz gain adina, lan-kategoria eta abarrekin gurutzatu ere.

Unibertsitatean dagoen arrail handienetako bat lan-kategorietan dauden ezberdintasun handien emaitza da. Arazo hori txosten honen esparrutik at gelditzen da; halere, hierarkia hain handiko holako egitura bat ezagutza sortu eta zabaltzea xede duen erakunde baterako egokiena den ala ez planteatzera eramaten du.

# 3. KONTZEPTU MARKOA

## 3.1. AURREKONTUAK GENERO IKUSPEGIAREKIN UNIBERTSITATEAN

Azken urteotan genero berdintasunari eginiko aipuak aldi oro ageri dira ia eremu guztietan, baita unibertsitatean ere. Europa mailan, 2020 Zerumuga estrategia funtsezko erreminta da Europako Ikerketa Eremua sortu ahal izateko eta ildo argiak zehazten ditu generoari dagokionean, bi oinarrizko alderditan oinarrituta:

1. Emakumeei zientzia ibilbide gogobetegarria garatzea eragozten dieten oztopoekin akabatzen laguntzen duten ekimenak sustatzea.

2. Emakumeen partaidetza aholku egituretan, sexuen arteko ezberdintasunak proposamenen deialdien edukietan eta, hala badagokio, ebaluazio prozesuetan barneratuta gelditzen direla bermatuz.

Gai honi lotuta, eta Europako Batzordeak zehaztu dituen arauei jarraiki, Eusko Jaurlaritzak onartu duen 2015-2018 Aldirako Unibertsitate Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazle sistemak tasa[1] batzuen jarraipena barneratzen du. Aipatu tasei esker emakumeek unibertsitate jardueran duten partaidetza eta protagonismoa ikus daitezke.

UPV/EHUk, bere aldetik, genero berdintasunarekiko konpromisoa bere plan estrategikoetan islatzen du. Honela, 2012-2017 Plan Estrategikoan "instituzioaren konpromisoa emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunarekiko" aipatzen da barne diagnostikoaren indarguneen artean. Halaber, 2017rako aurreikusten du "Lidergo intelektualaren eta gizarte-erantzukizunaren bokazioarekin garatuko ditu emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzera eta desberdintasun sozial eta kulturalak murriztera bideratutako neurriak, giza eskubideentzako zuzentasun, jasangarritasun eta errespetu handiagoko klabean gizarteen aurrerapena ahalbidetuko dutenak". Gobernantza eta Kudeaketa 4. Ardatzean dioenez "Unibertsitate-komunitatearen kohesio handiagoa sustatuko du. Xede horietarako, UPV/EHUk kontuan izango ditu honako printzipio hauek: aukera-berdintasunarena, aniztasunaren eta diferentziaren errespetuarena, genero-ikuspegia txertatzearena, ekintza positiboarena, sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzearena eta ordezkaritza orekatuarena. Unibertsitateko ordezkaritza-organoetan gizon eta emakumeen proportzio orekatua ahalbidetzeko neurriak hartuko dira, bereziki".

[1] Ibilbide profesionalaren maila ezberdinetan (PDI eta PAS) emakumeek agertzen duten portzentajea ncluye pore carrera profesional (PDI y PAS) eta ikasleen portzentajea ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera agertzen du, adibidez.

2006n[2] sortua izan zenetik, genero ikuspegia Unibertsitatean zeharka barneratzeko lanik handiena egin duena UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza izan da, ezbairik gabe. Aipatu Zuzendaritza Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren menpe dago. Azken hau izan da genero ikuspegia bere Zuzendaritza ezberdinetan sartzea erabaki duena, 2015ean zehar egin den zuzendaritza garrantzitsuenen (ikasleen, enpleguaren edo gizarte erantzukizunaren zuzendaritzak, etab.) sexuaren araberako azterketa bereiziaren bidez. Esan halere prozesua 2011n abiatu zela.

UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren xede nagusia da Unibertsitateko emakume eta gizonezkoen arteko eskubide eta betebehar berdintasunaren zinezko gauzatzea bermatzea eta, horretarako, UPV/EHUko Berdintasunerako Batzordearen laguntza dauka. Batzordea 2009ko maiatzean sortu zen berdintasunaren inguruko lan, aholku eta partaidetza gune gisa unibertsitateko kide guztientzako eta Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2010ean eta 2014n, hurrenez hurren, onartu zituen I. eta II. UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. eta II. Planen idazte prozesuak koordinatu ditu.

(2010-2013) UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren aurkezpenak dioen bezalaxe, bere onarpenak emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna lehentasun eta UPV/EHUKo ardatz zuzendari egitea suposatzen du.

UPV/EHUko (2014-2017) II. Berdintasun Planean genero ikuspegia gizarte eta lan harremanetan txertatzea bilatzen duen ardatzean[3], eta bertako langileen lan baldintzetan, prestakuntzakoetan eta sustapenean diskriminaziorik egon ez dadin bermatzeko 3.1.7. ekintza aurreikusten da: “UPV/EHUko langileen ordainketak genero ikuspegitik aztertzea mailaz maila, aurrekontuen esparruan".

Testuinguru horretan, generoaren ikuspegitik landuriko aurrekontuei loturiko prozesua abiarazteko ekimena 2011n jarri zen martxan, aipatu azterketa Unibertsitatearen[4] aurrekontuen prozesuan sistematikoki gauzatzeko beharrezkoak liratekeen pausuen inguruko kontzeptu eta proposizio lehen ariketa batekin.

Aipatu ekimena, orduan, aurrekontuak generoaren ikuspegitik aztertzeko printzipioen baitan kokatzen da, beren xedea delarik Herri Administrazioak berdinagoa eta bidezkoagoa den eta emakumeen aurkako diskriminaziorik ez duen gizarte baterantz aurreratzeko bidean murgiltzea. Ondorioz, aipatu ekimenak genero berdintasunaren aldeko politika publikoen barruan kokatzen dira eta Europar Kontseiluaren definizioaren arabera, genero

---

[2] UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2016ko ekainaren 15ean onarturiko akordioak sortua izan zen.
[3] UPV/EHUko Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen Akordioa, 2014ko uztailaren 16koa.
[4] *Los presupuestos con enfoque de género en la UPV/EHU. Una primera aproximación (2011).*

zeharkakotasunari (hau da, genero ikuspegia politika publiko guztietan sartzea, beren maila eta fase guztietan, planifikaziotik ebaluazioraino) estuki loturiko lehen estrategia eta neurrien abiaraztea suposatzen dute.

Aurrekontuak herri administrazioen lehentasunak biltzen ditu. Bere azterketak, ondorioz, beren jardueretan berdintasunarekiko konpromisoak zenbateraino islatu diren ebaluatzea suposatzen du. Erabakiek eta politikek aurrekontuan duten islak, gainera, aipatuak genero berdintasunarekiko nahiaren eta konpromisoaren aldagai bilakatzen ditu.

Aurrekontuak Genero Ikuspegiarekin (AGI) delakoen helburu nagusien artean nabarmentzekoa da aurrekontuek emakume zein gizonezkoentzat duten balizko neutralitatearekin uste hedatuarekin apurtzen dutela aipatuek, eta politikek gizartean ikus daitezkeen genero bereizkeriako egoeretan duten eragin eta inpaktu ezberdinak ikusgarri egiten laguntzen dutela.

Genero ikuspegitik landuriko aurrekontuak unibertsitate esparruan aplikatzerakoan gastu publikoaren osagai nagusiak edo funts publikoak lortzeko metodoa aztertu nahi da, finantzaturiko jarduera guztiek unibertsitateko kide guztiengan duten eragina aztertuz datuak sexuaren, adinaren eta unibertsitateko talde ezberdinen (ikasleak, irakasleak, ikertzaileak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, etab.) egoeraren arabera bereiziz.

Txosten honek UPV/EHUk 2013n zuzenki kontratatu zituen langileen kostuaren inguruko informazioa xehetasunez aztertzen du (erakundeko aurrekontu guztiaren % 70tik gorako portzentajea suposatzen du aipatu kostuak). Ordainsarien inguruko datuen azterketak eta aipatuak jasotako osagarrien arabera banatzea eta sexuaren, adinaren, lan-kategoriaren, lanaldiaren eta ordainketa-mailaren aldagaiekin gurutzatzeak UPV/EHUko langileak xehetasunez eta sakontasun maila handiaz ezagutzea ahalbidetu du eta hori lehen pausua da beti mota honetako prozesu guztietan. Azterketaren emaitzak emakumeen eta gizonezkoen ordainsarietan dauden ezberdintasunak hobeto ezagutzeko oinarriak izango dira. Horrek sargai garrantzitsua suposatzen du, epe ertainera Unibertsitateko emakume eta gizonezkoen berdintasuna bermatzeko beharrezkoak ikusten diren aldaketak sartzeko aukera egon dadin. Emakumeen eta gizonezkoen ordainsarien arteko arrailak eta ezberdintasunak, orokorrean, arlo publikoan arlo pribatuan baino txikiagoak direla jakitun, ondoko atalean lan merkatuan dauden ordainsarien arteko ezberdintasunak gainetik azaltzen dira.

## 3.2. ORDAINSARIEN ARTEKO EZBERDINTASUNAK LAN MERKATUAN

Estatistika Institutu Nazionalak (INE) eman duen azken datuen arabera ordainsarien arteko arraila, urteko batezbesteko irabazi gisa neurtua, % 24 zen 2013n Euskal Autonomia Erkidegoan. Gai honi buruzko azterketa eta txosten guztiek diotenez arraila txikiagoa da arlo publikoan arlo pribatuan baino; datuek aurreko esaldia berresten dute. Honela EAEn, 2010. urtean[5], arraila % 30 zen arlo pribatuan eta % 11 arlo publikoan. Ondorioz, arlo pribatuko ordainsarien arteko arrailaren portzentajeak arlo publikoarena hirukoizten du. Horren zioa izan daiteke enpresa publikoek enplegua emateko, sailkatzeko eta sustatzeko sistema objektiboagoak dituztela, lehiaketa edo oposizio sistema bat gainditu behar baitago enplegua lortzeko. Aipa frogetan ez da hautagaiaren bizitza pertsonala edo familiarra aintzat hartzen baina enpresa pribatuetan, ordea, elkarrizketa pertsonalen sistemak faktore horien eragina ahalbidetzen du eta hautaketa, horrenbestez, subjektiboagoa da.

Emakume eta gizonezkoen ordainsarien arteko arrailen gaia korapilatsua da eta ez dago beren zioen inguruko arrapostu argi eta unibokorik. Ordainsarien arteko arrailen inguruko azalpenak honela bil daitezke:

Hedatuenetako bat da emakume eta gizonezkoen prestakuntza-mailan dagoen ezberdintasuna. Azalpen horrek pisua galdu du azken urteotan emakumezkoek garapen izugarria izan baitute hezkuntzari dagokionean eta bigarren hezkuntzako ikasketak gutxienez dituzten neskatoak prestakuntza berbera duten mutilak baino gehiago baitira. Esan beharra dago halere ezberdintasunak daudela oraindik ikasketak aukeratzeko orduan eta joera hori UPV/EHUn ageri da ere. Honela, *UPV/EHU Zenbakitan*[6] eskuragarri dagoen informazioaren arabera, 2012/2013n Unibertsitate honetan gradua bukatu zuten ikasleen artean emakumeak:

- % 84,9 ziren Osasun Zientzietan
- % 74,4 Arte eta Giza Zientzietan
- % 74 Zientzietan
- % 64,6 Gizarte eta Lege Zientzietan
- % 30,4 Ingeniaritza eta Arkitekturan[7].

Unibertsitate titulua duten Europako hamar emakumetatik batek karrera tekniko bat egin zuen; gizonezkoen kasuan, ordea, hamarretik lau dira. Titulazio ezberdinen laneratzea ezberdina izaten ohi da eta hori izan daiteke,

[5] Datu horiek Espainiako Estatistika Institutuko Soldata-egitura Inkestatik datos. Eskuragarri dauden azken datuak 2013ko urteko inkestakoak dira. Urteko datuek halere, ez dute enpresaren kontrolaren (publikoa/pribatua) araberako informaziorik eskaintzen eta, horrenbestez, 2010ean argitaratu zen azken lau urteko inkestaren datuak erabili dira kasu honetan.
[6] http://www.ehu.eus/zenbakitan/es/node/840.html
[7] 2012/2013 ikasturtea trantsizio urtea izan zen lizentzia "zaharren" eta gradu "berrien" artean. Urte horretan bertan, lizentzia lortu zuten emakumeen portzentajeak ondokoak izan ziren: % 65 Zientzia Esperimentaletan, % 64 Giza Zientzietan, % 62,5 Gizarte eta Lege Zientzietan eta % 31,6 Irakaskuntza Teknikoetan.

hein batean, herrialde batzuetan ordainsarien artean dagoen arrailaren zioa, nahiz eta goi-mailako ikasketak duten emakume asko egon aipatu herrialdetan. Nolanahi ere, eta UPV/EHUko PDIen kasuan bederen, aurreko faktoreak ez du garrantzirik, goi-mailako ikasketak izatea ezinbesteko baldintza baita mundu akademikoan sartu ahal izateko. Baina herrialde batzuetan (Finlandian eta Erresuma Batuan, esaterako), ordainsarien artean oraindik dagoen arraila handiaren zioa azal dezake hein batean, nahiz eta goi-mailako ikasketak duten emakume asko egon aipatuetan. Aurreko guztia ikusita, orduan, generoen ordainsarien arteko arraila azaltzeko bestelako aldagaiak behar direla esan genezake.

Bigarren azalpenak lan-eskarmentuan edo lanpostuko antzinatasunean dagoen ezberdintasuna hartzen du aintzat. Nabarmentzekoa da emakumeak, hego Europakoak bereziki, lan-merkatuan XX. mendeko 80. hamarkadatik aurrera sartu zirela era masiboan eta, ondorioz, emakumeek lanpostuan duten antzinatasunaren batezbestekoa gizonezkoa baino txikiagoa izango dela. Txosten honetan aurkezten den I. kapituluaren azterketak gai honen inguruko zenbait gako eskaintzen ditu.

Ordainsarien arteko ezberdintasunak aztertzerakoan galdera bat sortzen da: lan berbera egiteagatiko ezberdintasunak al dira? Arrapostu soila ezezkoa da. Hau da, emakumeek eta gizonezkoek ordainsaria ezberdina dute, hein handi batean, emakumeek eta gizonezkoek ez dituztelako lan berberak egiten, arlo publikoan zein arlo pribatuan. Eta hortik, sexuen ordainsarien arteko arrailaren bi azalpen ondoriozta daitezke. Arrailaren zioa da, hein handi batean, emakumeek gizonezkoek baino lanpostu ezberdinak betetzen dituztela, eta denbora era ezberdinean erabili dutela emakume batzuek eta gizonezko besteek. Bi gai horiek elkarri lotuta daude ezbairik gabe. Familia barruko erantzukizunak, bai etxeko lanak bai pertsonen zaintza ere, emakumeen ardura izaten jarraitzen dutenez, lanari eskaintzen dioten denbora gizonezkoek eskaintzen dioten hori baino laburragoa da eta, ondorioz, erantzukizun eta dedikazio gutxiagoko lanpostuak betetzen ohi dituzte. Aurkeztutako lanak gai horien inguruan hausnarketa egiteko eta UPV/EHUn sexuen bereizkeria horizontala eta bertikala ematen den edo ez ikusteko aukera emango digu.

## 3.3. UPV/EHUko AURREKONTUA 2013n

UPV/EHUko aurrekontu osoa 392.960.784 eurokoa izan zen 2013n, % 8,61 txikiagoa aurreko ekitaldiko aurrekontuarekin alderatuta. Urte hartako aurrekontu memorian ageri den bezalaxe, Eusko Jaurlaritzako ekarpenetatik etorritako diru-sarreren murrizketaren ondorioz aurrekontua 2012n 331,2 M€koa izatetik 2013n 302,7 M€koa izatera pasa zen (28,5 M€ko murrizketa).

Ondokoa da banakapena:

- 252,1 M€ko Ekarpen Arrunta (2012n baino 14,7 M€ gutxiago)
- 16,1 M€ osagarrientzat (0,1 M€ gutxiago 2012n baino)
- 8 M€ Inbertsio Plan Anitzurtekotik (2012n baino 9M€ gutxiago)
- Eta 26,5 M€ programa-kontratuentzat, 2012n baino 4,7 M€ gutxiago eta Unibertsitate Planean 2013rako aurreikusitako kopurua baino % 30 txikiago.

Garrantzitsua da aipatzea ere ekarpen arruntaren % 98,37 UPV/EHUko I. kapitulurako erabili zela; 2012n 7 puntu gutxiago izan ziren. Aurrekontu hauetan sarturiko berritasun bat izan da 250.000 euroko funts baten hornidura. Bere xedea da diru-laguntza berreskuragarriak ematea krisi ekonomikoaren ondorioz egoera ekonomiko txarrean egon eta matrikula tasak ordaintzeko aukerarik ez duten ikasleei.

**0. TAULA. GASTU KAPITULUEN ARABERA BEREIZITAKO AURREKONTUA (2013 eta 2012)**

| KAPITULUAK | 2012ko AURREKONTUA | 2013ko AURREPROIEKTUA | ALDAKETA EHUNEKOETAN | %, OSOAREKIKO |
|---|---|---|---|---|
| I. Kapitulua | 276.797.216 | 288.298.148 | 4,15% | 73,37% |
| II. Kapitulua | 99.940.240 | 76.229.952 | -23,72% | 19,40% |
| III. Kapitulua | 304.882 | 139.173 | -54,35% | 0,04% |
| IV. Kapitulua | 4.144.700 | 3.782.510 | -8,73% | 0,96% |
| IV. Kapitulua | 50.152.229 | 23.010.983 | -54,11% | 5,86% |
| VIII. Kapitulua | 87.100 | 100.000 | 14,81% | 0,03% |
| IX. Kapitulua | 1.184.615 | 1.184.616 | | 0,30% |
| Gizarte Kontseilua | 350.000 | 215.402 | -38,45% | 0,05% |
| GUZTIRA | 432.960.982 | 392.960.784 | -9,24% | 100,00% |

Iturria: Aurrekontuaren azalpen memoria. UPV/EHU, 2013

0. Taulan ikus daitekeen bezala, I. kapituluak UPV/EHUko aurrekontuaren % 73,4 hartu du 2013n (288.298.148 euroko kopurura iritsiz aurreproiektuan). Langileen inguruko I. kapitulua eta ondasun eta zerbitzuen erosketen inguruko II. Kapitulua (gastu arruntak) batuz gero, aurrekontuaren % 90 hartzen dute, egiazko inbertsioetan aurreikusiriko murrizketa handiak direla eta horiek azkenak % 54 gutxitu baitira aurreko ekitaldiarekin alderatuta. I. kapituluan antzeman daitekeen igoera lekuz aldatutako eta kapituluan sartu diren sail ezberdinen ondorio da, ez bere osagai nagusietan egon zitezkeen hazkundeen ondorio.

I. kapituluari dagokionean, aurrekontu aurreproiektuaren memoriak dio Estatuan indarrean dauden arauetara egokitu dela eta aipatuek gastu-murrizketa handiak eskatzen dituztela. Beren garrantzia dela eta, ondoren aipatzen dira:

- 2013n zehar oinarrizko ordainsariek ez dute igoerarik izango 2012koekin alderatuta.
- Erretiro aurreratuei loturiko ordainketen aplikazioaren etetea mantendu da.
- (Itzarri) Borondatezko gizarte aurreikuspenerako sistemari eginiko ekarpena etenda mantendu da.
- Langileen kopurua handitzea dakarten plaza berriak sortzea galarazita dago. Programa-kontratuetan aurreikusitako finantzazioa aldi baterako langileak kontratatzeko erabil daiteke, baldintza zehatzetan.

Hau da, hurrengo ataletan aztertuko diren taulak osagai asko partekatzen dituzte 2012ko horiekin, langileen kopurua eta beren ordainsariak izoztuta egotearen ondorioz gastu aurreikuspena oso antzekoa izan baita bi ekitalditan.

# 4. PDIen INGURUKO I. KAParen AZTERKETA

## 4.1. PDIen IKUSPEGI OROKORRA

Jasotako informazioaren arabera, 2013n 5.966 pertsona zeuden PDI gisa kontratatua UPV/EHUn: 3.241 gizonezko (% 54,3) eta 2.725 emakume (guztien % 45,7).

2.725 PDI emakume horietatik, % 87,5ak (2.388) kontratu bakarra izan du urtean zehar. 337k (% 12), beren aldetik, kontratu bat baino gehiago izan dute. Gizonezkoen kasuan, kontratatutariko 3.241 gizon horietatik 266k kontratuz aldatu dute 2013n, hau da, % 8,3k. Kontratu bat baino gehiago izan dutenen artean, ia % 90ak bi kontratu izan ditu. (PDI 1 taula)

Urtean zehar kontratu bat baino gehiago izan dutenen artean lan-kategoriaren aldaketak egon dira (Lan Kontratuko Bitartekotik Atxikira, Agregatura, Unibertsitate Eskolako Titularretik Unibertsitateko Titularrera), ikastegi aldaketak eta sail aldaketak ere.

**PDI 1 TAULA. KONTRATU BAT BAINO GEHIAGO DUTEN EMAKUMEEN ETA GIZONEZKOEN KOPURUA**

| Nº CONTRATOS | Nº MUJERES | Nº HOMBRES |
|---|---|---|
| 2 | 294 | 236 |
| 3 | 34 | 29 |
| 4 | 8 | 1 |
| 5 | 1 | 0 |
| TOTAL | 337 | 266 |

Iturria: Aurrekontuaren azalpen memoria. UPV/EHU, 2013

Nolanahi ere, PDI 1 taulako datuen bidez ezinezkoa da aldaketak noranzko batean edo bestean izan diren jakitea, ez eta pertsona batek bi kontratu mota ezberdin aldi berean dituen ala ez jakitea ere. Ikertzaileen kasuan, ikerketa izenen aldaketak ikusi dira ere. Ezezaguna da zenbat pertsonek izan dituzten bi kontratu mota ezberdin aldi berean (ikerketa eta irakaskuntzatik, etab.).

Emakumeen bi heren eta gizonezkoen erdia 35 urtetik beherakoak da (PDI 2 taula). Bi kasuetan, kategoria nagusiak ikertzaileak eta lan kontratuko bitartekoak dira, aldea handia dagoelarik beste lan-kategoriekiko.

Adinean gora egin ahala, ikerketarekin eta lan kontratuko bitartekotasunarekin loturiko pertsonak oraindik nagusitzen badira ere, lanpostu aldaketa gehiago ageri dira lan-kategoriaka. Eta adin altuagoko pertsonen kasuan ikastegi eta kategoria aldaketei lotuta daude batez ere.

**PDI 2 TAULA. KONTRATU BAT BAINO GEHIAGO DUTEN EMAKUMEAK ETA GIZONEZKOAK, ADIN TARTEKA**

| ADINA | EMAKUME Kop. | EMAKUME GUZTIEKIKO % | GIZONEZKO Kop. | GIZONEZKO GUZTIEKIKO % |
|---|---|---|---|---|
| 1978 - | 216 | 64,10% | 130 | 48,87% |
| 1968-1977 | 102 | 30,20% | 75 | 28,20% |
| 1958-1967 | 11 | 3,26% | 42 | 15,79% |
| -1957 | 8 | 2,30% | 19 | 7,14% |
| GUZTIRA | 337 | 100% | 266 | 100% |

S/T (jatorrizkoan): Guztiekiko

2013n kontratu bakarra izan duten PDIei dagokienean, 5.363 pertsona izan ziren, PDI 3 taulan ikus daitekeen bezalaxe. Datuak sexuaren arabera bereiziz, 2.388 emakume (% 45) eta 2.975 gizonezko (% 55) direla ikusten da. Ondorioz, generoak orekatuta daudela esan genezake, % 40-% 60 tarte horretan baitaude, nahiz eta % 10eko tartea dagoen oraindik ere emakume eta gizonezkoen artean.

PDI guztiak batera hartuz hasteko, % 81ek (4.325) lanaldi osoa du eta % 19ak (1.038) lanaldi partziala. PDI guztien artean, 1.247 lagunek (% 23) 56 urtetik gora zuten 2013n, 1.614 (% 30) bigarren tartean sartzen dira, 1.185 lagun(% 22) hirugarrenean eta 1.317k (% 25) 35 urte edo gutxiago dituzte. PDIen % 53k, hau da, erdia baino gehiagok, 45 urtetik gora zuten 2013n.

**PDI 3 TAULA. KONTRATU BAKARREKO PDIen IKUSPEGI OROKORRA**

| | | KOPURUA | PORTZENTAJEA |
|---|---|---|---|
| Sexua | Emakumeak | 2388 | 45% |
| | Gizonezkoak | 2975 | 55% |
| Lanaldia | Osoa | 4325 | 81% |
| | Partziala | 1038 | 19% |
| Adina | -1957 | 1247 | 23% |
| | 1958-1967 | 1614 | 30% |
| | 1968-1977 | 1185 | 22% |
| | 1978- | 1317 | 25% |
| PDI mota | PD | 4175 | 78% |
| | PI | 1188 | 22% |
| | PDI guztiak | 5363 | 100% |

**PDI 4 TAULA. PDIen ORDAINSARIEN BEREIZKETA, SEXUAREN ARABER**

| | MUJERES | HOMBRES | BRECHA |
|---|---|---|---|
| DIAS TRABAJADOS | 332 | 341 | |
| TOTAL_COSTE | 31433 | 34432 | 9% |
| RETRIBUCION | 22742 | 23335 | 3% |
| TRIENIOS | 1893 | 2200 | 14% |
| QUINQUENIOS | 2449 | 2998 | 18% |
| SEXENIOS | 786 | 1235 | 36% |
| COMPL_RETRIB_GV | 2954 | 3736 | 21% |
| CARGOS | 314 | 346 | 9% |
| TITULO_DOCTOR | 223 | 201 | -11% |
| CPT_CONC_OSAKIDETZA | 23 | 293 | 92% |
| INDEMNIZACIONES | 49 | 75 | 35% |
| OTROS | 0 | 13 | 97% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 488 | 971 | 50% |

Langileei loturiko batezbesteko kostuaren kopurua kalkulatzeko "oinarrizko ordainsaria" eta osagarri ezberdinak (hirurtekoak, bosturtekoak, seiurtekoak, EJren osagarria, karguagatiko edo Doktore tituluagatiko osagarriak, Osakidetzaren osagarria, ordainak, bestelakoak) batu dira. I. kapitulutik kanpoko osagarriak beren aldetik zenbatzen dira, beren izaera propioa baitute.

UPV/EHUko PDIen batezbesteko kostu osoari dagokionean, lehen irakurketa orokor batean % 9ko arraila ikusten da ordainsarien artean, gizonezkoen alde. Oinarrizko ordainsarien atalean, ordea, arraila % 3 da; horrek esan nahi du alderik handiena osagarrietan ematen dela. (PDI 4 taula)

PDI guztiek, emakume eta gizonezko, orokorrean jasotzen dituzten osagarri garrantzitsuenak aintzat hartuz, kopuruari dagokionean EJren osagarriak garrantzitsuenak direla ikusten da PDI bakoitzak, batez beste, 3.388 euro kobratzen baititu. Bosturtekoak (2.754 euro), hirurtekoak (2.064 euro) eta seiurtekoak (1.035 euro) datoz ondoren. Beste batzuk, doktore tituluari dagokiona esaterako, oso PDI gutxik jasotzen dituzte.

Osagarri garrantzitsuenen artean dagoen arrailarik handiena % 36 da: seiurtekoetan. Seiurtekoaren garrantzia kopuruaz haraindi doa, baldintza geroz eta garrantzitsuagoa baita unibertsitate jarduera eta erantzukizun ugari eskuratu ahal izateko. Seiurtekoa, gainera, ospe akademikoari estuki lotua dago. Bigarrenik, EJren osagarriak nabarmentzen dira, % 21eko arrailarekin. % 18koa bosturtekoetan eta % 14koa hirurtekoetan; horrek esan nahi du emakumeen batezbesteko antzinatasuna gizonezkoena baino txikiagoa dela. Azpimarratzekoa da ere doktore titulua izateagatik[8] ematen den osagarriaren

[8] Ondokoek kobratzen duten Doktore titulua izateagatiko osagarria: Unibertsitateko Elkartua den PDa, Unibertsitateko Laguntzaile den PDa, Unibertsiatteko Lan Kontratuko Bitarteko Irakasle den PDa eta PD Titularra. Ikerketan, Doktore den PIa.

kasuan, kuantitatiboki nahiko xumea dena (211 euro batez beste PDI guztientzat), arraila alderantzizkoa dela, emakumeek gizonezkoek baino zertxobait gehiago kobratzen dutela (% -11; 22 euro urtean). Guzti horrek esan nahi du azterketarik sakonenak osagarri handienetan jarri beharko duela bere arreta. (PDI 4 taula)

Txosten honek bi PDI talde mota ezberdin bereizten ditu. Alde batetik, PD izena (Irakasleak) ematen zaie irakaskuntza eta ikerketa lanak egiten dituzten langileei eta PI (Ikertzaileak) izena ematen zaie ikerketa lanak batez ere egiten dituzten langileei, beren kontratu motarekin bat. Kontratu bakarra duten pertsonen artean % 78 PDak dira (4.715) eta PIak, ikertzaileak, % 22 dira (1.188).

## 4.2. PDIen (PD) AZTERKETA

### 4.2.1. PDIen (PD) IKUSPEGI OROKORRA

PD izeneko taldean irakasleak sartuta daude: ikerketari loturiko lanak egiten badituzte ere, irakaskuntza zehatz bat emateari loturiko lan-kontratu batek arautzen baitu beren lanpostua. 2013n kontratu bakarra zuten UPV/EHUko PD langileak 4.175 ziren: 1.754 emakume (% 42) eta 2.421 gizonezko (% 58). (PD 1 taula)

**PD 1 TAULA. PDen ORDAINSARIEN BEREIZKETA, SEXUAREN ARABERA**

| | PD TOTAL | MUJERES | HOMBRES | BRECHA |
|---|---|---|---|---|
| DIAS TRABAJADOS | 348 | 345 | 351 | |
| TOTAL_COSTE | 37839 | 36944 | 38487 | 4% |
| RETRIBUCION | 25090 | 25261 | 24966 | -1% |
| TRIENIOS | 2620 | 2544 | 2674 | 5% |
| QUINQUENIOS | 3531 | 3324 | 3681 | 10% |
| SEXENIOS | 1305 | 1043 | 1495 | 30% |
| COMPL_RETRIB_GV | 4310 | 3977 | 4551 | 13% |
| CARGOS | 423 | 425 | 421 | -1% |
| TITULO_DOCTOR | 271 | 304 | 247 | -23% |
| CPT_CONC_OSAKIDETZA | 222 | 31 | 360 | 91% |
| INDEMNIZACIONES | 59 | 35 | 76 | 54% |
| OTROS | 9 | 1 | 16 | 96% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 964 | 653 | 1189 | 45% |
| Nª | 4175 | 1754 | 2421 | |

PD guztien kopuru globalak hartuta, batezbesteko oinarrizko ordainsaria (25.090 euro) batezbesteko kostu osoaren (37.839 euro) % 66 da. Alde handia antzematen da, ondorioz, osagarrien ondorioz. Osagarririk garrantzitsuena EJrena da (4.310 euro laguneko). Jarraian, bosturtekoak (3.531 euro), hirurtekoak (2.602 euro) eta seiurtekoak (1.305 euro) datoz: beste guztiak mila eurotik behera daude eta I. Kapitulutik kanpoko osagarriak kopuru horretatik oso gertu daude (964 euro). (PD 1 taula)

## PD 2 TAULA. PDen ORDAINSARIEN BEREIZKETA, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

| | MUJERES | | | | HOMBRES | | | | BRECHA | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | -1957 | 1958-1967 | 1968-1977 | 1978- | -1957 | 1958-1967 | 1968-1977 | 1978- | -1957 | 1958-1967 | 1968-1977 | 1978- |
| DIAS TRABAJADOS | 351 | 358 | 342 | 301 | 352 | 359 | 347 | 315 | | | | |
| TOTAL_COSTE | 49403 | 43517 | 28615 | 16746 | 44536 | 40841 | 29290 | 18674 | -10,9% | -6,6% | 2,3% | 10,3% |
| RETRIBUCION | 29514 | 28288 | 22574 | 15716 | 25904 | 26385 | 22901 | 17396 | -13,9% | -7,2% | 1,4% | 9,7% |
| TRIENIOS | 4589 | 3208 | 1237 | 298 | 3662 | 2865 | 1259 | 364 | -25,3% | -11,9% | 1,8% | 17,9% |
| QUINQUENIOS | 6428 | 4438 | 1153 | 39 | 5430 | 3938 | 1189 | 69 | -18,4% | -12,7% | 3,0% | 43,2% |
| SEXENIOS | 1952 | 1364 | 430 | 39 | 2179 | 1494 | 712 | 79 | 10,4% | 8,7% | 39,5% | 50,1% |
| COMPL_RETRIB_G | 6186 | 5283 | 2401 | 220 | 5716 | 5129 | 2680 | 289 | -8,2% | -3,0% | 10,4% | 23,9% |
| CARGOS | 414 | 588 | 382 | 70 | 456 | 542 | 243 | 61 | 9,3% | -8,5% | -57,2% | -15,5% |
| TITULO_DOCTOR | 207 | 327 | 319 | 363 | 144 | 292 | 305 | 383 | -43,7% | -12,3% | -4,7% | 5,4% |
| CPT_CONC_OSAKI | 113 | 20 | 0 | 0 | 932 | 67 | 0 | 0 | 87,9% | 70,1% | | |
| INDEMNIZACIONES | 0 | 0 | 118 | 0 | 100 | 100 | 0 | 33 | 100,0% | | | |
| OTROS | 0 | 2 | 0 | 0 | 14 | 29 | 0 | 0 | 100,0% | 94,6% | | |
| COMPL_AJ_CAP_I | 511 | 938 | 607 | 172 | 1204 | 1348 | 1103 | 375 | 57,5% | 30,5% | 44,9% | 54,1% |
| Nº | 368 | 643 | 522 | 221 | 869 | 913 | 495 | 144 | | | | |

Datuak sexuaren arabera bereiztean % 4ko arraila ikusten da kostu osoari dagokionean baina ez da ia arrailik ikusten batezbesteko oinarrizko ordainsari osoan; esan gainera emakumeen oinarrizko ordainsaria gizonezkoena baino zertxobait handiagoa dela (% -1). Ondorioz, ordainsarien arteko arrailaren zioa osagarriak direla ikusten da beste behin. Osagarri garrantzitsuenen artean, arrailarik handiena seiurtekoetan dago (% 30); EJrena (% 13), bosturtekoak (% 10) eta hirurtekoak (% 5) datoz gero. Nabarmentzekoa da beste behin doktore titulua izateagatiko arraila negatiboa dela (% -23), bai eta karguengatik ematen dena ere (% -1); hau da, emakumeek ordainsari zertxobait handiagoa dute. (PD 1 taula)

Adin altueneko bi tartetan ordainsarien arteko arraila negatiboa da: % -10,9 eta % -6,6, hurrenez hurren. Jarraian datozen adin tartetan arraila positiboa da, % 2,3; eta gazteenen artean (35 urtetik beherakoak) % 10 da. (PD 2 taula)

Oinarrizko ordainsariak kostuan duen pisuak behera egiten du adina gora doan heinean, osagarrien pisua handiagoa baita. Osagarrietan dauden arrailek zeinu ezberdina dute ere adin tarte ezberdinetan, seiurtekoetan salbu, non ebakia positiboa den beti: % 10,4 tarte altuenean eta % 8,7, % 39,5 eta % 50,1 gazteenen kasuan. Horrek esan nahi du gizonezkoek emakumeek baino lehenago hasten dutela beren ibilbide akademikoa; halaber, amatasunak/aitatasunak prozesu horietan izan dezakeen eragin ezberdina aztertzera bultzatzen gaitu. Ezberdintasun horren eragina denboran zehar manten badaiteke ere, dirudienez adin tarte hori gainditu eta gero beren ibilbide akademikoa sutsuki berrartzen duten emakumezkoak badaude. Arrailak beti positiboak dira ere I. Kapitulutik kanpoko osagarrietan.

Ondorioz, amatasunak irakasle emakumeen taldean duen eragina aztertzeko beharra antzematen da.

## 4.2.2 PDIen (PD) AZTERKETA LAN KATEGORIAKA

PDak 19 lan-kategoriatan egituratuta daude. Hartzen duten langileen kopuruagatik garrantzitsuenak diren horiek dira Unibertsitateko Titular den PDa (TU), guztien % 27 (1.128) eta Unibertsitateko Elkartua den PDa, 612 lagun (% 15). Ondoren datoz Unibertsitateko Titular den PDa (TEU), 489 (% 12), eta Unibertsitateko Katedradunak (CU), 447 (% 11). Eta % 9 suposatzen duten bi kategoria daude: PD Agregatua (AG), 393 lagun, eta Unibertsitateko Lan Kontratuko Bitarteko Irakasleak, 381. Sei talde horiek PDen % 83 suposatzen dute eta, ondorioz, dokumentu honen azterketarako oinarrizko kategoriak izango dira. (PD 3 taula)

2013n PDek 348 egun eman zituzten lanean, batez beste. Aipatu sei taldeen artean, Agregatuak izan ziren lanean egun gehien eman zituztenak, 364 egun batez beste; Unibertsitateko Lan Kontratuko Bitarteko Irakasleek dira egun gutxien eman zituztenak, 302. Lan-kategoria honetako langile guztiak ordezkoak dira[9], hortik lanean emandako egunen kopuruaren beherapena. Eta gainera, aurrerago ikusiko dugun bezalaxe, horietako askok lanaldi partziala dute.

PD kategoriako langile bakoitzeko batezbesteko kostua 37.839 eurokoa izan zen 2013n. Aurrez aipaturiko sei taldetatik lau batezbesteko horren gainetik daude. Nabarmentzekoa Katedradun PDen kasua, beren batezbesteko ordainsaria 70.173 eurokoa baita; Unibertsitateko Titularrak diren PDak datoz gero, 49.830 eurorekin, PD Agregatuak 44.161 eurorekin eta Unibertsitate Eskolako Titularrak 42.601 eurorekin (batezbestekoa baino % 13 gehiago).

Batezbestekoaren azpitik daude Unibertsitateko Lan Kontratuko Bitarteko Irakasleak, 20.403 eurorekin (% 54), eta Unibertsitateko Elkartuak 5.821 eurorekin (% 15). Unibertsitateko Elkartuak diren PD guztiek lanaldi partziala dute, beren kontratu motak horrela eskatzen duelako. Kontratu mota horretan medikuntza espezialitateekin loturiko irakasle asko daudela aintzat hartuta, baliteke aipatuek beren irakasle jarduera ordainsari altua duen beste lanen batekin bateragarri egitea. (PD 3 taula)

[9] PD LABINEUak ordezkoak dira ere eta 293 egun eman dituzte lanean, besteak beste.

**PD 3 TAULA. PDen IKUSPEGI OROKORRA LAN KATEGORIA, LANEAN EMANDAKO EGUNEN ETA BATEZBESTEKO KOSTUAREN ARABERA**

| | Nº | % | DT | CT | % SOBRE CM |
|---|---|---|---|---|---|
| AG | 393 | 9% | 364 | 44161 | 117% |
| ASEU | 104 | 2% | 323 | 7518 | 20% |
| ASU | 612 | 15% | 337 | 5821 | 15% |
| AYU | 20 | 0% | 350 | 23734 | 63% |
| CEU | 42 | 1% | 346 | 50949 | 135% |
| CU | 447 | 11% | 360 | 70163 | 185% |
| COLEU | 89 | 2% | 358 | 37482 | 99% |
| COLU | 148 | 4% | 362 | 38387 | 101% |
| LABINEU | 87 | 2% | 293 | 12917 | 34% |
| LABINU | 381 | 9% | 302 | 20403 | 54% |
| LEC | 7 | 0% | 348 | 22271 | 59% |
| PL | 4 | 0% | 365 | 69730 | 184% |
| NUMNAU | 3 | 0% | 365 | 40805 | 108% |
| ADJ | 169 | 4% | 348 | 29367 | 78% |
| EME | 8 | 0% | 234 | 21893 | 58% |
| IVEF | 35 | 1% | 365 | 42925 | 113% |
| TU | 1128 | 27% | 362 | 49830 | 132% |
| TEU | 489 | 12% | 355 | 42601 | 113% |
| VIS | 9 | 0% | 309 | 16421 | 43% |
| PD TOTAL | 4175 | 100% | 348 | 37839 | 100% |

Kategoria bakoitzean, kopuru positiboak dituzten osagarriak aztertuko dira. Ordainsaririk ez dakarten osagarriak ez dira aztertuko.

PD guztietako ordainsarietan dauden arrailak aztertu eta gero, dauden 19 kategorietatik bederatzin arrailak positiboak dira. Beste guztietan arrailak negatiboak dira, hau da, emakume bakoitzeko batezbesteko kostua gizonezko bakoitzeko kostua baino handiagoa da.

Hemendik aurrera, arreta berezia eskainiko diegu emakumeen portzentajea edo gizonezkoen portzentajea, edo biak, sexu bakoitzeko PD guztien % 10etik gora duten kategoriei. Baldintza hori betetzen duten kategoriak dira PD Agregatua (% 11 eta % 9, emakume eta gizonezkoak, hurrenez hurren); Unibertsitateko Elkartua den PDa (%12 eta % 17); PD CU (% 6 eta % 14); Unibertsitateko Lan Kontratuko Bitarteko Irakasle den PDa (% 11 eta % 8); Unibertsitateko Titular den PDa (% 27 eta % 27) eta Unibertsitate Eskolako Titular den PDa (% 13 eta % 11). Kategoria horiei PD Atxikiaren kategoria gehituko zaie. Zioak bi dira: batetik, ibilbide akademikorako sarbiderik nagusienetakoa dela eta, bestetik, aurrekontu publikoetan murrizketak egin diren azken urte hauetan gehien hazi den taldea dela. (PD 4 taula)

## PD 4 TAULA. PDen KOSTUA, OINARRIZKO ORDAINSARIA ETA ARRAILAK, SEXUAREN ARABERA

| | MUJERES | | | HOMBRES | | | BRECHA | | NUMERO | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | CT | RET | RET/CT | CT | RET | RET/CT | CT | RET | MUJERES | HOMBRES | % SOBRE M | % SOBRE H |
| AG | 44063 | 32064 | 73% | 44250 | 31702 | 72% | 0,4% | -1,1% | 187 | 206 | 11% | 9% |
| ASEU | 6204 | 5748 | 93% | 8560 | 7592 | 89% | 27,5% | 24,3% | 46 | 58 | 3% | 2% |
| ASU | 5490 | 5012 | 91% | 5993 | 5307 | 89% | 8,4% | 5,5% | 209 | 403 | 12% | 17% |
| AYU | 24129 | 23638 | 98% | 23000 | 21508 | 94% | -4,9% | -9,9% | 13 | 7 | 1% | 0% |
| CEU | 49984 | 30725 | 61% | 51251 | 31585 | 62% | 2,5% | 2,7% | 10 | 32 | 1% | 1% |
| CU | 71262 | 40679 | 57% | 69851 | 38649 | 55% | -2,0% | -5,3% | 99 | 348 | 6% | 14% |
| COLEU | 38081 | 27458 | 72% | 36870 | 28429 | 77% | -3,3% | 3,4% | 45 | 44 | 3% | 2% |
| COLU | 37788 | 27700 | 73% | 38857 | 28058 | 72% | 2,8% | 1,3% | 65 | 83 | 4% | 3% |
| LABINEU | 13703 | 12441 | 91% | 11803 | 11004 | 93% | -16,1% | -13,1% | 51 | 36 | 3% | 1% |
| LABINU | 19456 | 17697 | 91% | 21385 | 19462 | 91% | 9,0% | 9,1% | 194 | 187 | 11% | 8% |
| LEC | 21809 | 21562 | 99% | 23427 | 23107 | 99% | 6,9% | 6,7% | 5 | 2 | 0% | 0% |
| PL | 71748 | 41252 | 57% | 69057 | 41181 | 60% | -3,9% | -0,2% | 1 | 3 | 0% | 0% |
| NUMAU | 41639 | 28942 | 70% | 40389 | 28998 | 72% | -3,1% | 0,2% | 1 | 2 | 0% | 0% |
| ADJ | 28901 | 26962 | 93% | 30010 | 27669 | 92% | 3,7% | 2,6% | 98 | 71 | 6% | 3% |
| EME | 15545 | 11384 | 73% | 24009 | 17192 | 72% | 35,3% | 33,8% | 2 | 6 | 0% | 0% |
| IVEF | 46408 | 33309 | 72% | 40867 | 28936 | 71% | -13,6% | -15,1% | 13 | 22 | 1% | 1% |
| TU | 51501 | 32014 | 62% | 48583 | 29612 | 61% | -6,0% | -8,1% | 482 | 646 | 27% | 27% |
| TEU | 43593 | 28198 | 65% | 41712 | 26858 | 64% | -4,5% | -5,0% | 231 | 258 | 13% | 11% |
| VI | 16480 | 16480 | 100% | 16405 | 16405 | 100% | -0,5% | -0,5% | 2 | 7 | 0% | 0% |
| PD TOTAL | 36944 | 25261 | 68% | 38487 | 24966 | 65% | 4,0% | -1,2% | 1754 | 2421 | 100% | 100% |

Denen artean, Kostu Osoan arrailarik handiena duen kategoria Lan Kontratuko Bitarteko Irakasleena da (% 9); Unibertsitateko Elkartuak datoz gero (% 8,4). Arraila positiboa dute ere PD Atxikiak (% 3,7) eta PD Agregatuak (% 0,4). Beste guztietan arraila negatiboa da. Nabarmentzekoa da Unibertsitatean dagoen talde handieneko (Unibertsitateko Titularrak) arraila % -6koa dela; % -4,1 TEUn eta % -2 CUn. Gainera, kostu osoan arraila negatiboa duten azken hiru kasutan, oinarrizko ordainsariari dagokion arraila handiagoa da ere; horrek esan nahi du arraila negatiboa dela ere osagarrietan. Hortik ondoriozta daiteke, orduan, kategoria horietako emakumeek diru gutxiago jasotzen dutela osagarriengatik.

Halaber, arraila negatiboa duten hiru kategoria horietan osagarriek garrantzi berezia dute. Katedradun emakumeen kasuan, esaterako, oinarrizko ordainsaria kostu osoaren % 57 baino ez da; gizonezkoen kasuan, % 55. TUen kasuan, oinarrizko ordainsaria kostuaren % 62 da emakumetan eta % 61 gizonezkoetan. TEUetan, portzentajeak % 65 eta % 64 dira hurrenez hurren. Osagarriak bereziki garrantzitsu dituen beste kategoria bat Irakasle Osoen kategoria da, baina aipatua aztertzeko beharrik ez dagoela erabaki da, oso lagun gutxi baitira, lau hain zuzen ere (PD 4 taula).

Jarraian, aurrez hautaturiko PDen lan-kategoria guztiak aztertuko dira, banaka.

## UNIBERTSITATEKO KATEDRADUN DIREN PDIen (PD) AZTERKETA

Taldeak 447 lagun hartzen ditu. Gizonezko eta emakumeen artean ikusitako lehen ezberdintasun handia taldea osatzen duten kopuru absolutuena da: katedradun emakumeak % 22 baino ez dira (99 emakume eta 348 gizonezko).

Kostu osoen arraila % -2koa da; oinarrizko ordainsarietan, % -5,3. Oinarrizko ordainsarian dagoen arraila negatiboaren azalpen bat izan daitezke talde honen baitan aurki daitezkeen salbuespen ezberdinak, orokorrean egun berberak ematen baitituzte lanean. Honela, 15 katedradun gizonezkok (gizonezkoen % 4,3) ez dute oinarrizko ordainsaririk jaso lanean 365 egun eman eta gero[10] eta osagarriak kobratu dituzte bakarrik 2013n zehar. Emakumeen kasuan salbuespen gutxi dago eta ez dago oinarrizko ordainsaririk ez duen emakumerik. (PD 5 taula)

Osagarrietan, hirurtekoen kasuan arraila % -3 da. Bosturtekoetan ez dago arrailarik eta seiurtekoetan % -2,4koa da. Emakume katedradunak gizonezko katedradunak baino zaharragoak direla eta seiurtekoengatik batez beste gehiago kobratzen dutela uler daiteke; uler al daiteke, halaber, emakumeek seiurteko gehiago behar izan dituztela dauden mailara iristeko, hau da, esfortzu handiagoa egin behar izan dutela unibertsitate irakaskuntzaren gailurrera iristeko? Galdera horren arrapostua lortzeko ikerketa kualitatiboago bat egin beharko litzateke. Talde honen baitan, gizonezkoek emakumeek baino kargu akademiko gehiago dituzte.

[10] Katedradun bakar batek gutxiago lan egin du, 359 egun.

**PD 5 TAULA. UNIBERTSITATEKO KATEDRADUN PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ARABERA**

| | MUJERES | HOMBRES | BRECHA |
|---|---|---|---|
| DIAS TRABAJADOS | 359 | 361 | |
| TOTAL_COSTE | 71262 | 69851 | -2,0% |
| RETRIBUCION | 40679 | 38649 | -5,3% |
| TRIENIOS | 5013 | 4869 | -3,0% |
| QUINQUENIOS | 8389 | 8380 | -0,1% |
| SEXENIOS | 6020 | 5877 | -2,4% |
| COMPL_RETRIB_GV | 10696 | 10151 | -5,4% |
| CARGOS | 465 | 960 | 51,5% |
| CPT_CONC_OSAKIDETZA | 0 | 939 | 100,0% |
| OTROS | 0 | 27 | 100,0% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 1426 | 3339 | 57,3% |
| Nº | 99 | 348 | |

**PD 6 TAULA. UNIBERTSITATEKO KATEDRADUN PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA**

| | -1957 | 1958-1967 |
|---|---|---|
| TOTAL_COSTE | -2,7% | -0,9% |
| RETRIBUCION | -6,6% | -2,1% |
| TRIENIOS | -5,9% | 1,3% |
| QUINQUENIOS | -0,9% | -0,6% |
| SEXENIOS | -7,0% | 5,5% |
| COMPL_RETRIB_G\ | -4,6% | -6,9% |
| CARGOS | 60,0% | 44,0% |
| CPT_CONC_OSAKI | 100,0% | |
| OTROS | | 100,0% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 67,2% | 53,9% |

Aurrez aipatu bezala, emakumeak talde honen % 22 dira eta emakume guztien % 64 lehen adin tartean daude. Horren baitan, tarte osoaren % 21 dira. (PD 6 taula eta eranskineko PD 6.1 taula)

Bigarrenean katedradun emakumeen % 26 aurkitzen dira, tarte horretako lagunen % 36 suposatzen dutenak. Hirugarrenean ez dago emakumerik, lau gizon besterik ez. Gizonezkoen kasuan, zaharrenak % 69 dira, bigarren tartean % 30 eta % 1 hirugarren tartean aurkitzen da.

Ordainsarien arteko arrailei dagokienean, % -2,7 ikus daiteke lehen tartean eta % -0,9 bigarrenean.

Zaharrenen tarteko lagun bakoitzak seiurtekoengatik kobratzen du gehiago (% -7ko arraila, baina 429 euro dira). Bigarren adin tartean, seiurtekoetan dagoen arraila % 5,5 da (gizonezkoek emakumeek baino 294 euro gehiago kobratzen dituzte).

**UNIBERTSITATEKO TITULAR DIREN PDIen (PD) AZTERKETA**

1.128 irakaslez osaturiko taldea; emakumeak % 43 dira. Unibertsitateko Titular diren emakume guztiek lanaldi osoko kontratua dute. Gizonezkoen kasuan, % 8ak (49 lagun) lanaldi partziala dauka; horien arteko gehiengoak, % 84k, 6 orduko lanaldi partziala dauka. Partziala duten 49 gizonezkoen % 88 medikuntza diziplinei loturiko akademikoak dira. Bost salbuespen daude bakarrik (Kazetaritza (1), Teknologia Elektronikoa (2), Matematika Aplikatua (1), Fisika (1)). Lanaldi partziala duten gizonezkoek osoa dutenen % 32 kobratzen dute; P6 direnek % 34 kobratzen dute. Lanaldi osoa duten gizonezko eta emakumeen arteko arraila oso txikia da, % -0,5 baita kostu osoan eta % -2 oinarrizko ordainsarian. Hirurtekoetan eta bosturtekoetan % -1,7, seiurtekoetan % -0,9, EJren osagarrietan % 4,3 eta karguetan % -16. (PD 7 taula)

**PD 7 TAULA. UNIBERTSITATEKO TITULAR DIREN PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ARABERA**

| | MUJERES | HOMBRES | | | | | | BRECHA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | C | C | P | P3 | P4 | P5 | P6 | C |
| DIAS TRABAJADOS | 363 | 361 | 359 | 362 | 356 | 365 | 359 | |
| TOTAL_COSTE | 51501 | 51237 | 16247 | 8858 | 11258 | 12240 | 17430 | -0,5% |
| RETRIBUCION | 32014 | 31371 | 8179 | 3684 | 9507 | 0 | 8720 | -2,0% |
| TRIENIOS | 3987 | 3919 | 957 | 367 | 936 | 0 | 1039 | -1,7% |
| QUINQUENIOS | 5869 | 5771 | 118 | 0 | 0 | 0 | 141 | -1,7% |
| SEXENIOS | 2113 | 2094 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | -0,9% |
| COMPL_RETRIB_GV | 6649 | 6947 | 1753 | 1092 | 815 | 1529 | 1891 | 4,3% |
| CARGOS | 757 | 652 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | -16,1% |
| CPT_CONC_OSAKIDETZA | 113 | 457 | 5240 | 3714 | 0 | 10712 | 5639 | 75,4% |
| OTROS | 0 | 25 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 100,0% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 1041 | 1377 | 305 | 113 | 0 | 0 | 353 | 24,4% |
| Nº | 482 | 597 | 49 | 4 | 3 | 1 | 41 | |

**PD 8 TAULA. UNIBERTSITATEKO TITULAR DIREN PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA**

| | -1957 | 1958-1967 | 1968-1977 |
|---|---|---|---|
| TOTAL_COSTE | -15,4% | -2,6% | 4,8% |
| RETRIBUCION | -18,0% | -3,1% | 1,3% |
| TRIENIOS | -22,3% | -4,9% | 5,6% |
| QUINQUENIOS | -22,2% | -7,8% | 2,3% |
| SEXENIOS | -41,5% | -4,5% | 35,8% |
| COMPL_RETRIB_G\ | -17,7% | 3,1% | 19,7% |
| CARGOS | -24,7% | -4,6% | -90,9% |
| CPT_CONC_OSAKI | 84,6% | 71,1% | |
| OTROS | | 100,0% | |
| COMPL_AJ_CAP_I | 36,9% | 10,4% | 28,2% |

Talde honetan, emakumeen % 87 eta gizonezkoen % 88 1. eta 2. adin tartetan daude. 4. tartean bi lagun daude bakarrik, emakumeak biak. Talderik handiena, gizonezkoetan eta emakumetan, 2. tartea da.

Oinarrizko ordainsariak kostu osoarekiko suposatzen duen proportzioa, emakumeen kasuan, % 59 da lehen tartean; % 62 bigarren tartean; % 70 hirugarrenean eta % 84 laugarrenean, baina bi dira bakarrik. Gizonezkoen kasuan, % 57, % 62 eta % 68 hurrenez hurren (1. tartetik 3.era). Ikus daitekeenez, osagarrien garrantziak gora egiten du adinak gora egiten duen heinean. (PD 8 taula eta eranskineko PD 8.1 taula)

Tarte bakoitzeko arrailak, kostu osoan, ondokoak dira: 1. tartean, % -15,4 lanean emandako batezbesteko egunak berdinak direla; 2. tartean arraila % -2,6 da eta hirugarrenean, % 4,8 positiboa. Oinarrizko ordainsariari dagokionean, arrailak % -18, % -3,1 eta % 1,3, hurrenez hurren.

Deigarriak dira 1. tarteko arraila negatiboak eta aipatuak nola desagertzen diren tartetan aurreratu ahala, 3. tartean positiboak izan arte. Honela, osagarrietan, lehen tarteko arrailek gora egiten dute hirurtekoetan, % -22,3; bosturtekoetan, % -22,2; eta seiurtekoetan, % -41. EJren osagarrietako arraila % -17,7 da; karguetan, berriz, % -24,7. Osakidetzaren osagarrietan % 84ko arraila positiboa dago. Aipatua lanaldi partzialari lotuta dago nola edo hala, gizon zaharrenen tartean (1. tartea) lanaldi partzialeko kontratuen garrantzia nabaria baita (251etik 39, hau da, %16 partzialak). Seiurtekoetako arraila % -41 da eta, ondorioz, talde honetan Unibertsitateko Katedra bat lortzeko baldintzak betetzen dituzten emakumezkoak egon daitezkeela pentsa genezake.

Bigarren tartean, 321etik 10ek partziala dute, hau da, % 3,18. Osagarrietako arrailei dagokienean, askoz ere txikiagoak dira, eta negatiboak dira ere. Osagarrietan dauden salbuespenak EJrenak (% 3,1) eta Osakidetzarenak dira (% 71). Azken arraila hori oso handia bada ere portzentajeari dagokionean, ez du ia garrantzirik kopuru absolutuei dagokienean, 161 euro baitira batez beste. Nolanahi ere, bere garrantzia dauka kontzeptu honen ondorioz kobratzen diren kopuruak aztertzerakoan (zenbait kasutan, 17.000 eurotik gora urtean), oso lagun gutxi baitira osagarri hau kobratzen dutenak.

3. tartean askoz ere lagun gutxiago daude: 63 emakume eta 77 gizonezko. Kasu hauetan, arrailak positiboak dira: % 4,8 kostuan; % 1,3 oinarrizko ordainsarian; % 5,6 hirurtekoetan; % 2,3 bosturtekoetan; % 35,8 seiurtekoetan eta % 19,7 EJren osagarrietan. Kargu akademikoen ondorioz, batez beste, emakumeek gizonezkoen bikoitza kobratzen dute; horrek kargudun emakumeak pisu garrantzitsua dutela adierazten du. Hirugarren tarte honetan, deigarria da ez dagoela kontratu partzialik duen gizonik. Lanaldi partzialak, ondorioz, ez du eraginik datu horietan. Halaber, arraila positiboak, nahiz eta txikiak izan, ugaritzen doaz, EJren eta seiurtekoen osagarriak salbu; bai karguak ere, negatiboan.

## PDI (PD) AGREGATUEN AZTERKETA

2013n kontratu bakarra izan duten PD agregatuen taldeak 393 lagun hartzen ditu. Horietako % 48 (187) emakumeak dira. Taldearen ia % 100ak lanaldi osoko kontratua dauka. Bi lagunek bakarrik dute lanaldi partziala. Horrexegatik, datuak lanaldi osoak aintzat hartuz aztertuko dira soilik. Nabarmendu ere 391 lagunek 365 egun eman dituztela lanean urtean, batez beste.

Kostu osoan dagoen arraila % 0,3 da eta oinarrizko ordainsariarena % -1,3[11]; horrek esan nahi du ez dagoela arrailarik emakumeen eta gizonezkoen kostu osoari dagokionean. Emakumeen eta gizonezkoen oinarrizko ordainsaria batezbesteko kostu osoaren % 73 eta % 72 da, hurrenez hurren. Osagarriei dagokienean, arraila positiboa da beti, kargu akademikoen salbuespenarekin. Osagarri horren ondorioz, emakumeek gizonezkoek baino gehiago kobratzen dute batez beste (237 euro gehiago urtean). Nolanahi ere, arrailarik handiena seiurtekoetan ematen da beste behin (% 19,5). (PD 9 taula)

Hirurtekoetan, PD agregatuaren arraila % 4 da, bosturtekoetan % 7 eta Eusko Jaurlaritzaren ordainketa osagarrietan % 2,5. Azken hori da osagarririk garrantzitsuena talde honetan. Horrenbestez, talde honetan emakumeek antzinatasun gutxiago dutela eta ziurrenik gazteago direla ondoriozta daiteke. Arrailarik nagusiena seiurtekoetan ematen da (% 19,5).

[11] Arraila negatiboaren zioak azaltzen saiatzean, lagun bakoitzeko kostu osoa ia berbera denean eta lanean egun kopuru berdina eman dutenean, ikusi dena da oinarrizko ordainsariak oso berdintsuak badira ere, gizonezkoen kasuan salbuespena ezberdinak daudela eta horiek batezbesteko oinarrizko ordainsaria murrizten dutela. Hain zuzen ere, eta adibide gisa, bi lagun daude oinarrizko ordainsaririk ez dutenak, beste bi 100 eurora iristen ez direnak eta 200 euro inguru jasotzen duen beste bat. Emakumeen kasuan salbuespen gutxiago daude: beren oinarrizko ordainsaria batezbestekoaren % 50ekoa duten 2 emakume.

**PD 9 TAULA. LANALDI OSOKO PD AGREGATUEN ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILA**

| | MUJERES | HOMBRES | BRECHA |
|---|---|---|---|
| DIAS TRABAJADOS | 365 | 365 | |
| TOTAL_COSTE | 44284 | 44407 | 0,3% |
| RETRIBUCION | 32226 | 31817 | -1,3% |
| TRIENIOS | 2396 | 2497 | 4,0% |
| QUINQUENIOS | 3135 | 3361 | 6,7% |
| SEXENIOS | 1038 | 1290 | 19,5% |
| COMPL_RETRIB_GV | 4770 | 4892 | 2,5% |
| CARGOS | 719 | 482 | -49,2% |
| CPT_CONC_OSAKIDETZA | 0 | 69 | 100,0% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 1210 | 1307 | 7,4% |
| Nº | 186 | 205 | |

Talde hau gaztea da nagusiki. Emakumeen kasuan, lehen adin tarteko emakumeak (zaharrenak) % 6 dira. % 34 bigarren tartean daude, % 57 hirugarrenean eta % 3 bakarrik laugarrenean. Ondorioz, bi tarte gazteenak batuz gero, emakume agregatu guztien % 60ra iristen gara. Gizonezkoen kasuan, zaharrenetik gazteenetara doazen portzentajeak, hurrenez hurren, % 13, % 37, % 46 eta % 4 dira. Bi tarte gazteenetako gizonezkoek, ondorioz, Agregatu guztien % 50 suposatzen dute. Laburbilduz, emakumeak gizonezkoak baino gazteagoak dira. Emakumeek eta gizonezkoek 4. tartean duten presentzia eskasaren zioa izan daiteke PD agregatuko plaza berri gutxi atera direla lehiaketan. Izan ere, hori aitortzen du 2013ko UPV/EHUko aurrekontuen aurreproiektuaren memoria (PD 10 taula eta eranskineko PD 10.1 taula).

Adin tarteen araberako ordainsarien arteko arrailak ñimiñoak dira. % 0,2 lehen adin tartean (gizonezkoek 25 egun gehiago eman zituztela lanean), % -1,4, % -0,5 eta % -0,5 hurrengo tartetan.

Talde honek adina eta seiurtekoen artean espero zitekeen logika apurtzen du: hau da, seiurtekoen ondoriozko ordainsari handiagoa adinak gora egiten duen heinean. Halere, gizonezkoen zein emakumeen artean, seiurtekoengatik batez beste gutxien kobratzen dutenak lehen tartekoak dira; bigarren tartekoak datoz gero. Seiurtekoetako arrailak negatiboak dira laugarren adin tartean (% -2, 2, hau da, 30 euro urtean), baina aintzat hartu beharra dago oso talde txikiak direla (5 eta 8, hurrenez hurren).

Kargu akademikoen ondoriozko osagarrietan, emakume Agregatuek gehiago kobratzen dute (% -77, % -45, % -56 eta, tarterik gazteenean, % 100 positiboa zortzi gizonetako baten batek karguren bat izango duelako).

**PD 10 TAULA. PD AGREGATUen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA**

| | -1957 | 1958-1967 | 1968-1977 | 1978- |
|---|---|---|---|---|
| TOTAL_COSTE | 0,2% | -1,4% | -0,5% | -0,5% |
| RETRIBUCION | 3,0% | -1,4% | -1,2% | -2,0% |
| TRIENIOS | -14,3% | -2,6% | -0,8% | 4,8% |
| QUINQUENIOS | -12,3% | -2,1% | 0,5% | 30,3% |
| SEXENIOS | 5,7% | 24,3% | 23,2% | -2,2% |
| COMPL_RETRIB_G\ | 10,4% | -3,7% | 1,5% | 0,4% |
| CARGOS | -77,0% | -45,9% | -56,2% | 100,0% |
| CPT_CONC_OSAKI | 100,0% | 100,0% | | |
| COMPL_AJ_CAP_I | -103,4% | -28,7% | 30,4% | 87,3% |

## UNIBERTSITATE ESKOLAKO TITULAR DIREN PDIen (PD) AZTERKETA

Unibertsitate Eskolako Titularren taldeak 489 irakasle hartzen ditu; horietako % 47 emakumeak dira. Talde honetako gehiengo handiak lanaldi osoko kontratua du. Partzialtasunaren indizea % 1ekoa da emakumeen artean; % 7koa gizonezkoen kasuan.

Lanean emandako egunen kopuruan ez dago ia diferentziarik bi taldeen artean (% -0,9) eta kostu osoari dagokion arraila oso txikia da ere (% -0,4). Lanaldi osoko kontratua dutenen kasuan, oinarrizko ordainsaria kostu osoaren % 65 da emakumeentzat eta % 64 gizonezkoentzat. Osagarriak, horrenbestez, garrantzitsuak dira bientzako. Oinarrizko ordainsarien arteko arraila (lanaldi osoa) % -1,2 da; hirurtekotan zein bosturtekotan, % -4,5. (PD 11 taula)

Emakumeen zein gizonezkoen kasuan, diru-kopuruari dagokionean garrantzitsuenak diren osagarriak bosturtekoak, EJren osagarriak eta hirurtekoak dira. Eta deigarria da seiurtekoen garrantzi urria (27 euro, batez beste, emakumeak; eta 51 euro gizonezkoak). Horren zioa izan daiteke Unibertsitate Eskolako Titularra den PD izateko ez dela beharrezkoa Doktore titulurik izatea.

## PD 11 TAULA. UNIBERTSITATEKO ESKOLAKO TITULAR DIREN PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ARABERA

| | MUJERES | | | HOMBRES | | | | | | BRECHA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | C | P | P6 | C | P | P3 | P4 | P5 | P6 | C | P |
| DIAS TRABAJADOS | 357 | 365 | 365 | 354 | 338 | 249 | 365 | 312 | 346 | | |
| TOTAL_COSTE | 43833 | 16094 | 16094 | 43674 | 15454 | 5796 | 10893 | 11252 | 15173 | -0,4% | -4,1% |
| RETRIBUCION | 28335 | 12542 | 12542 | 27988 | 11732 | 4266 | 8339 | 8905 | 11838 | -1,2% | -6,9% |
| TRIENIOS | 4190 | 2267 | 2267 | 4009 | 1712 | 606 | 1330 | 1432 | 1705 | -4,5% | -32,4% |
| QUINQUENIOS | 5302 | 0 | 0 | 5087 | 401 | 0 | 0 | 0 | 189 | -4,2% | 100,0% |
| SEXENIOS | 27 | 0 | 0 | 51 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 47,4% | 100,0% |
| COMPL_RETRIB_GV | 4554 | 1286 | 1286 | 4538 | 1320 | 439 | 1223 | 915 | 1228 | -0,4% | 2,6% |
| CARGOS | 531 | 0 | 0 | 428 | 22 | 0 | 0 | 0 | 0 | -23,9% | 100,0% |
| TITULO_DOCTOR | 894 | 0 | 0 | 850 | 226 | 484 | 0 | 0 | 214 | -5,2% | 100,0% |
| INDEMNIZACIONES | 0 | 0 | 0 | 718 | 37 | 0 | 0 | 0 | 0 | 100,0% | 100,0% |
| OTROS | 0 | 0 | 0 | 4 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 100,0% | 100,0% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 649 | 0 | 0 | 908 | 106 | 0 | 0 | 0 | 81 | 28,5% | 100,0% |
| Nº | 229 | 2 | 2 | 241 | 17 | 1 | 1 | 2 | 13 | | |

## PD 12 TAULA. UNIBERTSITATEKO ESKOLAKO TITULAR DIREN PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

| | -1957 | 1958-1967 | 1968-1977 |
|---|---|---|---|
| TOTAL_COSTE | -7,6% | -2,6% | -3,4% |
| RETRIBUCION | -6,2% | -3,6% | -2,3% |
| TRIENIOS | -14,5% | -9,8% | -7,0% |
| QUINQUENIOS | -18,7% | -10,4% | -6,1% |
| SEXENIOS | 100,0% | 13,3% | 31,4% |
| COMPL_RETRIB_G\ | -10,1% | 0,6% | -4,5% |
| CARGOS | -10,1% | -35,7% | -30,4% |
| TITULO_DOCTOR | -39,3% | 6,9% | -1,2% |
| INDEMNIZACIONES | 100,0% | 100,0% | |
| OTROS | | 100,0% | |
| COMPL_AJ_CAP_I | 68,8% | -52,0% | 59,3% |

1. eta 2. tartetan emakumeen % 85 eta gizonezkoen % 91 aurkitzen dira; horrenbestez, talde zaharra dugu eta desagertzeko bidean dagoen kontratu mota denez, ez dago inor 4. tartean.

Kostuan eta oinarrizko ordainsarian dauden arrailak negatiboak dira. 1. tartean % -7,6koa da, 2. tartean % -2,6koa eta 3. tartean % -3,4koa. Oinarrizko ordainsariari dagokionean, arrailak % -6,2, % -3,6 eta % -2,3 dira. Arraila negatibo horien atzetik dauden alderdietako bat da partzialtasunak duen pisu ezberdina. (PD 12 taula eta eranskineko PD 12.1 taula)

Osagarriei dagokienean, negatiboak dira guztiak, seiurtekoenak ezik, positiboak direnak tarte guztietan, nahiz eta garrantzirik ez izan diru-kopuru txikia suposatzen direlako.

Doktore tituluari dagokionean, nabarmentzekoa da lehen tarteko lagunen arteko arraila % -39,3 dela, % 6,9 bigarren tartean eta % -1,2 hirugarren tartean. Hau da, badirudi lehen tartean emakume doktore gehiago daudela gizonezko doktore baino.

**PDI (PD) ATXIKIen (PD) AZTERKETA**

Emakumeak zein gizonezkoak 100 lagunera iristen ez badira ere (emakumeak gertu daude), beren azterketa egin da ere, unibertsitatearen etorkizuna talde honetan dagoelakoan, edo ibilbide akademikoaren lehen urratsa delakoan, unibertsitatean sartzeko bide nagusiena baita egun.

**PD 13 TAULA. PD ATXIKIen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ARABERA**

| | MUJERES | HOMBRES | BRECHA |
|---|---|---|---|
| DIAS TRABAJADOS | 349 | 346 | |
| TOTAL_COSTE | 28901 | 30010 | 3,7% |
| RETRIBUCION | 26962 | 27669 | 2,6% |
| TRIENIOS | 767 | 807 | 5,0% |
| COMPL_RETRIB_GV | 1011 | 1351 | 25,2% |
| CARGOS | 161 | 182 | 11,3% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 317 | 523 | 39,4% |
| Nº | 98 | 71 | |

Taldeak 98 emakume eta 71 gizon zituen 2013n (PD 13 taula). Adin tarterik jendetsuenak 3.a eta 4.a dira bi kasutan. Emakumeen % 49a 3. tartean dago; % 44a berriz, 4.enean. Gizonezkoen kasuan, % 55a 3. tartean dago eta % 37a 4.enean. Horrexegatik, azterketa bi talde horretara mugatuko da. Kasu hauetan, oinarrizko ordainsariak kostu osoaren % 90 suposatzen du, ez baitute bosturtekorik edo seiurtekorik edo doktore tituluagatiko osagarririk kobratzeko aukerarik (nahiz eta doktore izan guztiak ere).

**PD 14 TAULA. PD ATXIKIen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA**

| | 1968-1977 | 1978- |
|---|---|---|
| TOTAL_COSTE | 4,3% | 4,5% |
| RETRIBUCION | 3,5% | 4,8% |
| TRIENIOS | -0,3% | -13,3% |
| COMPL_RETRIB_G | 20,2% | -30,8% |
| CARGOS | 0,4% | 51,8% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 46,8% | 28,3% |

Arrailei dagokienean, 3. tartean kostuari lotuta dagoen arraila % 4,3 da (1.318 euro gehiago, batez beste, gizonezkoek) eta 4. tartean dagoen arraila % 4,5 da (1.314 euroren aldea). Oinarrizko ordainsariari dagokionean, 3. tartean % 3,5 da ta % 4,8 4.enean; aipatuek, kopuru absolutuetan, 961 eta 1.357 euro suposatzen dituzte, hurrenez hurren. Eusko Jaurlaritzaren osagarrietan dauden arrailak garrantzitsuak dira. (PD 14 taula eta eranskineko PD 14.1 taula)

## UNIBERTSITATEKO LAN KONTRATUKO BITARTEKO IRAKASLE DIREN PDIen (PD) AZTERKETA

Talde honek 381 ordezko lagun hartzen ditu; % 51 emakumeak dira. Talde honetako irakasleen bi herenek lanaldi osoko kontratua dute (%65 emakumeen kasuan, & 68 gizonezkoen kasuan) eta beste herenak lanaldi partzialeko kontratua du (% 35 emakumeen artean eta % 32 gizonezkoen artean).

Lanaldi osoko kontratua dutenen artean, emakume zein gizonezko, oinarrizko ordainsariak kostu osoaren % 91 suposatzen du. Lanaldi partzialeko kontratua dutenen artean oinarrizko ordainsariak batez besteko kostu osoaren % 94 suposatzen du emakumeen kasuan eta % 93 gizonezkoen kasuan; ondorioz, osagarrien pisua oso txikia da talde honen baitan. Ez dute bosturtekorik edo seiurtekorik kobratzeko aukerarik. Hirurtekoen kasuan, arraila % 10 da, doktore tituluari dagokionean % 20 lanaldi osoko kontratua dutenentzat eta % 12 lanaldi partzialeko kontratua dutenentzat. Arraila negatiboak daude EJren osagarrietan (% -38) eta karguetan (% -54). (PD 15 taula)

Kostuari eta oinarrizko ordainsariari loturiko ebakiak handiagoak dira lanaldi partzialekoen kasuan (% 10 eta % 13, hurrenez hurren), lanaldi osokoen kasuan baino (% 5 eta %6). Lanaldi partzialeko kontratua dutenen kasuan, lanean emandako egunetan % 10eko aldea dago gizonezkoen alde. Kategoria honetako partzialtasuna prekarietateari estuki lotuta dagoela dirudi.

Honela, partziala duten emakumeen kostu osoa lanaldi osoa duten emakumeen kostuaren % 17 da eta aipatu portzentajea % 19 da gizonezkoen

kasuan (emakumezkoak baino egun gehiago eman dituzte lanean, batez beste).

Kostu horien egitura lanaldiaren iraupenaren arabera bereiziz gero, 6 orduko partziala (P6) duten emakumeek osoaren % 26 kobratzen dute; gizonezkoen kasuan, % 28.

Lanaldi partzialeko kontratuekin bukatzea komeniko litzateke, oso zaila baita 6 orduko partziala, lanaldi osotik oso gertu dagoena, beste lanen batekin bateragarri egitea.

### PD 15 TAULA. UNIBERTSITATEKO LAN KONTRATU BITARTEKO IRAKASLE DIREN PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ARABERA

| | MUJERES | | | | | HOMBRES | | | | | BRECHA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | C | P | P3 | P4 | P6 | C | P | P3 | P4 | P6 | C | P |
| DIAS TRABAJADOS | 319 | 238 | 233 | 251 | 215 | 336 | 265 | 283 | 244 | 283 | | |
| TOTAL_COSTE | 27219 | 4741 | 2866 | 4494 | 6222 | 28925 | 5426 | 3960 | 4395 | 8170 | 6% | 13% |
| RETRIBUCION | 24675 | 4469 | 2691 | 4313 | 5717 | 26277 | 5036 | 3612 | 4174 | 7485 | 6% | 11% |
| TRIENIOS | 790 | 62 | 7 | 61 | 94 | 882 | 82 | 44 | 78 | 118 | 10% | 25% |
| COMPL_RETRIB_GV | 688 | 45 | 0 | 16 | 126 | 499 | 41 | 131 | 22 | 0 | -38% | -10% |
| CARGOS | 115 | 0 | 0 | 0 | 0 | 75 | 0 | 0 | 0 | 0 | -54% | |
| TITULO_DOCTOR | 952 | 165 | 168 | 104 | 285 | 1192 | 187 | 171 | 121 | 301 | 20% | 12% |
| INDEMNIZACIONES | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 80 | 0 | 0 | 265 | | 100% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 183 | 21 | 0 | 37 | 0 | 911 | 119 | 84 | 28 | 287 | 80% | 82% |
| Nº | 127 | 67 | 10 | 38 | 19 | 127 | 60 | 14 | 28 | 18 | | |

### PD 16 TAULA. UNIBERTSITATEKO LAN KONTRATU BITARTEKO IRAKASLE DIREN PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

| | -1957 | 1958-1967 | 1968-1977 | 1978- |
|---|---|---|---|---|
| TOTAL_COSTE | -4,1% | 10,9% | 3,2% | 13,9% |
| RETRIBUCION | -5,9% | 12,6% | 4,3% | 13,4% |
| TRIENIOS | -1,2% | -0,4% | -3,1% | 24,4% |
| COMPL_RETRIB_G\ | 17,7% | -65,4% | -82,9% | 11,2% |
| CARGOS | | 100,0% | -71,0% | -326,4% |
| TITULO_DOCTOR | 7,0% | 19,4% | 22,5% | 18,5% |
| INDEMNIZACIONES | | | | 100,0% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 100,0% | 84,7% | 86,4% | 42,4% |

Talde hau gaztea da nagusiki. Talde honetan, emakumeen % 88 eta gizonezkoen % 79 3. eta 4. adin tartetan daude.

Ordainsarien analisia bi tarte horietara mugatuz ikusten da emakumeak % 50 direla 3. tartean eta % 58 4.enean. Tarte horietan, kostu osoari dagozkion arrailak % 3,2 eta % 13,9 dira, hurrenez hurren. Alde horren zioa izan daiteke lanaldi osoa duten gizonezko gazteek pisu handiagoa dutela. Emakumeen oinarrizko ordainsariari dagokionean, kostu osoaren % 91 suposatzen du 3.

tartean eta % 93 4. tartean. Gizonezkoen kasuan, % 92 suposatzen du bi tartetan. (PD 16 taula eta eranskineko PD 16.1 taula)

Horrenbestez, osagarrien azterketak ez du garrantzirik adin tarte horietan, oinarrizko ordainsaria kostu osoaren funtsezko osagaia baita. Aipatzeko da agian hirurtekoen kasuan % -3,1eko arraila dagoela 3. tartean; 4.enean, ordea, % 24,4 da. Horrek esan nahi du gazteenen tartearen baitan gizonezkoak direla denbora gehien daramatenak irakaskuntza mota honen barruan, eta lanaldi osoko kontratuarekin.

Doktore tituluagatiko osagarrietan, 3. tarteko gizonezkoek gehiago kobratzen dute nahiz eta gutxiago izan; horrek agerian uzten du gizonezko doktore gehiago daudela tarte honetan, bai eta 4.enean ere. % 22,5 eta % 18, 5 hurrenez hurren, hau da, 159 euro 3. tartean eta 165 4.enean.

3. tartean dauden 92 emakumetatik 27k kobratu dute osagarri hori (% 29): gizonezkoen kasuan portzentaje hori % 38ra igotzen da (91 gizonetatik, 35ek kobratu dute). Horrenbestez, printzipioz baldintza nahiko txarrak dituen talde honen baitan, irakasletako portzentaje esanguratsu batek doktoregoa lortzeko esfortzua egin du, PD iraunkorreko lanpostu bat lortzeko aukera bakarra baita.

## PDI (PD) ELKARTUen (PD) AZTERKETA

PD Elkartuen taldeak 612 lagun hartzen ditu. % 34 emakumeak dira (209) eta beste guztiak, % 66 (403), gizonezkoak.

Talde honek guztiak lanaldi partziala dauka eta gehienek medikuntzarekin loturiko diziplinetan eta unibertsitate ospitaletako sailetan egiten dute lan[12]. Gizonezkoen artean, 403tik 305ek, hau da, % 76k, beren lan-kontratua aipatu diziplinetan dute. Emakumeen kasuan, 209tik 167 dira (% 80) osasun arloko diziplinetan lan egiten dutenak. Ondorioz, talde honetako partzialtasunak prekarietaterik ez dakarrela uler daiteke, langile gehienek jarduera hau unibertsitatetik kanpoko besteren batekin uztartzen baitute. Nolanahi ere, lan arloko zaurgarritasun egoeran dauden pertsonak egon daitezke ere, noski. (PD 17 taula)

[12] Talde honetan ingeniariak eta arkitektoak daude ere.

## PD 17 TAULA. UNIBERTSITATEKO ELKARTU DIREN PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ARABERA

| | MUJERES | | | | HOMBRES | | | | | BRECHA | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | P | P3 | P4 | P6 | P | P3 | P4 | P5 | P6 | P | P3 | P4 | P6 |
| DIAS TRABAJADOS | 329 | 326 | 365 | 325 | 342 | 342 | 329 | 365 | 347 | | | | |
| TOTAL_COSTE | 5490 | 4010 | 6756 | 9907 | 5993 | 4485 | 6853 | 9399 | 10446 | 8% | 11% | 1% | 5% |
| RETRIBUCION | 5012 | 3822 | 6060 | 8555 | 5307 | 4114 | 5805 | 8188 | 8895 | 6% | 7% | -4% | 4% |
| TRIENIOS | 107 | 11 | 199 | 389 | 129 | 24 | 376 | 363 | 361 | 17% | 54% | 47% | -8% |
| COMPL_RETRIB_GV | 182 | 38 | 449 | 561 | 274 | 110 | 479 | 614 | 713 | 33% | 66% | 6% | 21% |
| CARGOS | 0 | 0 | 0 | 0 | 12 | 17 | 0 | 0 | 0 | 100% | 100% | | 100% |
| TITULO_DOCTOR | 189 | 139 | 47 | 401 | 259 | 220 | 191 | 234 | 414 | 27% | 37% | 76% | 3% |
| INDEMNIZACIONES | 0 | 0 | 0 | 0 | 13 | 0 | 0 | 0 | 62 | 100% | | | 100% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 10 | 0 | 6 | 45 | 39 | 16 | 56 | 137 | 102 | 73% | 98% | 90% | 56% |
| Nº | 209 | 148 | 16 | 45 | 403 | 280 | 35 | 4 | 84 | | | | |

Oharra. P zutabeak lanaldi partzialeko kontratua duten PD elkartu guztien batezbestekoei dagozkie.

Lau partzialtasun mota ezberdin daude talde honen barruan, arduraldi orduen arabera. Emakumeen kasuan, P3, P4 eta P6 arduraldiak dituzte, ez ordea P5 arduraldirik. Gehienek P3 kontratua dute: emakumeen % 71 eta gizonezkoen % 69. Atzetik P6 partzialtasuna dator: emakumeen % 22 eta gizonezkoen % 21. Lagun gehien hartzen duen kategorian, P3n, arraila % 11 da kostu osoan eta % 7 oinarrizko ordainsarian. P4n % 1 eta % -4 eta P6n % 5 eta % 4. Zenbait kasutan arrailak handiak badira ere (Ikus osagarrietako arrailak), diruan dauden aldeak oso txikiak dira. Bi sexuetan ageri den ezaugarri komun bat da P6 kontratua dutenen kostuek eta oinarrizko ordainsariek P3 kontratua dutenen horiek bikoizten dituztela, nahiz eta P6 kostuak urtean 10.000 euro inguru direla aipatu kasu guztietan.

PD elkartuetan, eta batez beste, oinarrizko ordainsariak kostu osoaren % 91 suposatzen du emakumeen kasuan eta % 89 gizonezkoen kasuan. Lagun gehien diren P3etan portzentaje horiek % 95 eta % 92 dira, hurrenez hurren. Horrek osagarriek duten pisu txikia agerian uzten du, talde honek hirurtekoak besterik ez baititu kobratu.

## PD 18 TAULA. PD ELKARTUen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

| | -1957 | 1958-1967 | 1968-1977 | 1978- |
|---|---|---|---|---|
| TOTAL_COSTE | -1,0% | -1,4% | 15,1% | 1,4% |
| RETRIBUCION | 1,4% | -0,5% | 13,2% | 0,4% |
| TRIENIOS | -66,2% | -21,7% | 45,3% | 60,4% |
| COMPL_RETRIB_G\ | -22,0% | -17,5% | 46,0% | 100,0% |
| CARGOS | | 100% | | |
| TITULO_DOCTOR | -0,7% | -2,3% | 26,1% | 18,6% |
| INDEMNIZACIONES | 100,0% | | | |
| COMPL_AJ_CAP_I | 100,0% | 66,2% | 86,7% | |

Emakumeak % 13 dira zaharrenen lehen tartean, % 32 bigarren tartean, % 52 hirugarrenean eta % 59 laugarren tartean. Ondorioz, emakumeen pisuak gora egiten du adinak behera egiten duen heinean, azken urteotan Medikuntzan

eman den feminizazio jarraituaren ondorioz ziurrenik. (PD 18 taula eta eranskineko PD 18.1 taula)

Kostu osoan dauden arrailak dira % -1 lehen tartean, % -1,4 bigarrenean, % 15 hirugarrenean eta % 1,4 laugarrenean. Oinarrizko ordainsarian dauden arrailak dira % 1,4 lehen tartean, % -0,5 bigarrenean, % 13,2 hirugarrenean eta % 0,4 laugarrenean. Arrailarik handiena hirugarren tartean dago. Partzialtasunek adin tarte honetan dituzten pisu ezberdinen ondorio izan daiteke agian. Kopuru absolutuetan, arrailak 963 euro suposatzen ditu kostuan eta 777 euro urteko oinarrizko ordainsarietan. Halaber, 22 eguneko aldea dago lanean emandako egunei dagokienean.

Nabarmentzekoa da talde honek doktore tituluarengatiko osagarriak kobratzen dituela eta arrailarik deigarrienak bi taldetako 3. eta 4. tartetan ematen direla. Adin altueneko taldeen artean ez dago apenas alderik (% -0,7ko arraila, 3 eurokoa) eta bigarren tarteko arraila % -2,3 da, 5,4 euro kopuru absolutuetan. Hirugarren tarteko arraila % 26,1 da (69,9 euro) eta azken tartean % 18,6 da, hau da, 16 euro. Laburbilduz, datu horiek garrantzirik gabekoak dira ia eta, ondorioz, hemendik aurrera erlatiboki zein kopuru absolutuetan garrantzizkoak diren arrailak aipatuko dira soilik.

### 4.2.3. PDIen (PD) AZTERKETA IKASTEGIEN ARABERA

UPV/EHUren baitan dagoen aniztasunak eta heterogeneotasunak bi isla argi ditu: ikastegien kopuru handia eta bakoitzak duen langileriaren tamaina. Ikastegien kopuruari dagokionean, jasotako sailkapenak langileen oinarrizko ordainsariak 32 Ikastegitan banatzen ditu. Aipatu Ikastegiei unibertsitate institutu, ospitaletako atalak eta bestelakoak (Campus Birtuala eta zenbait katedra sartzen dira hor, esaterako) gehitu behar zaizkie. Txosten honetan PDI eta PAS gehien atxikita dituzten Ikastegiak aztertu dira. Aipatuek ezagutza-arlo ezberdinen ordezkaritza aproposa eskaintzen dute. Halaber, lehen txosten honetan kategorien arabera egin den azterketa hori ikastegi txikietan egitea ez da garrantzitsutzat hartu, oso lagun gutxiei aplika baitiezaizkieke aurreko atalean azaldutako arauak.

## PDI 5 TAULA. PDIen PRESENTZIA ETA KOSTUA IKASTEGIKA

| | Nº PDI | % | CT | M | H | %M |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ETS de Arquitectura | 108 | 2% | 28526 | 23 | 85 | 21,3% |
| ETS de Ingeniería de Bilbao | 425 | 8% | 34917 | 120 | 305 | 28,2% |
| ETS de Náutica y Máquinas Navales | 36 | 1% | 38787 | 9 | 27 | 25,0% |
| EU de Enfermería de Donostia-San Sebastián | 40 | 1% | 25372 | 32 | 8 | 80,0% |
| EU de Enfermería de Leioa | 53 | 1% | 22642 | 39 | 14 | 73,6% |
| EU de Estudios Empresariales de Bilbao | 70 | 1% | 33776 | 30 | 40 | 42,9% |
| EU de Estudios Empresariales de Donostia-Sa | 51 | 1% | 33891 | 26 | 25 | 51,0% |
| EU de Estudios Empresariales de Vitoria-Gas | 24 | 0% | 33529 | 15 | 9 | 62,5% |
| EU de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz | 110 | 2% | 36040 | 31 | 79 | 28,2% |
| EU de Ingeniería Técnica Industrial de Bilb | 139 | 3% | 36027 | 50 | 89 | 36,0% |
| EU de Ingeniería Técnica Industrial de Eiba | 33 | 1% | 40809 | 7 | 26 | 21,2% |
| EU de Ingeniería Técnica Minera | 60 | 1% | 29855 | 29 | 31 | 48,3% |
| EU de Magisterio de Bilbao | 132 | 2% | 39423 | 95 | 37 | 72,0% |
| EU de Magisterio de Donostia-San Sebastián | 87 | 2% | 35776 | 52 | 35 | 59,8% |
| EU de Magisterio de Vitoria-Gasteiz | 74 | 1% | 37162 | 35 | 39 | 47,3% |
| EU de Relaciones Laborales | 45 | 1% | 35693 | 24 | 21 | 53,3% |
| EU de Trabajo Social (Alava) | 24 | 0% | 28842 | 19 | 5 | 79,2% |
| EU Politécnica de Donostia-San Sebastián | 161 | 3% | 31651 | 76 | 85 | 47,2% |
| F. de Bellas Artes | 152 | 3% | 37549 | 65 | 87 | 42,8% |
| F. de Ciencia y Tecnología | 726 | 14% | 37453 | 327 | 399 | 45,0% |
| F. de Ciencias de la Actividad Física y del Deporte | 58 | 1% | 36767 | 23 | 35 | 39,7% |
| F. de Ciencias Económicas y Empresariales | 294 | 5% | 40294 | 147 | 147 | 50,0% |
| F. de Ciencias Químicas | 196 | 4% | 32813 | 103 | 93 | 52,6% |
| F. de Ciencias Sociales y de la Comunicación | 301 | 6% | 37740 | 120 | 181 | 39,9% |
| F. de Derecho | 111 | 2% | 42495 | 48 | 63 | 43,2% |
| F. de Derecho. Sección Bizkaia | 40 | 1% | 33824 | 23 | 17 | 57,5% |
| F. de Farmacia | 193 | 4% | 36842 | 112 | 81 | 58,0% |
| F. de Filosofía y Ciencias de la Educación | 149 | 3% | 38012 | 65 | 84 | 43,6% |
| F. de Informática | 167 | 3% | 35811 | 55 | 112 | 32,9% |
| F. de Letras | 319 | 6% | 39039 | 150 | 169 | 47,0% |
| F. de Medicina y Odontología | 356 | 7% | 25340 | 201 | 155 | 56,5% |
| F. de Psicología | 128 | 2% | 38071 | 77 | 51 | 60,2% |
| Institutos universitarios | 15 | 0% | 20460 | 11 | 4 | 73,3% |
| Secciones hospitales | 465 | 9% | 8161 | 141 | 324 | 30,3% |
| OTROS | 21 | 0% | 23441 | 8 | 13 | 38,1% |
| TOTAL PDI | 5363 | 100% | 33097 | 2.388 | 2.975 | 44,5% |

Ikastegi bakoitzean emakumeen eta gizonezkoen presentzia orekatuari dagokionean eta sexu bakoitzeko % 40-% 60 hartuz horretarako erreferentzia gisa, ondokoak dira tamaina handiko ikastegiak non emakumeen presentzia ez den % 40ra iristen: Arkitektura GET eta Bilboko Ingeniaritza GET, Gasteizko Ingeniaritza UE eta Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE. Egoera berdinean daude Informatika Fakultatea eta Ospitaletako Sailak. Ikastegi txikiei dagokienean, honako hauek: Nautika GET, Eibarreko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea.

% 60tik gorako emakumeen presentzia duten Ikastegiei dagokienean, handietako bat feminizatuta dago, Bilboko Irakasleen UE; txikien artean egoera berberean daude Donostiako Erizaintzako UE, Leioako Erizaintzako UE, Gasteizko Enpresa Ikasketen UE eta Gizarte Langintzako UE.

Beste Ikastegi guztietan emakumeen eta gizonezkoen presentzia orekatua dago gutxi gorabehera, % 40 eta % 60 artean baitaude, aurreko PDI 5 taulan ikus daitekeen bezala.

**PDI 6 TAULA. PDen PORTZENTAJEA, IKASTEGI HANDIETAKO PDIekiko**

| | Nº PDI | % | Nº PD | %PD/PDI |
|---|---|---|---|---|
| ETS de Arquitectura | 108 | 2% | 90 | 83% |
| ETS de Ingeniería de Bilbao | 425 | 8% | 333 | 78% |
| EU de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz | 110 | 2% | 109 | 99% |
| EU de Ingeniería Técnica Industrial de Bilbao | 139 | 3% | 138 | 99% |
| EU de Magisterio de Bilbao | 132 | 2% | 129 | 98% |
| EU Politécnica de Donostia-San Sebastián | 161 | 3% | 130 | 81% |
| F. de Bellas Artes | 152 | 3% | 116 | 76% |
| F. de Ciencia y Tecnología | 726 | 14% | 385 | 53% |
| F. de Ciencias Económicas y Empresariales | 294 | 5% | 263 | 89% |
| F. de Ciencias Químicas | 196 | 4% | 76 | 39% |
| F. de Ciencias Sociales y de la Comunicación | 301 | 6% | 220 | 73% |
| F. de Derecho | 111 | 2% | 101 | 91% |
| F. de Farmacia | 193 | 4% | 143 | 74% |
| F. de Filosofía y Ciencias de la Educación | 149 | 3% | 109 | 73% |
| F. de Informática | 167 | 3% | 96 | 57% |
| F. de Letras | 319 | 6% | 241 | 76% |
| F. de Medicina y Odontología | 356 | 7% | 253 | 71% |
| F. de Psicología | 128 | 2% | 100 | 78% |
| Secciones hospitales | 465 | 9% | 461 | 99% |

100 PDItik gora kontratatuta dituzten Ikastegiak aintzat hartuz soilik, beren artean aniztasun handia dagoela ikusten da. PDI guztiekiko PDek suposatzen duten portzentajea asko aldatzen da, esaterako. Mutur batean Kimika Fakultatea dago: PDI guztien % 39 da bakarrik PD (kontratatu langileen % 60tik gora PI da, ondorioz). Ondoren, Zientzia eta Teknologia Fakultatea (% 53) eta Informatika Fakultatea datoz (% 57). Beste muturrean Gasteizko Ingeniaritza UE eta Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE daude, non PDak % 99 diren. Ospitaletako sailetan ere aipatu portzentajea % 99 da. % 90tik gorako portzentajea agertzen dute ere Bilboko Irakasleen Eskola (% 98) eta Zuzenbide Fakultatea (% 91).

**PD 19 TAULA. KOSTUAN ETA OINARRIZKO ORDAINSARIAN DAUDEN ARRAILAK PDen SEXUAREN ETA IKASTEGI HANDIEN ARABERA**

| | CT | RET | %RET | BRECHA CT | BRECHA RET |
|---|---|---|---|---|---|
| ETS de Arquitectura | 31241 | 23198 | 74% | 33,3% | 26,7% |
| ETS de Ingeniería de Bilbao | 40510 | 27842 | 69% | -9,1% | -9,9% |
| EU de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz | 36767 | 25516 | 69% | -8,4% | -7,6% |
| EU de Ingeniería Técnica Industrial de Bilbao | 36168 | 25739 | 71% | 6,9% | 2,3% |
| EU de Magisterio de Bilbao | 40003 | 27531 | 69% | 9,3% | 5,6% |
| EU Politécnica de Donostia-San Sebastián | 35456 | 25575 | 72% | 5,6% | -0,3% |
| F. de Bellas Artes | 44004 | 29097 | 66% | 10,5% | 5,7% |
| F. de Ciencia y Tecnología | 55413 | 33405 | 60% | 12,0% | 7,6% |
| F. de Ciencias Económicas y Empresariales | 43585 | 29153 | 67% | 3,7% | 0,2% |
| F. de Ciencias Químicas | 58436 | 33951 | 58% | 15,6% | 11,2% |
| F. de Ciencias Sociales y de la Comunicación | 45847 | 30090 | 66% | 20,2% | 11,4% |
| F. de Derecho | 45645 | 29344 | 64% | 16,2% | 11,3% |
| F. de Farmacia | 42907 | 28445 | 66% | -0,8% | -1,0% |
| F. de Filosofía y Ciencias de la Educación | 45363 | 30048 | 66% | 8,1% | 5,7% |
| F. de Informática | 50969 | 32224 | 63% | 2,5% | 0,8% |
| F. de Letras | 46542 | 30898 | 66% | 8,6% | 3,5% |
| F. de Medicina y Odontología | 29301 | 19400 | 66% | -3,5% | -8,1% |
| F. de Psicología | 43280 | 29150 | 67% | 14,3% | 11,3% |
| Secciones hospitales | 8155 | 4408 | 54% | 32,8% | -7,5% |

Langile bakoitzeko batez besteko kosturik handiena Kimika Fakultateak dauka (58.436 euro) eta Zientzia eta Teknologia Fakultatea dator gero (55.413 euro). Ondoren, langile bakoitzeko urteko kostua 50.000 eurotik gora duen Informatika Fakultatea dator (50.969 euro). Kostu txikiena dutenak dira Medikuntza eta Odontologia Fakultatea (29.301 euro) eta Arkitektura GET (31.241 euro). Kostuari dagokionean genero arrailarik handiena Arkitektura GET ikastegian ematen da (% 33,3); Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea dator ondoren (% 20,2). Arraila negatiborik handiena Bilboko Ingeniaritza GET ikastegiak du (% -9,1); Gasteizko Ingeniaritza UE dator gero (% -8,4).

Jarraian, azterketa ordainsarien artean % 10etik gorako arraila duten Ikastegietara mugatuko da. Zazpi Ikastegi dira (ospitaletako sailak kanpoan utzi dira beren ezaugarri bereziengatik). Bilboko Ingeniaritza GET azterketan sartu da ere, arraila negatiborik handiena duena delako (% -10etik oso gertu dago arraila). Horrenbestez, ondoko Ikastegiak aztertuko dira zehatz-mehatz:

- Arkitektura GET
- Arte Ederren Fakultatea
- Zientzia eta Teknologia Fakultatea
- Kimika Fakultatea

- Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
- Zuzenbide Fakultatea
- Psikologia Fakultatea
- Bilboko Ingeniaritza GET

Atal honetan Ikastegietako langileen ezaugarriak aztertuko dira lanaldi motaren (osoa vs. Partziala), osagarri garrantzitsuen eta lanean emandako egunen arabera. Era berean, urte osorako (365 egun) kontrataturiko langileen artean eta lan-kategoriaka dauden aldeak aztertuko dira ere.

**ARKITEKTURA GETaren AZTERKETA**

Ikastegi honetako ezaugarri nabarmenen artean dago emakumeak PDen % 18 baino ez direla eta % 56ak lanaldi partzialeko kontratua duela. Nolanahi ere, ikastegian lan egiten duten guztien % 66ak lanaldi osoko kontratua dauka (gizonezkoen % 70ak kontratu mota hori dauka).

GET honetan aurkitutako genero arrailarik handiena dago: % 33 batezbesteko kostuan, % 27 batezbesteko oinarrizko ordainsarian, % 48 hirurtekoetan, % 43 bosturtekoetan, % 100 seiurtekoetan eta doktore tituluan, % 53 EJren osagarrietan eta % 75 I. Kapitulutik kanpoko osagarrietan. Arraila negatibo bakarra kargu akademikoetan ematen da: % -21.

Espero zitekeen bezala, lanaldi osoa dutenen arteko arrailak askoz ere txikiagoak dira, lanaldi osoa duten emakumeen portzentajea lanaldi osoa duten PD guztien % 12 baino ez bada ere. Arrailak, karguetan ezik (% -94), positiboak dira. Kostuan dagoen arrailak (% 9,2) oinarrizko ordainsarian dagoena bikoizten du ia (% 4,6). Ondorioz, osagarriek eragin argia dute kostu osoan. Osagarri nagusietan dauden arrailak ondokoak dira: % 15,7 hirurtekotan, % 8,6 bosturtekotan eta % 21,8 EJren osagarrietan. Emakumeek ez dute seiurtekorik kobratzen, ezta doktore tituluagatiko osagarririk ere.

## PD 20 TAULA. ARKITEKTURA GET-ko PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK

| | SEXO | | | COMPLETA | | | PARCIAL | | | 365 COMPLETA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA |
| DIAS TRABAJADOS | 350 | 364 | | 365 | 364 | | 338 | 365 | | 365 | 365 | |
| TOTAL_COSTE | 22136 | 33209 | 33,3% | 38959 | 42896 | 9,2% | 9051 | 10313 | 12,2% | 38959 | 43230 | 9,9% |
| RETRIBUCION | 17850 | 24354 | 26,7% | 29305 | 30724 | 4,6% | 8941 | 9300 | 3,9% | 29305 | 30873 | 5,1% |
| TRIENIOS | 1253 | 2416 | 48,1% | 2724 | 3231 | 15,7% | 110 | 489 | 77,6% | 2724 | 3264 | 16,6% |
| QUINQUENIOS | 1352 | 2376 | 43,1% | 3090 | 3381 | 8,6% | 0 | 0 | | 3090 | 3448 | 10,4% |
| SEXENIOS | 0 | 422 | 100,0% | 0 | 601 | 100,0% | 0 | 0 | | 0 | 613 | 100,0% |
| COMPL_RETRIB_GV | 1367 | 2933 | 53,4% | 3125 | 3995 | 21,8% | 0 | 422 | 100,0% | 3125 | 4049 | 22,8% |
| CARGOS | 313 | 259 | -20,8% | 716 | 369 | -94,0% | 0 | 0 | | 716 | 376 | -90,2% |
| TITULO_DOCTOR | 0 | 449 | 100,0% | 0 | 596 | 100,0% | 0 | 102 | 100,0% | 0 | 607 | 100,0% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 124 | 498 | 75,2% | 283 | 701 | 59,6% | 0 | 20 | 100,0% | 283 | 714 | 60,4% |
| Nº PD | 16 | 74 | | 7 | 52 | | 9 | 22 | | 7 | 51 | |

Ez dago lanaldi partziala izan eta bosturtekorik, seiurtekorik edo karguengatik kobratzen duen lagunik. Oso gizon gutxik jasotzen dute Eusko Jaurlaritzaren osagarrien edo doktore tituluaren ondoriozko ordainsaria.

Lanaldi osoa izan eta lanean 365 egun eman dituzten PDen artean dauden arrailak ondokoak dira: % 10 kostuan; % 5 oinarrizko ordainsarian; % 17 hirurtekoetan; % 10 bosturtekoetan; % 100 seiurtekoetan; % 23 EJren osagarrietan; % -90 karguetan, % 100 doktore tituluan eta % 60 I. kapitulutik kanpoko osagarrietan.

Aurreko taulan agertzen ez bada ere, taldea lan-kategorien arabera aztertzerakoan deigarria da ez dagoela katedradun emakumerik, 5 gizon dira bakarrik. Ez dago Unibertsitateko Titularrik ezta ere. Emakumeen erdia Unibertsitateko Elkartuak dira eta gizonezkoen kasuan portzentaje hori % 24 da. (Ikus eranskineko 20.1 taula). Kategorien artean dauden ezberdintasunek azaltzen dute, esaterako, urte osoan zehar lanaldi osoan lan egin dutenen oinarrizko ordainsarietan dagoen % 5eko arraila.

Elkartuen kasuan, kostuan dagoen arraila % 17 da eta horren zioa lanean emandako egunetan gizonezkoen alde dagoen diferentzia da (emakumeek, batez beste, hilabete bat gutxiago lan egin dute urtean). Oinarrizko ordainsarian dagoen arraila % 8 da; hirurtekoetan, berriz, % 79.

## ARTE EDERREN FAKULTATEAREN ANALISIA

Emakumeak PDen % 40 dira Fakultate honetan. Irakasleen % 94k lanaldi osoa dauka. Emakumeen kasuan, % 87k du lanaldi osoa.

Ordainsarien arteko arrailei dagokienean, orokorrean positiboak dira, seiurtekoak (% -6), karguak (% -132) eta doktore titulua (% -191) kenduta. Kostu osoan dagoen arraila % 10,5 da eta oinarrizko ordainsarien artean dagoen arraila % 6ra jaisten da; hirurtekoetan, ordea, % 24 da, bosturtekoetan % 30 eta EJ osagarrietan, % 23.

Orokorrean, ordainsarien arteko arrailak desagertzen doazela esan daiteke, gizonezkoek batez beste lanean eman dituzten egunen kopurua emakumeena baino txikiagoa bada ere (18 egun gutxiago urtean). Urtean 365 egun baino gutxiago lan egiten duten gizonezkoen eragina alboratu ostean, hau da, lanean emandako egunak homogeneizatu eta gero, arrailak agertzen hasten dira: kostu osoan (% 5) eta osagarrietan batez ere (% 19 hirurtekoetan, % 25 bosturtekoen, % -12 seiurtekoetan, % 17 EJren osagarrietan, % -146 kargutan eta % -196 doktore tituluan).

Aurreko taulan agertzen ez bada ere, datuen arabera CUen % 38 emakumeak dira (8tik 3) eta kuantitatiboki garrantzitsuenak diren lan-kategoriak dira TU (47tik 18 emakumeak dira) eta TEU (26tik 3, emakumeak). Ez dago PD atxikirik Fakultate honetan.

CUen kasuan, ordainsarien arteko arraila guztiak negatiboak dira, karguak eta I. kapitulutik kanpoko osagarriak kenduta. Deigarria da seiurtekoetan dagoen arraila, % -74.

Ondokoak dira arrailak TUen baitan: % -1 kostuan; % -4 oinarrizko ordainsarian; % 7 hirurtekoetan; % 8 bosturtekoetan; % 10 seiurtekoetan; % 5 EJren osagarrietan; % -143 kargutan eta % -109 I. kapitulutik kanpoko osagarrietan.

**PD 21 TAULA. ARTE EDERREN FAKULTATEKO PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK**

| | SEXO | | | COMPLETA | | | PARCIAL | | | 365 COMPLETA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA |
| DIAS TRABAJADOS | 358 | 347 | | 365 | 347 | | 309 | 365 | | 365 | 365 | |
| TOTAL_COSTE | 41086 | 45922 | 10,5% | 46272 | 46447 | 0,0 | 6515 | 9681 | 32,7% | 46272 | 48802 | 5,2% |
| RETRIBUCION | 28065 | 29775 | 5,7% | 31334 | 30070 | 0,0 | 6271 | 9442 | 33,6% | 31334 | 31554 | 0,7% |
| TRIENIOS | 3031 | 4016 | 24,5% | 3468 | 4071 | 0,1 | 119 | 239 | 50,2% | 3468 | 4258 | 18,6% |
| QUINQUENIOS | 4000 | 5731 | 30,2% | 4600 | 5814 | 0,2 | 0 | 0 | | 4600 | 6105 | 24,7% |
| SEXENIOS | 829 | 779 | -6,4% | 953 | 791 | -0,2 | 0 | 0 | | 953 | 852 | -11,8% |
| COMPL_RETRIB_GV | 3971 | 5132 | 22,6% | 4567 | 5207 | 0,1 | 0 | 0 | | 4567 | 5501 | 17,0% |
| CARGOS | 660 | 284 | -132,3% | 759 | 288 | -1,6 | 0 | 0 | | 759 | 309 | -145,6% |
| TITULO_DOCTOR | 509 | 175 | -190,6% | 567 | 178 | -2,2 | 125 | 0 | | 567 | 192 | -195,8% |
| OTROS | 22 | 29 | 23,9% | 25 | 29 | 0,1 | 0 | 0 | | 25 | 31 | 20,0% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 529 | 554 | 4,5% | 609 | 533 | -0,1 | 0 | 2029 | 100,0% | 609 | 574 | -6,0% |
| Nº PD | 46 | 70 | | 40 | 69 | | 6 | 1 | | 40 | 64 | |

## ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEAREN ANALISIA

UPV/EHUn PDI eta PAS gehien dituen Fakultatea da hau. Emakume PDak PD guztien % 40 dira. Emakumeen % 96k eta gizonezkoen % 94k lanaldi osoa dute.

Kostuen dagoen arraila % 12 da eta % 8 oinarrizko ordainsarian. Horrenbestez, osagarriek ordainsarien arteko arraila areagotzen laguntzen dute. Honela, % 13 da hirurtekoetan; % 20 bosturtekoetan; % 27 seiurtekoetan; % 18 EJren osagarrietan; % 2 kargutan eta % 32 I. kapitulutik kanpoko osagarrietan.

Lanaldi osoa dutenen artean, arrailak batezbesteko arrailen zertxobait gorago daude. Lanaldi partziala dutenen arteko arrailak negatiboak dira kostuan eta oinarrizko ordainsarian. Lanaldi osoan 365 egun lanean eman dituztenen arteko arrailak batezbesteko horietatik oso gertu daude.

Lan-kategorien araberako azterketaren arabera, kategoria garrantzitsuenak ondokoak dira: TU (147 guztira, % 46 emakumeak) eta CU (127 guztira, % 26 emakumeak dira). Deigarria da Katedradun gehiago daudela, TU baino, gizonezkoen artean. Hori ez da gertatzen emakumeen artean, portzentajea % 50etik gertu badago ere. Garrantziari dagokionean hirugarren kategoria da PD Agregatua (57 guztira), non emakumeak % 53 diren.

PD CUei dagokienean, arrailak positiboak eta nahiko txikiak dira (% 3 kostuan eta oinarrizko ordainsarian, % 2 hirurtekoetan, % 5 bosturtekoetan eta seiurtekoetan). Arrailarik ez EJren osagarrietan, % 8 kargutan eta % 56 I. Kapitulutik kanpoko osagarrietan.

PD Tuei dagokienean, arrailak positiboak dira, eta nahiko txikiak ere. EJren osagarrietan dagoen arraila % 9 da; I. kapitulutik kanpoko osagarriena, aldiz, % 40. Kargutan dagoen arraila negatiboa da, % -61.

PD Agregatuen kasuan, emakumeak guztien % 53 dira. Kostuan dagoen arraila % 6 da, eta oinarrizko ordainsariarena % 2. Seiurtekoetan (% 33) eta bosturtekoetan (% 18) dauden arrailak nabarmentzekoak dira.

## PD 22 TAULA. ZIENTZIA ETA TEKINOLOGIA FAKULTATEKO PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK

| | SEXO | | | COMPLETA | | | PARCIAL | | | 365 COMPLETA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA |
| DIAS TRABAJADOS | 352 | 361 | | 353 | 363 | | 327 | 328 | 0,4% | 365 | 365 | |
| TOTAL_COSTE | 51204 | 58188 | 12,0% | 52982 | 61213 | 13,4% | 7647 | 7226 | -5,8% | 54700 | 61648 | 11,3% |
| RETRIBUCION | 31834 | 34441 | 7,6% | 32867 | 36135 | 9,0% | 6510 | 5910 | -10,2% | 33931 | 36344 | 6,6% |
| TRIENIOS | 3545 | 4081 | 13,1% | 3683 | 4309 | 14,5% | 146 | 251 | 41,8% | 3768 | 4368 | 13,7% |
| QUINQUENIOS | 5072 | 6309 | 19,6% | 5279 | 6684 | 21,0% | 0 | 0 | | 5432 | 6776 | 19,8% |
| SEXENIOS | 3192 | 4359 | 26,8% | 3322 | 4618 | 28,1% | 0 | 0 | | 3442 | 4682 | 26,5% |
| COMPL_RETRIB_GV | 6882 | 8348 | 17,6% | 7146 | 8800 | 18,8% | 399 | 740 | 46,1% | 7402 | 8799 | 15,9% |
| CARGOS | 548 | 561 | 2,4% | 570 | 595 | 4,1% | 0 | 0 | | 607 | 603 | -0,7% |
| TITULO_DOCTOR | 132 | 46 | -185,2% | 114 | 30 | -280,9% | 592 | 326 | -81,6% | 118 | 30 | -291,3% |
| OTROS | 0 | 41 | 100,0% | 0 | 43 | 100,0% | 0 | 0 | | 0 | 44 | 100,0% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 665 | 979 | 32,1% | 692 | 1036 | 33,2% | 0 | 14 | 100,0% | 732 | 1044 | 29,9% |
| Nº PD | 153 | 232 | | 147 | 219 | | 6 | 13 | | 138 | 216 | |

## KIMIKA FAKULTATEAREN AZTERKETA

Fakultate honetan 76 PD daude eta % 42 emakumeak dira. Emakumeen % 97k eta gizonezkoen % 98k, hurrenez hurren, lanaldi osoko kontratua du. Arraila guztiak positiboak dira: kostuan dagoen arrailak (% 16) 5 puntutan gainditzen du oinarrizko ordainsarian dagoena arraila (% 11). Osagarrien kasuan nabarmentzekoak dira seiurtekoetan dagoen % 35eko arraila eta Eusko Jaurlaritzaren osagarriena, % 22. Halaber, arraila positiboa dago hirurtekoetan (% 8) zein bosturtekoetan (% 13).

Kasu honetan, lanaldi osoa izan eta lanean 365 egun eman dituztenen arteko arrailak ia berdinak dira (emakume bat eta gizon bat dira lanaldi osoa izan eta lanean 365 egun baino gutxiago eman dituzten bakarrak).

Kuantitatiboki garrantzitsuenak diren figurak ondokoak dira: TU (36), CU (23), PD Agregatu (9). Ez dago irakasle elkarturik. Gizonezkoen kasuan, CU gehiago daude TU baino (20 eta 16, hurrenez hurren). Halere, 3 Katedradun emakume daude bakarrik (CU guztien % 13).

PD CUen kasuan ez dago arrailarik oinarrizko ordainsarian; kostuan, ordea, % 2 da. Osagarrietan, nagusienak negatiboak dira: % -11 hirurtekoetan, % -7 bosturtekoetan eta % -1 seiurtekoetan. Baina azpimarratu beharra dago oso emakume gutxi daudela CUen taldearen baitan. Halaber, EJren osagarrietan dagoen arraila % 13 da, % 100 kargutan eta % 83 I. Kapitulutik kanpoko osagarrietan.

TUen baitan, ez dago ia ordainsarien arteko arrailarik. Arraila positibo handienak I. kapitulutik kanpoko osagarrietan (% 26) eta kargutan (% 17) aurkitzen dira. Negatiboen artean nabarmentzekoa da bosturtekoei dagokiena (% -4).

PD Agregatuen kasuan ez dago arrailarik oinarrizko ordainsarian; kostuan % -3ko arraila dago. Osagarriei dagokienean, arraila positibo handienak I. kapitulutik kanpoko osagarrietan (% 71) eta seiurtekoetan (% 17) aurkitzen dira. Arrailen negatiboen arteko handienak kargutan (% -49) eta bosturtekoetan (% -25) daude.

## PD 23 TAULA. KIMIKA FAKULTATEKO PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK

| | SEXO | | | COMPLETA | | | PARCIAL | | | 365 COMPLETA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA |
| DIAS TRABAJADOS | 361 | 356 | | 361 | 362 | | 365 | 90 | | 365 | 365 | |
| TOTAL_COSTE | 52772 | 62555 | 15,6% | 54264 | 63969 | 15,2% | 6519 | 1778 | -266,7% | 54927 | 64783 | 15,2% |
| RETRIBUCION | 31646 | 35627 | 11,2% | 32457 | 36419 | 10,9% | 6519 | 1595 | -308,8% | 32805 | 36764 | 10,8% |
| TRIENIOS | 4081 | 4437 | 8,0% | 4213 | 4540 | 7,2% | 0 | 0 | | 4217 | 4575 | 7,8% |
| QUINQUENIOS | 6171 | 7136 | 13,5% | 6370 | 7302 | 12,8% | 0 | 0 | | 6390 | 7362 | 13,2% |
| SEXENIOS | 3501 | 5372 | 34,8% | 3614 | 5497 | 34,3% | 0 | 0 | | 3735 | 5628 | 33,6% |
| COMPL_RETRIB_GV | 6815 | 8762 | 22,2% | 7035 | 8966 | 21,5% | 0 | 0 | | 7186 | 9179 | 21,7% |
| CARGOS | 557 | 1142 | 51,2% | 575 | 1169 | 50,8% | 0 | 0 | | 594 | 1196 | 50,3% |
| TITULO_DOCTOR | 0 | 78 | 100,0% | 0 | 76 | 100,0% | 0 | 183 | 100,0% | 0 | 78 | 100,0% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 956 | 3419 | 72,0% | 963 | 3498 | 72,5% | 731 | 0 | | 995 | 3582 | 72,2% |
| Nº PD | 32 | 44 | | 31 | 43 | | 1 | 1 | | 30 | 42 | |

## GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEAREN AZTERKETA

Emakumeak PDen % 32 dira Fakultate honetan. Ordainsarien arteko arraila guztiak positiboak dira, doktore tituluarena (% -26) eta I. kapitulutik kanpoko osagarriena (% -4) kenduta. Kostuan dauden arrailak (% 20) oinarrizko ordainsarian dagoena baino ia bikoitza dira (% 11); biak dira garrantzitsuak. Era berean, osagarrietan dauden arrailak oso altuak dira: % 27 hirurtekoetan, % 34 bosturtekoetan eta % 65 seiurtekoetan. EJren osagarrietako arraila positiboa eta altua da ere (% 36); kargutan, berriz, % 6 da.

Fakultate honetan hedatuen dagoen kontratua lanaldi osokoa da, PDen % 89aren kontratua (emakumeen % 87k eta gizonezkoen % 91k lanaldi osoa dauka). Lanaldi osoa dutenen arteko arrailak batezbesteko arrailen azpitik daude, dauden ezberdintasunen zati handi bat lanaldi partzialeko kontratuen ondorio baita. Lanaldi partzialeko kontratuetan dagoen arraila horren beste zati bat lanean emandako egunetan dauden aldeen ondorio da. Lanaldi partziala duten gizonezkoek, batez beste, emakumeek baino 172 egun gehiago eman dituzte lanean. Nolanahi ere, kontratu partziala duten lagun gutxi daude (23 lagun, horietako 9 emakumeak dira).

Lanaldi osoan lanean 365 egun eman dituzten langileen artean dauden arrailak aztertuta, lanaldi osoa duten langile guztien artean dauden arrailen oso antzekoak direla ikusten da, handiagoak diren negatiboak kenduta. Nolanahi ere, kopuru absolutuak oso txikiak dira eta, ondorioz, ez dute ia garrantzirik.

Lan-kategoriei dagokienean, Katedradun emakumeek duten pisu eskasa deigarria da, % 6 baitira, hau da, bi besterik ez[13]. Kasu honetan, arrailak txikiak dira. % 2 kostuan, %1 oinarrizko ordainsarian, % -9 hirurtekoetan (aipatu bi emakumeek urte gehiago daramatzate unibertsitatean lanean). Bosturtekoetan, arraila % -7 da; seiurtekoetan, % -3. Arrailarik handienak EJren osagarrietan (% 15) eta I. kapitulutik kanpoko osagarrietan (% 22) daude.

PD TU taldeari dagokionean, 78 irakasle dira. Emakumeak % 27 dira eta ebakiak negatiboak dira, seiurtekoetan ezik (% 14). Kuantitatiboki garrantzitsuak diren sailetako arrailak txikiak dira (% -3 kostuan eta oinarrizko ordainsarian). Arrailarik handienak kargutan (% -32) eta I. kapitulutik kanpoko osagarrietan (% -15) aurkitzen dira.

PD Agregatuei dagokienean 29 dira, % 41 emakumeak direlarik. Kostuan dagoen arraila (% 3), eta oinarrizko ordainsariarena (% -0,8), txikiak dira. Beste arraila guztiak positiboak dira orokorrean, kargutan (% -37) eta I. kapitulutik kanpoko osagarrietan (% -220) ezik.

Unibertsitateko Lan Kontratuko Bitarteko Irakasle diren PDak 20 dira, horien % 65 emakumeak direlarik. Arraila guztiak positiboak dira, EJren osagarriak ezik (% -421). Horrek esan nahi du meritu gehiago aitortu zaizkiela emakumeei, nahiz eta hirurtekoetako arraila positiboa izan (% 46). Nolanahi

[13] Ez dira irakasle osoak aintzat hartu, oso gutxi baitira oraindik Unibertsitatean. Halere, irakasle oso diren bi gizonezko daude Fakultate honetan.

ere, hein batean ordezkapenak egin eta, ondorioz, lanean 365 egun baino gutxiago ematen dituen talde bat aztertu dela kontuan hartu beharra dago. Emakumeak, batez beste, gizonezkoak baino % 28 egun gutxiago daude alta emanda.

**PD 24 TAULA. GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEKO PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK**

| | SEXUA | | | OSOA | | | PARTZIALA | | | 365 OSOA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | E | G | ARRAILA | E | G | ARRAILA | E | G | ARRAILA | E | G | ARRAILA |
| Lanean emandako egunak | 334 | 358 | | 359 | 360 | | 164 | 341 | | 365 | 365 | |
| KOSTUA GUZTIRA | 39086 | 49003 | 20,2% | 44305 | 53090 | 16,5% | 3716 | 9292 | 60,0% | 45087 | 53907 | 16,4% |
| Oinarrizko ordainsaria | 27654 | 31227 | 11,4% | 31201 | 33624 | 7,2% | 3614 | 7943 | 54,5% | 31690 | 34078 | 7,0% |
| Hirurtekoak | 2608 | 3567 | 26,9% | 2984 | 3880 | 23,1% | 61 | 534 | 88,5% | 3049 | 3939 | 22,6% |
| Bosturtekoak | 3262 | 4947 | 34,1% | 3743 | 5456 | 31,4% | 0 | 0 | | 3815 | 5559 | 31,4% |
| Seiurtekoak | 786 | 2217 | 64,6% | 902 | 2446 | 63,1% | 0 | 0 | | 924 | 2502 | 63,1% |
| EJren osagarriak | 4076 | 6356 | 35,9% | 4672 | 6945 | 32,7% | 41 | 629 | 93,4% | 4779 | 7078 | 32,5% |
| Karguak | 487 | 518 | 5,9% | 559 | 571 | 2,1% | 0 | 0 | | 578 | 593 | 2,5% |
| Doktore titulua | 213 | 170 | -25,6% | 245 | 168 | -45,5% | 0 | 185 | 100,0% | 253 | 159 | -59,6% |
| I. KAP_KAN_OSAG. | 1285 | 1240 | -3,6% | 1475 | 1343 | -9,8% | 0 | 249 | 100,0% | 1525 | 1338 | -14,0% |
| PDen kopurua | 70 | 150 | | 61 | 136 | | 9 | 14 | | 59 | 131 | |

## ZUZENBIDE FAKULTATEAREN AZTERKETA

PDak 101 lagun dira Fakultate honetan eta emakumezkoek % 42 suposatzen dute. Gizonezkoek, batez beste, emakumeek baino 10 egun gutxiago ematen dituzte lanean eta, halere, ordainsarien arteko arrailak positiboak dira. Kostuaren kasuan % 16 da eta oinarrizko ordainsariaren kasuan % 11, biak ere portzentaje garrantzitsuak. Kuantitatiboki garrantzitsuenak diren osagarrietako arrailak garrantzitsuak dira ere: % 14 hirurtekoetan, % 24 bosturtekoetan, % 56 seiurtekoetan eta % 18 EJren osagarrietan. Arraila negatibo bakarra karguetan ematen da (% -4).

PD guztien % 84k lanaldi osoa dauka; emakumeen kasuan, % 83 da portzentaje hori. Lanaldi osoa dutenen artean, arraila gehienak positiboak dira, nahiz eta batezbestekoak baino zertxobait txikiagoak izan (2 puntu gutxiago inguru). Salbuespen bakarra seiurtekoak dira, non ez dagoen aldaketarik, lanaldi partziala duten langileek ez baitute osagarri hori kobratzen.

16 lagunek dute lanaldi partziala; horietako zazpi (% 44) emakumeak dira. Kasu honetan, arrailak positiboak dira ere eta batezbestekoak baino altuagoak, EJren osagarrietan ezik (% -39).

Lanaldi osoko kontratua izan eta lanean 356 egun eman dituzten PDen kasuan arrailak, orokorrean, lanaldi osoa duten PD guztien batezbesteko arrailak baino zertxobait altuagoak dira; beherakada bakarra, oso txikia, seiurtekoetan ematen da.

Ondokoak dira Zuzenbide Fakultateko kategoriarik garrantzitsuenak: PD CU, PD TU eta PD Agregatu.

Deigarria da katedradun gehiago dagoela, titular baino, gizonezkoen artean, bai eta emakumeen presentzia urria PD CUen artean: bi katedradun emakume daude bakarrik eta 27 katedradun gizonezko. Emakumeak, orduan, kategoria honen % 7 dira. Gizonezkoen kasuan, katedradunen kopuruak Unibertsitateko Titularren kopurua ia laukoizten du (3,8 bider gehiago da). Datu horiek asimetria moduko bat islatzen dute sexuaren araberako banaketan.

PD CUen arteko arrailak negatiboak dira orokorrean (% -9 kostuan eta % -5 oinarrizko ordainsarian). Negatiboak dira ere osagarri garrantzitsuenetako arrailak: % -18 bosturtekoetan, % -35 seiurtekoetan eta % -17 EJren osagarrietan.

PD Tuak 20 irakasle dira, horietako 13 emakumeak direlarik (PD TU guztien % 65). Kostuan eta oinarrizko ordainsarian dauden arrailak % 4tik gertu daude. Osagarri batzuetako arrailak negatiboak dira (% -6 hirurtekoetan, % -17 bosturtekoetan eta % -281 I. kapitulutik kanpoko osagarrietan) eta beste batzuetakoak positiboak (% 9 seiurtekoetan, % 13 EJren osagarrietan eta % 37 karguetan).

PD Agregatuen kasuan, 18 dira eta emakumeak % 56 dira. Oinarrizko ordainsariaren arraila huts da; kostuan, berriz, % -3. Osagarrietako arrailak

negatiboak dira (% -3 hirurtekoetan, % -2 bosturtekoetan, % -11 EJren osagarrietan, % -129 kargutan eta % -92 I. kapitulutik kanpoko osagarrietan). Salbuespena seiurtekoetan dago (% 52).

## PD 25 TAULA. ZUZENBIDE FAKULTATEKO PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK

| | SEXO | | | COMPLETA | | | PARCIAL | | | 365 COMPLETA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA |
| DIAS TRABAJADOS | 359 | 349 | | 358 | 347 | | 365 | 365 | | 365 | 365 | |
| TOTAL_COSTE | 41007 | 48947 | 16,2% | 47808 | 56140 | 14,8% | 6998 | 8985 | 22,1% | 48969 | 58821 | 16,7% |
| RETRIBUCION | 27308 | 30794 | 11,3% | 31569 | 34955 | 9,7% | 6002 | 7675 | 21,8% | 32080 | 36699 | 12,6% |
| TRIENIOS | 2929 | 3400 | 13,9% | 3472 | 3900 | 11,0% | 213 | 623 | 65,8% | 3579 | 4130 | 13,3% |
| QUINQUENIOS | 3805 | 4983 | 23,6% | 4566 | 5880 | 22,3% | 0 | 0 | | 4719 | 6214 | 24,1% |
| SEXENIOS | 1270 | 3010 | 57,8% | 1524 | 3552 | 57,1% | 0 | 0 | | 1616 | 3647 | 55,7% |
| COMPL_RETRIB_GV | 4972 | 6046 | 17,8% | 5810 | 7033 | 17,4% | 783 | 562 | -39,3% | 6054 | 7366 | 17,8% |
| CARGOS | 645 | 622 | -3,7% | 774 | 734 | -5,4% | 0 | 0 | | 821 | 693 | -18,5% |
| TITULO_DOCTOR | 78 | 92 | 15,1% | 93 | 86 | -9,0% | 0 | 125 | 100,0% | 99 | 73 | -36,4% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 1800 | 1846 | 2,5% | 2158 | 2136 | -1,0% | 13 | 237 | 94,6% | 2289 | 2350 | 2,6% |
| Nº PD | 42 | 59 | | 35 | 50 | 30,0% | 7 | 9 | | 33 | 45 | |

## PSIKOLOGIA FAKULTATEAREN AZTERKETA

Psikologia Fakultatean 100 PD daude, 56 emakume tartean. Arrailak positiboak dira orokorrean, eta altuak zenbait kasutan. % 14 kostuan eta % 11 oinarrizko ordainsarian; hau da, garrantzitsuak dirudite. Osagarrietako arrailak ondokoak dira: % 23 hirurtekotan, % 26 bosturtekotan, % 15 seiurtekoetan eta % 20 EJren osagarrietan. I. kapitulutik kanpoko osagarrietan arraila % 51ra iristen da eta karguetan negatiboa da (% -61).

PDen % 92k lanaldi osoa dauka; emakumeen kasuan portzentaje hori % 89 da. Lanaldi osoa dutenen arteko arrailak batezbesteko arrailak baino zertxobait txikiagoak dira, karguak kenduta beste behin, partzialtasuna baita batezbesteko arrailak areagotzen dituena.

Lanaldi osoa izan eta lanean 365 egun eman dituzten PDen arteko arrailak lanaldi osoa dutenen batezbesteko arrailen oso antzekoak dira. Alderik handiena seiurtekoetan ematen da, 4 puntu gehiagokoa baita kasu honetan (% 13 eta %9).

Lanaldi partzialeko kontratua duen taldea oso txikia da baina arrailak, orokorrean, lanaldi osoa dutenen taldean baino handiagoak dira.

Hiru talderik esanguratsuenak dira PD TU, PD Agregatua, PD Atxikiak eta PD CU.

PD CUen kasuan, katedradun lau emakume daude (guztien % 31). Kostuan dagoen arraila % -2 da; oinarrizko ordainsariari dagokionean, aldiz, % -4 da. Osagarrietako arrailak ondokoak dira: % 5 hirurtekoetan, % 15 bosturtekoetan, % 16 seiurtekoetan eta % -9 EJren osagarrietan. Ez dago kargu akademikorik duen gizonik. I. kapitulutik kanpoko osagarrietan arraila % 55 da.

PD TUak 33 dira, % 67 emakumeak direlarik. Oinarrizko ordainsariari buruzko arraila positiboa bada ere (%3), kostuan dagoen arraila negatiboa da (% -1,5; emakumeek, batez beste, sei egun gutxiago eman dituzte lanean), osagarri batzuetako arraila negatiboa eta, zenbaitetan, osoa altua delako. Seiurtekoetan, esaterako, emakumeek 2.617 euro kobratzen dituzte batez beste; eta gizonezkoek 1.444 euro.

PD Agregatuen kasuan, 23 dira guztira; emakumeak % 39 dira. Ez dago arrailarik kostuan eta oinarrizko ordainsarian. Hirurtekoetan %14, bosturtekoetan % 16 eta seiurtekoetan % 46. EJren eta I. kapitulutik kanpoko osagarriak negatiboak dira (% -6 eta % -49, hurrenez hurren).

14 PD Atxiki daude, 11 emakume tartean (% 79). Kostuan eta oinarrizko ordainsarian dauden arrailak negatiboak eta handiak dira (% -69 eta % -72, hurrenez hurren), baina aintzat hartu beharra dago lanean emandako egunen kopuruetan dagoen aldea oso handia dela ere, emakumeek, batez beste, gizonezkoek baino 149 egun gehiago eman baitituzte lanean.

## PD 26 TAULA. PSIKOLOGIA FAKULTATEKO PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK

| | SEXO | | | COMPLETA | | | PARCIAL | | | 365 COMPLETA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA |
| DIAS TRABAJADOS | 343 | 348 | | 348 | 347 | | 305 | 365 | | 365 | 365 | |
| TOTAL_COSTE | 40313 | 47057 | 14,3% | 44347 | 48922 | 9,4% | 6691 | 7890 | 15,2% | 46654 | 51553 | 9,5% |
| RETRIBUCION | 27598 | 31124 | 11,3% | 30208 | 32311 | 6,5% | 5846 | 6193 | 5,6% | 31742 | 33935 | 6,5% |
| TRIENIOS | 2539 | 3299 | 23,0% | 2814 | 3431 | 18,0% | 247 | 526 | 53,1% | 2979 | 3637 | 18,1% |
| QUINQUENIOS | 3577 | 4823 | 25,8% | 3975 | 5053 | 21,3% | 255 | 0 | | 4216 | 5354 | 21,3% |
| SEXENIOS | 1407 | 1663 | 15,4% | 1576 | 1742 | 9,5% | 0 | 0 | | 1629 | 1875 | 13,1% |
| COMPL_RETRIB_GV | 4464 | 5583 | 20,0% | 4981 | 5811 | 14,3% | 156 | 797 | 80,4% | 5246 | 6117 | 14,2% |
| CARGOS | 642 | 399 | -60,8% | 719 | 418 | -71,9% | 0 | 0 | | 782 | 462 | -69,1% |
| TITULO_DOCTOR | 86 | 166 | 47,9% | 74 | 156 | 52,3% | 187 | 374 | 50,0% | 59 | 172 | 65,9% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 762 | 1549 | 50,8% | 839 | 1623 | 48,3% | 120 | 0 | | 906 | 1742 | 48,0% |
| Nº PD | 56 | 44 | | 50 | 42 | | 6 | 2 | | 46 | 38 | |

## BILBOKO INGENIARITZA GET-ren AZTERKETA

Bilboko Ingeniaritza GET-an 332 PD daude; horietako % 28 emakumeak dira. Kostuari eta oinarrizko ordainsariari dagozkien arrailak negatiboak dira (% -9 eta % -10, hurrenez hurren). Osagarrietako arrailak negatiboak dira ere orokorrean (% -10 hirurtekoetan, % -16 bosturtekoetan), seiurtekoetan (% 6,5) eta I. kapitulutik kanpoko osagarrietan ezik (% 60).

PDen % 82k lanaldi osoa dauka. Emakumeen kasuan % 91 da portzentajea eta gizonezkoen kasuan, % 78. 52 gizonezkok eta zortzi emakumek lanaldi partziala dute. Partzialtasunaren pisu ezberdinak hein batean azaltzen du aurrez aipaturiko arraila negatiboak. Lanaldi osoko zein lanaldi partzialeko batezbesteko arrailak positiboak eta nahiko antzekoak dira.

Lanaldi osoko kontratua izan eta 2013n 365 egun lanean eman dituzten langileak aztertzerakoan, arrailak positiboak izaten jarraitzen dute eta % 4,8 dira kostuan eta % 3,4 oinarrizko ordainsarian. Osagarri guztietan arrailak positiboak dira ere, doktore tituluari dagokionean salbu (% -10), baina kopuruak oso txikiak dira. I. kapitulutik kanpoko osagarrietan dagoen arraila (% 65) eta seiurtetakoa (% 21) nabarmentzekoak dira.

Kuantitatiboki garrantzitsuenak diren kategoriak ondokoak dira: PD TU, PD Elkartua, PD CU, PD Agregatua eta Unibertsitateko Lan Kontratuko Bitarteko Irakasle diren Pdak. Emakumeen kasuan, % 45 TU dira, % 13 Unibertsitateko Lan Kontratuko Bitarteko Irakasle, % 11 Agregatuak eta % 8 Katedradunak. Gizonezkoen kasuan, % 31 TU dira, % 17 Elkartuak, % 15 Katedradunak, % 12 Agregatuak eta % 11 Lan Kontratuko Bitarteko Irakasleak.

Ingeniaritza GET-eko PD CU guztien % 17 emakumeak dira (42tik 7). Kostuan dagoen arraila % 2,3 da, oinarrizko ordainsariarena % -0,3, hirurtekoena % 9,4, bosturtekoena % 6,5 eta seiurtekoena % 1,4.

PD TUak 115 lagun dira eta horietako % 37 emakumeak dira. Arrailei dagokienean, negatiboak dira nagusiki (% -7,3 kostuan, % -4 oinarrizko ordainsarian, % -17,6 hirurtekoetan, % -25 bosturtekoetan eta % -5,2 seiurtekoetan), I. kapitulutik kanpoko osagarrietan ezik (% 40,2). Talde honetako emakume guztiek lanaldi osoa dute eta 365 egun eman dituzte lanean. Gizonezkoen kasuan, lauk lanaldi partziala dute eta batek 365 egun baino gutxiago eman ditu lanean. Lagun horiek kenduta kostuan dagoen arraila % -3ra murrizten da eta ez dago arrailarik oinarrizko ordainsarian.

PD Agregatuak 39 lagun dira, horietako % 26 emakumeak. Oinarrizko ordainsariaren arraila huts da; kostuan, berriz, % 4 da. Osagarrietako arraila guztiak positiboak dira eta ondokoak dira handienak: hirurtekoak (% 23), bosturtekoak (%15), seiurtekoak (% 4) eta Eusko Jaurlaritza (% 7).

PD Elkartuak 47 lagun dira eta horietako % 13 emakumeak dira. Arrailarik nagusienak negatiboak dira (% -7 kostuan eta % -6 oinarrizko ordainsarian). Osagarrietan, hirurtekoen kasuan arraila % 8,7 da. Ez dute bosturtekorik edo seiurtekorik kobratzeko aukerarik. Eusko Jaurlaritzaren osagarrien arraila %

2,3 da eta doktore tituluaren ondoriozko hori, % -146. Talde honetan, osagarrien ondorioz kobratutako kopuruak oso txikiak dira.

Lan Kontratuko Bitarteko Irakasle diren PDak 39 lagun dira guztira eta horien % 31 emakumeak dira. Inork ez ditu 365 egunak lanean eman, ordezkoak baitira, eta emakumeek gizonezkoek baino 16 egun gehiago eman dituzte lanean. Kostuari eta oinarrizko ordainsariari dagozkien arrailak negatiboak dira (% -9 eta % -11, hurrenez hurren). Ez dute bosturtekorik edo seiurtekorik eskatzeko aukerarik. Osagarriak, honela, ondokoetara mugatzen dira: hirurtekoak (% 23), EJren osagarriak (% -1), doktore titulua (% -16) eta I. kapitulutik kanpoko osagarriak (% 92). Kanpoko osagarriak kenduta kopuruak txikiak dira, ohikoa denez ikastegi guztietako talde honetan.

## PD 27 TAULA. BILBOKO INGENIARITZA GET-ko PDen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK

| | SEXO | | | COMPLETA | | | PARCIAL | | | 365 COMPLETA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA | M | H | BRECHA |
| DIAS TRABAJADOS | 363 | 359 | | 363 | 359 | | 365 | 358 | | 365 | 365 | |
| TOTAL_COSTE | 43111 | 39508 | -9,1% | 46470 | 48342 | 3,9% | 7425 | 7737 | 4,0% | 46801 | 49166 | 4,8% |
| RETRIBUCION | 29775 | 27071 | -10,0% | 31960 | 32714 | 2,3% | 6559 | 6779 | 3,2% | 32142 | 33263 | 3,4% |
| TRIENIOS | 2708 | 2457 | -10,2% | 2940 | 3031 | 3,0% | 241 | 392 | 38,7% | 2972 | 3051 | 2,6% |
| QUINQUENIOS | 3760 | 3243 | -15,9% | 4113 | 4145 | 0,8% | 0 | 0 | | 4162 | 4201 | 0,9% |
| SEXENIOS | 1221 | 1305 | 6,5% | 1335 | 1668 | 19,9% | 0 | 0 | | 1351 | 1710 | 21,0% |
| COMPL_RETRIB_GV | 4909 | 4796 | -2,4% | 5341 | 5997 | 10,9% | 321 | 476 | 32,5% | 5404 | 6133 | 11,9% |
| CARGOS | 420 | 402 | -4,5% | 459 | 513 | 10,5% | 0 | 0 | | 465 | 530 | 12,4% |
| TITULO_DOCTOR | 319 | 234 | -36,3% | 320 | 274 | -16,9% | 304 | 90 | -238,0% | 304 | 277 | -9,9% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 1373 | 3446 | 60,2% | 1502 | 4397 | 65,8% | 0 | 30 | 100,0% | 1520 | 4331 | 64,9% |
| Nº PD | 93 | 239 | | 85 | 187 | | 8 | 52 | | 84 | 181 | |

### 4.2.4 LANALDI OSOKO KONTRATUA IZAN ETA URTE OSOAN ZEHAR LAN EGIN DUTEN PDIen (PD) AZTERKETA

Lanaldi ezberdinek duten eragina (partzialarena batez ere) eta lanean emandako egunek kostuentzat dakartzaten ezberdintasunak deuseztatzeko xedearekin, taula honetan lanaldi osoa izan eta urteko 365 egunak lanean eman dituzten lagunei buruzko datuak jaso dira soilik.

Kategoria nagusiak aintzat hartuz, PD TUen (1.053 lagun, % 45 emakumeak) arteko arrailak oso txikiak dira, ez baitira % -2ra iristen, EJren osagarrietan ezik. Hurrengo talderik jendetsuena PD TEUak dira: 446 lagun, % 49 emakumeak direlarik. Arrailak PD TUenak baino handiagoak dira, eta negatiboak orokorrean, seiurtekoak eta EJren osagarriak kenduta. Seiurtekoen arraila oso handia bada ere talde honen baitan (% 48,2), aipatu beharra dago seiurtekoen ondoriozko kopuruak oso txikiak direla, gizonezkoen kasuan (54 euro batez beste) zein emakumeen kasuan (28 euro batez beste), PD TUen taldean adibidez suposatzen duten kopuruekin alderatuta: 2.130 euro, batez beste, gizonezkoen artean eta 2.119 euro emakumeen kasuan. Horrek argi uzten du, beste behin, arrailez gain kostuen, osagarrien eta inplikaturiko lagunen kopuru absolutuak aztertzea beharrezkoa dela ere.

Katedradun PDak 422 dira eta emakumeek % 23 suposatzen dute. Kasu honetan, arrailak negatiboak dira orokorrean, bosturtekoetan salbu, non % 2,1 den. Arraila negatiborik handiena EJren osagarrietan aurkitzen da: % -3,7.

PD Agregatuak 388 lagun dira, % 48 emakumeak direlarik. Oinarrizko ordainsarian ezik (% -1,3), arrailak orokorrean positiboak dira eta % 0,3 (kostua) eta % 19,5 (seiurtekoak) bitartean daude. Kasu honetan seiurtetako diru-kopuruak dira 1.297 euro gizonezkoen kasuan, eta 1.044 euro emakumeen kasuan.

**PD 28 TAULA. KOSTUETAN, OINARRIZKO ORDAINSARIAN ETA OSAGARRI NAGUSIETAN DAUDEN ARRAILAK, LAN-KATEGORIAKA (365 EGUN, LANALDI OSOA)**

| | CT | RET | TRI | QUIN | SEXE | CGV | NUMERO | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | M | H | % M |
| AG | 0,3% | -1,3% | 4,1% | 6,9% | 19,5% | 2,3% | 185 | 203 | 48% |
| AYU | 8,4% | 2,9% | 60,2% | | | 88,4% | 13 | 5 | 72% |
| CEU | -0,2% | 0,1% | 3,0% | 2,1% | -13,1% | -11,4% | 8 | 28 | 22% |
| CU | -0,6% | -3,5% | -0,7% | 2,1% | -0,6% | -3,7% | 95 | 327 | 23% |
| COLEU | -1,9% | 1,2% | -5,0% | -41,3% | | -3,5% | 43 | 43 | 50% |
| COLU | 2,8% | 0,7% | 11,6% | 16,5% | 100,0% | 12,3% | 60 | 80 | 43% |
| LABINEU | 3,7% | 6,3% | 30,9% | | | -20,8% | 15 | 8 | 65% |
| LABINU | 0,8% | 1,5% | 1,6% | | | -52,9% | 103 | 110 | 48% |
| LEC | 0,0% | 0,0% | 3,3% | | | | 4 | 2 | 67% |
| PL | -3,9% | -0,2% | -16,2% | -10,9% | 2,5% | -22,2% | 1 | 3 | 25% |
| NUMNAU | -3,1% | 0,2% | 10,7% | 100,0% | | -42,7% | 1 | 2 | 33% |
| ADJ | 4,5% | 3,5% | 5,5% | | | 24,8% | 91 | 66 | 58% |
| IVEF | 1,9% | -0,3% | 9,7% | 4,9% | 55,2% | 1,5% | 13 | 18 | 42% |
| TU | -0,2% | -1,9% | -1,5% | -1,2% | 0,5% | 4,8% | 473 | 583 | 45% |
| TEU | -1,3% | -0,6% | -3,7% | -3,0% | 48,2% | 0,6% | 219 | 227 | 49% |

## 4.3. SEIURTEKOEN ETA EJren OSAGARRIEN AZTERKETA

### SEIURTEKOEN AZTERKETA

Seiurtekoak jaso ditzaketen taldeen azterketak PD guztiak eta PIen arteko kontratu-mota bat hartzen du[14]. Horrenbestez, PDI 7 taulak talde horiek guztiak aztertzen ditu. Seiurtekoen ondorioz jasotako diru-kopuruak zazpi mailatan banatuta eta azken hauek 2.000 euroko tartetan banatuta ere, seiurtekoak jasotzeko eskubidea duten taldetako kide diren emakumeen % 49ak eta gizonezkoen % 44ak seiurtekorik kobratzen ez duela ikusten da.

Emakumeak PDIen % 45 eta PDen % 42 direla aintzat hartuz, aipatuak seiurtekoak jasotzen dituztenen taldean azpiordezkatuta daudela ondoriozta daiteke, kontzeptu honengatik diru-kopururen bat jasotzen dutenen taldean emakumeak % 38 baitira (1.520tik 583 emakume).

Seiurtetako lehen bi tartetan (diru-kopuru baxuenak) emakumeen % 33 eta gizonezkoen % 32 daude; ondorioz, ez dago ia ezberdintasunik tarte horietan. Eskalan gora egiten den heinean, halere, ezberdintasunak ageriagoak dira eta, honela, hurrengo tartean emakumeen % 17 eta gizonezkoen % 26 daude; hau da, aldea 9 puntukoa da. Honela, tarte altuenetan, hau da, 8.000 euro edo gehiago urtean, emakumeen % 2 eta gizonezkoen % 6 daude. Gizonezkoen kasuan, pixkanakako beherakada ematen bada ere seiurtekoek gora egiten duten heinean, emakumeekin alderatuta, gehiago kobratu egiten dute eta gehiago dira 2.000 eurotik gorako tarte guztietan.

[14] Ondokoak dira seiurtekoak kobra ditzaketen kategoriak: Unibertsitateko Katedradun PDa, Irakasle Osoak, Unibertsitate Eskolako Katedradunak, Unibertsitateko Titularrak, Agregatuak, Unibertsitate Eskolako Titularrak, Unibertsitateko Laguntzaileak, Unibertsitate Eskolako Laguntzaileak, SHEEko Irakasleak eta Doktore Ikertzaileak.

Eta seiurtekoen ondorioz jasotako diru-kopuruak gora egiten duen heinean emakumeen presentziak behera egiten du ere. % 44 dira seiurtekoen eskalarik baxuena kobratzen dutenen artean, % 41 eta % 40 ondokoetan. Eta tarterik altuenetan, % 23, % 21 eta % 19.

**PDI 7 TAULA. PDIen BANAKETA, SEIURTEKOEN ONDORIOZ KOBRATUTAKO DIRU-KOPURUEN TARTEKA**

| | TOTAL | | MUJERES | | HOMBRES | | % M |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Nº | % | Nº | % | Nº | % | |
| 0 € | 1294 | 46% | 569 | 49% | 725 | 44% | 44% |
| 0€-1999€ | 498 | 18% | 219 | 19% | 279 | 17% | 44% |
| 2000€-3999€ | 407 | 14% | 165 | 14% | 242 | 15% | 41% |
| 4000€-5999€ | 354 | 13% | 142 | 12% | 212 | 13% | 40% |
| 6000€-7999€ | 147 | 5% | 34 | 3% | 113 | 7% | 23% |
| 8000€-9999€ | 77 | 3% | 16 | 1% | 61 | 4% | 21% |
| 10000€ y + | 37 | 1% | 7 | 1% | 30 | 2% | 19% |
| Nº PDI | 2814 | 100% | 1152 | 100% | 1662 | 100% | 41% |

**PDI 8 TAULA. PDIen BANAKETA, EJren OSAGARRIEN ONDORIOZ KOBRATUTAKO DIRU-KOPURUEN TARTEKA**

| | TOTAL | | MUJERES | | HOMBRES | | % M |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Nº | % | Nº | % | Nº | % | |
| 0 € | 1.542 | 33% | 749 | 37% | 793 | 30% | 49% |
| 0€-1999€ | 492 | 11% | 163 | 8% | 329 | 12% | 33% |
| 2000€-3999€ | 578 | 12% | 271 | 13% | 307 | 12% | 47% |
| 4000€-5999€ | 829 | 18% | 391 | 19% | 438 | 16% | 47% |
| 6000€-7999€ | 581 | 12% | 242 | 12% | 339 | 13% | 42% |
| 8000€-9999€ | 342 | 7% | 115 | 6% | 227 | 9% | 34% |
| 10000€ y + | 308 | 7% | 82 | 4% | 226 | 8% | 27% |
| Nº PDI | 4.672 | 100% | 2.013 | 100% | 2659 | 100% | 43% |

Eusko Jaurlaritzaren ordainketa osagarriak kuantitatiboki garrantzitsuak dira. Kasu honetan, lagun bat baino gehiago hartzen dituzten kategoriak aintzat hartu dira bakarrik. Nabarmentzekoa da dirurik jasotzen ez duten emakumeen portzentajea (% 37) gizonezkoena baino zazpi puntu handiagoa dela (% 30). Gizonezkoen % 17ak, batez beste, 8.000 eurotik gora jasotzen du urtean kontzeptu honengatik. Emakumeen portzentajea % 10 da.

Osagarri hauengatik diru-kopururen bat jasotzen dutenen talde honetako emakumeak % 40 dira, PDen artean duten pisua baino zertxobait baxuago (% 42) eta PDIen artean duten pisua baino bost puntu beherago (% 45).

Emakumeen presentziarik txikiena tarterik altuenean ematen da, hau da, 10.000 euro edo gehiago jasotzen dituztenen artean; presentziarik handiena, berriz, 2. (2.000-3.999 €) eta 3. (4.000-5.999 €) tartetan, non emakumeak % 47 diren.

## 4.4. PIen ANALISIA

PIen kasuan, 21 kontratu mota ezberdin daude. Nagusia doktore ez den PIa da: 292 (% 25). Ondoren, EJ Prestakuntza Praktiketan dauden PIak datoz, (203, % 17). Kategoria horri praktiketan dauden PI guztiak gehitzen badizkiogu (UPV/EHU bekak, HZM, Nafarroako Gobernua eta Nekazaritza), 347 ikertzaile dira guztira: 347, % 29. Ondoren doktore diren PIak datoz: 126, guztien % 11.

**PI 1 TAULA. PIen IKUSPEGI OROKORRA KONTRATUAREN, LANEAN EMANDAKO EGUNEN ETA BATEZBESTEKO KOSTUAREN ARABERA**

| | PI POR TIPO | | | CT PER CAPITA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Nº | % | DT | CT | CT/CM |
| COTUTELA BURDEOS INVESTIGADOR PREDOCTORAL EN FORMACION | 7 | 1% | 203 | 8873 | 54% |
| COTUTELA PAU INVESTIGADOR PREDOCTORAL EN FORMACIÓN | 4 | 0% | 224 | 9839 | 60% |
| GOBIERNO VASCO INVESTIGADOR PREDOCTORAL EN FORMACIÓN | 53 | 4% | 349 | 15401 | 94% |
| INVESTIGADOR/A (DOCTOR) | 126 | 11% | 240 | 17342 | 106% |
| INVESTIGADOR/A (NO DOCTOR) | 292 | 25% | 230 | 12923 | 79% |
| INVESTIGADOR/A BECARIO MEC | 6 | 1% | 263 | 9859 | 60% |
| INVESTIGADOR/A BECARIO UPV/EHU | 109 | 9% | 344 | 12620 | 77% |
| INVESTIGADOR/A DOCTOR LEY CIENCIA | 44 | 4% | 290 | 23110 | 141% |
| INVESTIGADOR/A EN FORMACION EN PRACTICAS (MEC) | 50 | 4% | 250 | 11250 | 68% |
| INVESTIGADOR/A EN FORMACION EN PRACTICAS (BECARIOS UPV) | 87 | 7% | 347 | 17440 | 106% |
| INVESTIGADOR/A EN FORMACION EN PRACTICAS GV (BECARIOS) | 203 | 17% | 361 | 18216 | 111% |
| INVESTIGADOR/A JUAN DE LA CIERVA | 12 | 1% | 266 | 18383 | 112% |
| INVESTIGADOR/A NARIE CURIE | 19 | 2% | 265 | 28067 | 171% |
| INVESTIGADOR/A RAMON Y CAJAL | 12 | 1% | 357 | 32266 | 196% |
| INVESTIGADOR/A EN FORMACION EN PRACTICAS (BECARIOS GºN) | 3 | 0% | 284 | 12117 | 74% |
| INVESTIGADOR/A EN FORMACION EN PRACTICAS AGRICULTURA GV | 4 | 0% | 361 | 16133 | 98% |
| INVESTIGADORES/AS DOCTORES GOBIERNO VASCO | 35 | 3% | 340 | 26062 | 159% |
| PERSONAL DOCTOR INVESTIGADOR | 39 | 3% | 344 | 38609 | 235% |
| UPV INVESTIGADOR/A PREDOCTORAL EN FORMACIÓN | 7 | 1% | 66 | 2687 | 16% |
| VISITANTE IKERBASKE | 43 | 4% | 350 | 5879 | 36% |
| ZABALDUZ INVESTIGADOR/A PREDOCTORAL EN FORMACION | 33 | 3% | 338 | 14651 | 89% |
| PI TOTAL | 1188 | 100% | 297 | 16431 | 100% |

PIek, batez beste, lanean eman dituzten egunak 297 dira, PDen batezbestekoa baino 51 egun gutxiago. PIen batezbesteko kostua 16.431 eurokoa da eta alde handiak daude oinarrizko ordainsarian kontratu motaren ondorioz, batez ere lanaldi mota ezberdinak direla eta. Doktore Ikertzaileen taldea nabarmentzen da, bere batezbesteko kostua 38.609 eurokoa baita, hau da, PIen batezbestekoaren % 235. 39 lagun dira, hau da, PI guztien % 3. Ramón y Cajal PIak datoz gero: 32.266 euroko ordainsaria, batez beste, % 196 (12 lagun, guztien %1). Marie Curie PIak datoz gero: 28.067 euro, % 171 eta 19 lagun dira (% 2). EJ Doktore Ikertzaileak datoz jarraian: 26.062 € (% 159) eta 35 lagun dira. Talde horien baitan, emakumeen portzentajea % 33 (Ramón y Cajal PI) eta % 49 (Doktore Ikertzaileak) bitartean dago.

Batezbestekotik gertu daude Doktore PIak (126 lagun, % 11): 17.342 euro, Batezbesteko Kostu Osoaren % 106; jarraian, UPV/EHU beka duten eta prestakuntza praktiketan dauden PIak datoz: 87 dira (% 7) eta 17.440 euro kobratzen dituzte, % 106 ere.

Batezbestekoaren azpitik zenbait talde txiki daude eta aipatzekoak dira HZMren prestakuntza praktiketan dauden PIak (50 lagun, guztien % 4, 11.150 euro kobratzen dituzte, batezbestekoaren % 68) eta Ikerbasque PI bisitariak: 43 lagun, (%4) eta 5.879 euro kobratzen dituzte (% 36). Azkenik, UPV/EHU prestakuntzan dauden doktoratu aurreko zazpi ikertzaile daude, 2.687 € kobratzen dituztenak bakarrik (batezbesteko kostuaren % 16).

**PI 2 TAULA. PIen ORDAINSARIEN BEREIZKETA, SEXUAREN ARABERA**

| | PI TOTAL | MUJERES | HOMBRES | BRECHA |
|---|---|---|---|---|
| DIAS TRABAJADOS | 297 | 297 | 297 | |
| TOTAL_COSTE | 16431 | 16188 | 16710 | 3% |
| RETRIBUCION | 15978 | 15774 | 16210 | 3% |
| TRIENIOS | 109 | 92 | 129 | 28% |
| QUINQUENIOS | 22 | 29 | 13 | -124% |
| SEXENIOS | 86 | 76 | 99 | 23% |
| COMPL_RETRIB_GV | 147 | 123 | 175 | 29% |
| CARGOS | 10 | 7 | 14 | 50% |
| INDEMNIZACIONES | 78 | 86 | 70 | -22% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 27 | 30 | 23 | -33% |
| Nº PI | 1188 | 634 | 554 | |

Kontratu bakarra duten PI gisa sailkatutako lagun guztien artean (1.188 lagun), 634 emakume daude (% 53) eta 554 gizonezko (% 47). Batezbesteko oinarrizko ordainsaria (15.978 euro) batezbesteko kostu osoaren (16.431 euro) % 97 da. Horrek esan nahi du osagarriek oso pisu gutxi dutela azken ordainsarian: garrantzitsuenak EJrenak (147 euro) eta hirurtekoak (109 euro) dira. Seiurtekoek 86 euro suposatzen dituzte, batez beste, ikertzaile talde bakar batek baitu (doktore ikertzaileak) seiurtekoak jasotzeko eskubidea.

Emakume eta gizonezko ikerlarien artean orokorrean aurkituriko ordainsarien arteko arrailei dagokienean, nahiko txikiak dira, % 3 baitira kostuan zein oinarrizko ordainsarian. Bosturtekoetan, dirua txikia bada ere, arraila % -124 da. Aipatu bezala, doktore ikertzaileak dira bosturtekoak kobratzen dituzten bakarrak. Talde oso txikia bada ere, osagarriak kobratzen dituena da eta arrailak ikusten dira bere baitan. Emakumeek diru gutxiago jasotzen dute seiurtekoen ondorioz; diru gehiago, ordea, bosturtekoen ondorioz.

**PI 3 TAULA. PIen ORDAINSARIEN ARTEKO ARRAILAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA**

| | MUJERES | | | | HOMBRES | | | | BRECHA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | -1957 | 1958-1967 | 1968-1977 | 1978- | -1957 | 1958-1967 | 1968-1977 | 1978- | 1978- |
| DIAS TRABAJADOS | 292 | 315 | 297 | 296 | 350 | 299 | 297 | 296 | |
| TOTAL_COSTE | 20161 | 24041 | 20106 | 15298 | 10632 | 19989 | 19049 | 15969 | 4% |
| RETRIBUCION | 14972 | 20231 | 18978 | 15172 | 10272 | 16202 | 18092 | 15834 | 4% |
| TRIENIOS | 608 | 628 | 279 | 40 | 0 | 703 | 267 | 53 | 25% |
| QUINQUENIOS | 1805 | 433 | 0 | 0 | 0 | 135 | 28 | 0 | |
| SEXENIOS | 1444 | 994 | 248 | 0 | 0 | 1083 | 197 | 0 | |
| COMPL_RETRIB_G | 1281 | 1531 | 400 | 13 | 207 | 1786 | 336 | 10 | -30% |
| CARGOS | 0 | 173 | 0 | 0 | 0 | 73 | 54 | 0 | |
| INDEMNIZACIONES | 51 | 51 | 200 | 74 | 153 | 6 | 75 | 73 | -1% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 0 | 2 | 16 | 34 | 0 | 161 | 26 | 11 | -193% |
| Nº PI | 4 | 26 | 66 | 538 | 6 | 32 | 102 | 414 | |

Emakume ikertzaileen kasuan (PI), % 85 emakume gazteak dira, 1978tik aurrera jaioak. Horrek esan nahi du PI guztien % 85ak 35 urte baino gutxiago dituela; % 10a 1968-77 bitartean jaio da. Gizonezkoen kasuan aipatu portzentajeak % 75 eta % 18 dira hurrenez hurren, hau da, emakumeak baino zertxobait zaharragoak dira.

Azterketak, horrenbestez, kuantitatiboki pisu handiagoa duen taldean jarri du bere arreta: talde gazteenean.

Ikertzaileen kontratu mota gehienak lanaldi osokoak dira.

2013n 30 urtetik behera (29raino) zituzten emakume ikertzaileak 342 dira, hau da, gazteenen taldearen % 64 eta emakume ikertzaile guztien % 54. Gizonezko gazteen kasuan, 30 urtetik beherakoak taldearen % 58 dira eta gizonezko ikertzaile guztien % 43 dira.

Orokorrean, PIen taldearen baitan emakumeek eta gizonezkoek egun berdintsuak eman dituzte lanean eta oinarrizko ordainsaria kostuaren % 97 da bi kasuetan, hau da, ia lan-kostu osoaren erantzule da. Kostuan dagoen arraila % 3,1 da eta oinarrizko ordainsariarena % 2,7 da; hau da, ia berdinak dira. Nolanahi ere, kostu baxuak dira PDen kostuekin alderatuta eta kopuru absolutuetan dagoen aldearen ondorioz, gizonezkoek 523 euro gehiago jasotzen dituzte urtean, batez beste, emakumeak baino.

Ordainsari baxua duen talde honetan emakume ikertzaile gehiago daude gizonezko ikertzaile baino (emakumeak % 53 dira). Seiurtekoetan dagoen arraila % 23,4 da baina batezbesteko diru-kopuruak oso txikiak dira. Gogoratu beharra dago beste behin PIen artean seiurtekoak kobratzen dituzten bakarrak Doktore Ikertzaileak direla. Talde honetan, arraila % 8 da eta dirutan,

gizonezkoek emakumeek baino 211 euro gehiago kobratzen dituzte, batez beste (kopuru absolutuetan, gizonezkoen batezbestekoa 2.738 eurokoa da).

20 lagun baino gehiagoko talde ezberdinak aintzat hartuz (Ikus PI 3.1 taula), arrailarik handiena % 13 da eta HZMaren diru-laguntzak jaso eta prestakuntza praktiketan dauden PIei zein doktore ez diren ikertzaileen talde handienari dagokie. HZM diru-laguntza jasotzen duten bekadunak oso gutxi dira (20 emakume eta 30 gizonezko) eta batezbestekotik behera dagoen ordainsaria jasotzen dute. Kostu osoari dagokionean, gizonezkoek gizon guztien batez bestekoaren %71 jasotzen dute eta emakumeek, berriz, emakume guztien batez bestearen % 63. 365 egunak kontratatuta egon diren pertsonak erreferentziatzat hartuz, kopuru berbera kobratzen dutela ikusten da. Arrailaren zioa da ikertzaile gisa izan dituzten kontratuen epean dauden aldeak.

Bigarren taldeak, hau da, doktore ez diren PIak hartzen dituen talde handienak (158 emakume eta 134 gizonezko), egoerarik ezegonkorrenean dauden lagunak hartzen ditu, batezbestekoa baino dezente gutxiago kobratzen baitute. Gizonezkoek gizonezko PIen batezbestekoaren % 86 kobratzen dute eta emakumeek emakume PIen batezbestekoaren % 73. Kasu honetan, ezberdintasun horren zioetako bat da lanean emandako egunak. Kostuan zein oinarrizko ordainsarian, % 13ko arraila dago gizonezko eta emakumeen artean.

Lanean ia 365 egunak eman dituztenen artean, talde handietan, EJren prestakuntza praktiketan dauden PIak nabarmentzen dira (128 emakume eta 75 gizonezko). Batezbesteko kostua baino kostu handiagoa dute, urtean lanean ematen dituzten egunengatik hein batean. Gizonezkoek gizonezkoen batezbestekotik (% 100) gora kobratzen dute, % 104, eta emakumeek beren batezbestekoaren baino gehiago kobratzen dute ere (% 113); azkenik, ez dituzte egun berdinak eman lanean. Horrenbestez, talde hau da urte osoko iraupena duen kontratutik gertuen dagoen taldea.

# 5. PASen INGURUKO I. KAPITULUAREN AZTERKETA

## 5.1. PASen IKUSPEGI OROKORRA

UPV/EHUk 1.988 Administrazio eta Zerbitzuetako Langile (PAS) zituen 2013n. Horietako ia bi heren (% 64) emakumeak direnez, nahiko feminizatua dagoen taldea dela esan daiteke. Kontratu bat baino gehiago dituzten PAS langileak 321 emakume dira (emakumeen % 25) eta 192 gizonezko (gizonezkoen % 27). Emakume (% 85) zein gizonezko (% 87) gehienek bi kontratu izan dituzte 2013. urtean zehar.

**PAS 1 TAULA. KONTRATU BAT BAINO GEHIAGO DITUZTEN PAS EMAKUMEEN ETA GIZONEZKOEN KOPURUA**

| Nº CONTRATOS | MUJERES | HOMBRES |
|---|---|---|
| 2 | 273 | 167 |
| 3 | 35 | 21 |
| 4 | 9 | 1 |
| 5 | 4 | 2 |
| 6 | | 1 |
| TOTAL PAS | 321 | 192 |

Kontratu bat baino gehiago izan dituztenen erdia pasatxo 2. tartean dago, hau da, 45-55 urte bitartean ditu. 2. eta 3. tarteak batuz gero emakumeen eta gizonezkoen portzentajea % 78,5 da. Antza, horrek esan nahi du zati handi bat langile egonkorren barne-mugimenduen ondorio dela.

**PAS 2 TAULA. KONTRATU BAT BAINO GEHIAGO DUTEN PASak, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA**

| ADIN TARTEAK | Emakumeak | EMAKUME GUZTIEKIKO % | Gizonezkoak | GIZONEZKO GUZTIEKIKO % |
|---|---|---|---|---|
| 1978- | 12 | 3,70% | 7 | 3,60% |
| 1968-1977 | 86 | 26,80% | 49 | 25,50% |
| 1958-1967 | 166 | 51,70% | 102 | 53% |
| -1957 | 57 | 17,70% | 34 | 17,70% |
| PAS GUZTIAK | 321 | 100% | 192 | 100% |

Kontratu bakarra duten PASen kostuan eta oinarrizko ordainsarian dauden arrailak % 8 eta % 9 dira, hurrenez hurren. Hirurtekoetan emakumeek gizonezkoek baino gehiago kobratzen dute: % 10eko arraila negatiboa. Beste osagarri guztien batezbesteko kopuruak oso txikiak dira, oso lagun gutxik kobratzen baititu aipatu osagarriak. Arrisku-osagarria, esaterako, 19 eta 27 euro dira hurrenez hurren, bederatzi emakumek bakarrik kobratzen dutelako arrisku-osagarria eta horietako seik 365 egun eman dituztelako lanean. Azken horiek, batez beste, 2.614 euro kobratu dituzte. Medikuntza eta

Farmazia sailetan lan egiten dute aipatuek.

Gizonezkoen artean, seik bakarrik kobratu dute arrisku-osagarria. Horietako bostek 365 egun eman dituzte lanean eta 2.870 euro kobratu dituzte, batez beste. Horietako bik batezbestekoaren gainetik kobratu dute eta Medikuntza Fakultatekoak dira.

Emakumeen kasuan, bi emakumek bakarrik kobratzen dute arduraldi osagarri berezia eta 2.765 euro kobratzen dituzte batez beste. Gizonezkoen kasuan, hiru gizonezkok bakarrik kobratzen dute osagarri hau eta horietako bik arrisku-osagarria kobratu dute ere. 4.456 euro kobratu dituzte, batez beste. Medikuntza Fakultateari atxikita daude bi eta bestea telefono-komunikazioetako sailari.

**PAS 3 TAULA. PAS EMAKUMEEN ETA GIZONEZKOEN OINARRIZKO ORDAINSARIAK ETA ARRAILA**

| | MUJERES | HOMBRES | BRECHA |
|---|---|---|---|
| N.DIAS TRAB. 2013 | 338 | 345 | |
| TOTAL_COSTE | 32434 | 35392 | 8% |
| RETRIBUCION | 30118 | 33100 | 9% |
| TRIENIOS | 2222 | 2028 | -10% |
| COMPL_PERSONAL | 44 | 74 | 41% |
| COMPL_PELIGROSIDAD | 19 | 27 | 29% |
| COMPL_ESP_DEDICACION | 6 | 25 | 77% |
| COMPL_ACUM_TAREAS | 16 | 11 | -50% |
| SERVICIOS_ESPECIALES | 2 | 2 | -17% |
| PLUSES | 2 | 3 | 22% |
| INDEMNIZACIONES | 5 | 122 | 96% |
| COMPL_AJ_CAP_I | 33 | 48 | 32% |
| Nº PAS | 947 | 528 | |

Bost emakumek baino ez dute kalte-ordainik kobratu. Horietako bik lau egun eman dituzte lanean urte osoan; beste bik, berriz, urte osoa. Azken horiek, batez beste, 2.237 euro kobratu dituzte. Sei gizon izan dira osagarri hau kobratu duten bakarrak. Bakar batek lan egin du urte osoan eta, halere, kalte-ordain txikia jaso du. Gehien kobratu duenak 46.000 eurotik gorako kalte-ordaina jaso du.

Laburbilduz, osagarrien eta kalte-ordainen kopuruek oso lagun gutxirengan dute eragina eta, ondorioz, ez dute garrantzirik talde hauen azterketarako. Hori guztiarengatik, PAS langileei buruzko azterketak batez besteko kostu osoa, oinarrizko ordainsaria eta hirurtekoak aztertuko ditu. Beste datu guztiak tauletan mantenduko dira halere, azterketa osoarekiko koherentzia bermatzeko.

Hirurtekoen osagarria da hiru urtetik goragoko lan-antzinatasuna duten ia langile guztiak kobratzen duten osagarri bakarra. 58 emakumek eta 30 gizonezkok ez dute hirurtekorik kobratu 2013n.

## 5.2. ADIN TARTEEN ARABERAKO AZTERKETA

### PAS 4 TAULA. PAS EMAKUMEEN OINARRIZKO ORDAINSARIAK, ADIN TARTEKA

| | -1957 | 1958-1967 | 1968-1977 | 1978- |
|---|---|---|---|---|
| DIAS TRABAJADOS | 343 | 346 | 330 | 292 |
| TOTAL_COSTE | 32609 | 33693 | 31014 | 28552 |
| RETRIBUCION | 28862 | 31144 | 29929 | 27982 |
| TRIENIOS | 3591 | 2480 | 1013 | 416 |
| COMPL_PERSONAL | 57 | 45 | 27 | 57 |
| COMPL_PELIGROSIDAD | 12 | 16 | 15 | 86 |
| COMPL_ESP_DEDICACION | 26 | 0 | 0 | 0 |
| COMPL_ACUM_TAREAS | 46 | 6 | 12 | 0 |
| SERVICIOS_ESPECIALES | 10 | 0 | 0 | 0 |
| PLUSES | 5 | 2 | 0 | 6 |
| INDEMNIZACIONES | 0 | 0 | 18 | 5 |
| COMPL_AJ_CAP_I | 34 | 31 | 37 | 22 |
| Nº PAS MUJERES | 214 | 428 | 247 | 58 |

UPV/EHUn PAS gisa lan egiten duten emakumeek 45 urtetik goragoko adina duten lagunen talde bat osatzen dute. Honela, PAS emakumeen % 45ak 46-55 urte bitartean ditu. Eta % 68ak 46 urte baino gehiago ditu. Beste muturrean 35 urtetik beherakoak daude: % 6. Batezbesteko kostua eta oinarrizko ordainsaria talde handienari dagozkio, hau da, 2. tarteko horri. Hirurtekoek, halere, gora egiten dute adinak gora egiten duen heinean, aipatuek urte gehiago bait daramatzate Unibertsitatean.

Adin tarteen artean, gehien kobratzen dutenen eta gutxien kobratzen dutenen arteko aldea % 15 da. Gutxien kobratzen dutenak talde txikiena dira, hau da, gazteen diren emakumeak.

**PAS 5 TAULA. PAS GIZONEZKOEN OINARRIZKO ORDAINSARIAK, ADIN TARTEKA**

| | -1957 | 1958-1967 | 1968-1977 | 1978- |
